

ttipi-ttapa



ADOLFO LACUNZA

'Arkanbele kantak'
poema liburua
argitaratu du Mikel
Taberna Irazokik / 8

Mobilizatzeko deia
egin du M1 Klase
Kontzientzia Hedatu
dinamikak / 17



Asun eta Juli
Elizalde Danboriena
Arkupeak elkarteko
zaharrenak / 28

SINADURAK



XABAT
ILLARREGI
MARZOL / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



LOREA
FLORES
COMPAINS / 4



MIKEL
GEREKA
ZELAIA / 4



USAINIK GABEKO MUNDUAN

Koronabirusa tarteko, azken aldian aunitzek galdu dute usaimena. Badira, ordea, bertzelako kasuak. Naroa Fernandez leitzarrak inoiz ez du usainik antzeman eta Bixente Iriarte narbartearrak lan-istripuan galdu zuen / 10

 **ttipi txartela**

Josune Sorando Oñazola
72673152-A
telefonoa: 020/04
n. 372

ZOKKETA / 60

Aroztegia gelditu nahian

Hainbat herritarrek Lekarozen egin nahi duten Aroztegiko obra geldiarazteko deia egin dute. / 37

BERA LESAKA

Agenda 2021

APIRILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

19-30 ASTELEHENETIK ORTZIRALERA	ERAKUSKETA ETXEPAREREN ALBUM ILUSTRATUAK 14:00-20:00 Herri liburutegian Argibide gehiago www.etxeparesaria.eus BERA Antolatzaileak Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala
22 ORTZEGUNA	LITERATURA SUGARREN MENDE Liburu aurkezpena eta solasaldi ilustratua. (Asisko Urmeneta eta Helena Xurio) 18:00 Kultur etxean BERA Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea, Berako Udala eta Berako Liburutegia
23 ORTZIRALEA	KONTZERTUA NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA Sarrera 6€ 19:00 Harriondoa Kultur Etxean LESAKA
24 LARUNBATA	MERKATUA MERKATU TTIKIA LESAKA 10:00-14:30 Beheko Plazan

24 LARUNBATA	BERTSOLARITZA ZAPLA! NAFARROAKO BERTSO PLAZA MARTXAN Berako saioa "Bidasoan gora" 18:30 Kultur etxean Sarrerak 8 € (arrunta) / 7 € (bazkideak) www.bertsosarrerak.eus Bertsolariak Alazne Untxalo, Ander Fuentes Iturri, Ekhiñe Zapiain, Xabier Terreros Terre Gai-jartzaileak Maddi Ane Txoperena Eneko Aizpuruaren "Bidasoan gora" liburuan oinarritua (Elkar, 2020) Antolatzaileak Nafarroako Bertsotzale Elkartea Laguntzaileak Berako Udala BERA
25 IGANDEA	EMANALDIA LESAKAKO TXISTULARI TALDEA LESAKA 12:30 Plazan
25 IGANDEA	FILMA NON DAGO MIKEL? Sarrera 3€ 19:00 Harriondoa Kultur Etxean LESAKA

25 IGANDEA	TXIRRINDULARITZA ERRANDONEA MEMORIALA Kategoría Junior Irteera ordua 11:00 Luzera 70 km Antolatzaileak Gure Txokoa elkarteak BERA
30 ORTZIRALEA	LIBURU AURKEZPENA BIDASOAN GORA (ENEKO AIZPURUA) 19:00 Kultur Etxean Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea, Berako Udala eta Berako Liburutegia BERA

1 LARUNBATA	AZOKA ARTISAU AZOKA 10:00 / 14:00 Antolatzaileak Argitsu Bidasoa Eskualdeko Artisauen Elkartea LESAKA
1 LARUNBATA	KONTZERTUA ETS 17:00 / 19:30 Harriondoa Kultur Etxean LESAKA

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa

32.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

%60,3
EMAKUMEAK

%39,7
GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Adina	14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	+64 urte
Irakurle %	11,2	1,8	13,9	14,1	18,9	15,3	24,7

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%16,3
Oinarrizko ikasketak

%41,2
Unibertsitatea

%10,7
Oinarrizko batxillergoa

%31,8
Goi mailako batxillergoa

Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle **Berria** 1.000 irakurle

DATU ITURRIA: CIES, 2020ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

XABAT ILLARREGI MARZOL

Apirilaren 17a

Apirilaren 17an, preso politikoen nazioarteko eguna izan zen. Nazioarteko egun seinatu bat zen, bai, baina nazioartean ez ezik gure herrian oihartzun handiko zerbait da preso politikoen afera. Dagoeneko normaltzat hartu baldin badugu ere, gogorra bezain harrigarria da oraindik ere ziegan, heritik ehunka kilometro, libre izan nahi izateagatik eta horren aldeko lanean aritzeagatik euskaldun asko preso daudela pentsatzea. Askotan hitz egiten dugu euskal gatazkaren ondorioez, baina niri iruditzen zait ez garelako euskal gatazkaren ondorioak bizitzen ari, oraindik ere gatazka bete-betean gaudela. Urteak preso daramatzaten presoak etxeratu arte, herritarron eskubideak onartu arte eta gure herriaren gaineko erabakiak herritarroi libre hartzen uzten diguten arte ez da gatazkarik bukatuko. Normaltzat hartzen dugu presoen gaia, beharbada distantziatik begiratzen diogulako. Pentsatu zer den pertsona bat 5, 10, 15, 20, 25 urtez gela batean sarturik edukitzea, etxetik urrun, senide, lagun, herritarrengandik urrun, isolaturik... Agian ez zara hain lasai geratuko, edo barrenak mugituko zaizkizu. Horregatik atera ginen kalera apirilaren 17an.

«ORAINDIK ERE
GATAZKA BETE-
BETEAN GAUDELA
IRUDITZEN ZAIT»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Welcome Mrs. Txibite

Segurtasun gehiago eskatuz alkate eta suhiltzaileek Belateko tunelak itxi eta kasik biharamunean etorri zaigu bisitan (lehen aldiz) Txibite anderea. *Nola bada? Oronoz-Mugairin eskualde osorako institutua eraiki behar dugu eta, 2+1 errepidea, Bertiz, artzainen museoa Elgorriagan...* Hori dena ongi dago, baina ezin al dituzue nazioarteko kamioiak A15era bideratu?

NABARMENTZEKOAK



LOREA
LIZARRETA
ERRATZU



IERA
AGIRRE
LEITZA

Lorea Lizarreta erratzuarrak lortu du ikasketa akaberako lana egiteko Baztango Udalak emandako dirulaguntza. Jauregia esnekietarako postretarako esneki berria diseinatzea du helburu.

Palmaresa hornitzen segitzen du Iera Agirre Leitzako pilotariak. Lortu duen azken garaipena eskuz binakako Master Cup txapelketa izan da, Maite Ruiz de Larramendirekin.

ATZERA BEGIRA



2011-04-14 · TTPI-TTAPA · 540 zk.

Portugaldarren kontrabandoaz solasean

Kontrabandoari buruzko ikerlan andana egindakoa da Rosa Arburua, eta duela hamar urte kontrabandoaren alderik gordinenaz aritu zen TTPI-TTAPAREKIN: jendearen kontrabandoaz. Gaia «isilpekoa» zela kontatu zuen eta «klandestino zenez zaila da kalkulatzeko baina XX. mendearen bigarren erdian Portugaldik 900.000-1.000.000 lagun atera eta Europa aldera joan zirela kalkulatu da. Gehiengo Frantziara joan zen eta gehienak gure inguru honetatik pasatu ziren». Bidean izandako «ezbeharrak» ere hizpide izan zituen eta «abandonatutakoak, gaizki tratatutakoak, errekan ito edo mendian 'hildakoak'» izan omen ziren. Portugalgo mugara joaten ziren euskaldunak ere bazirela kontatu zuen, jendea bertan hartu eta honat ekartzen zutenak.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eu

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Alizuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdosain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 40€
eta Malerreka 30€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

E... Etsipena

'E' hizkiak bat-batean etorri zaidan hitza da etsipena (bizitzen ari garen ohitu ezinezko aro luze eta neketsuaren seinale), eta horrela definitzen du Euskal Hiztegi entziklopedikoak: «Itxaropena erabat galdu duenaren, zerbaitetan etsi duenaren, amore eman duenaren egoera eta sentimendua». Hausnarrean gelditu naiz luze; hitz hori tupustean zergatik agertu ote zaidan. Ez dut gustuko.

Hausnarketa horretatik beste 'e' bat: ezerosotasuna. Buruak edo arrazoiak dakarren pisua alde batetik eta erraieetatik datorren sentimendua bestetik. Arrazoa eta sentimenduaren arteko desorekak nigan ahalbideratzen duen ezerosotasuna. Ez naiz eroso sentitzen etsipenaren aurrean eta erraiek horren aurka borrokatzea naramate. Egunerokoak –'e' hizkia honek ere– ez ditu gauzak errazten eta medioek eta inguru-neak une oro bonbardatzen gaituzte munduan Covid-19a besterik egonen ez balitz bezala.

Errudun ('e') sentiarazten gaituzte nonbait ongi egin ez dugunarengatik, eta erruduntasuna ere ez da niretzat ongi daraman sentimendua, kristautasunaren zama astuna baitu soinean.

Ehunekoak eta estatistikak etengabe, ('e'-z osaturiko hirukotea): hildakoak, ospitaleratuak, positibo tasa, kutsa-

tuak, intzidentzia maila, aldaera britaniarra, adin tarteak, ZIU zainketakoak...

«KANTAK DIOEN
BEZALA 'BADIRA
MILA MOTIBO
KANTATZEKO ALAI'»

Guda hizkuntza: konfinamendua, alarma egoera, eremu gorria, pasabide ziurrak, etxeratze agindua, itxiera perimetrala, arau

haustek, krisi egoera...

Nekea eta gogaitasuna. Asperdura.

Etsipenari ez! Zaila baldin bazaigu ere. Kanta zaharrak dioen moduan *badira mila motibo kantatzeko alai!* Eguneroko uneak, iheskor eta paregabeak dastatuz. Mendi senda hartu eta udaberriaren eztandaz gozatu, kukuarekin bat duetoa osatzea, sagarrondo eta gereziiondoen lore zaparradaz busti, erreka bazterreko ur soinuekin abestu, harritzko hormetako sugandilen harrapaketa jokoekin memelotu, eguzkipean etzan eta hasperen egin, maite duzun hori beso artean goxo-goxo estutu eta belarrira xuxurlatu, kopa dotoreko ardo onduan ezpainak busti eta mingaina kilikatu, zeruan begirada galdu, hodeitan marraztu, eskuarteko liburua gainean erori eta aiba... Lokartu egin zarela ohartu, dutxa azpian Pavaroti bihurtu. Zerrenda luzea da –mila motibo– eta bakoitzak berea izanen du, gailendu nahian ari den pandemi aroa edo eroaz aparte.

Beraz, nire herriko Ruper txantxikuak dioen bezala *zaindu maite duzun hori* eta zure motibo zerrenda xurgatu.

Etsipenari ez!

Eutsi goiari!! Eutsi.... e? Eeeeeeeee.



LOREA FLORES COMPAINS

Auzo konposta ala
organikoarentzako zaborrontzia?

Gure eskualdean hondakin organikoak biltzeko bi aukerak ditugu nahiz eta herrien artean baden ezberdintasunik. Lesakan, adibidez, azken urteetan zaborrontzi marroien aldeko apustua egin da, auzo konpostaren kalterako. Itxuraz, biak sistema onak dira materia organikoa bereiz biltzeko zein hau birziklatzeko. Baina, badira ezberdintasun handiak.

Auzo konpostari dagokionez, aukera bikaina ematen du, eskualdean bertan bildutako materia organikoa konpostatu eta berrerabiltzeko. Bortzirietan, etxean konposta egin ezin duten herritarrek auzo konposta erabiltzen dute beraien etxetan sortutako hondakin organikoak konpostatzeko. Mankomunitateak honen jarraipena egiten du, eta prozesua amaitzean, bildutako konpost guztia mankomunitatean bildu eta erabiltzaileen artean banatzen da baratze edo lorategietan erabiltzeko. Ziklo osoa Bortzirietatik atera gabe osatzen da, eskualdean aberastasuna sortuz. Bai sortutako ongarriarengatik, baita prozesua egoki mantentzeko behar diren enpleguen sorrerarengatik. Prozesu guztiz zirkularra eta lokala da.

Zaborrontzi marroian bildutako materia organikoak, ordea, bidaia anitzez luzeagoa egiten du.

Materia organiko hau lehendabizi, Donezteben dagoen

transferentzia planta batera eramaten da. Ondotik, bertan pilatutako guztia Tuteraraino eramaten da bertan dagoen biometanizazio planta batera. Hemen ikusten dugu lehen desberdintasuna: konpostagailuetan bildutakoa, eskual-

«EZ AL LITZATEKE
HOBEA BERRIZ AUZO
KONPOSTAREN ALDE
APUSTU EGITEA?»

dean birziklatzen den bitartean, zaborrontzi marroikoak bidaia luzeak egiten ditu. Zentzu honetan, ezin dugu ahantzi garraioa negutegi efektuko gas isurketen iturri nagusietako bat dela. Eta beraz, gure ekintzak eta kudeaketa sistemak jasangarriago egiteko, alferrikako garraio guztiak ekidin beharko genituzkeela.

Baina gainera, Nafarroan ez dago konpostaje planta handirik, eskualde gutti batzuetan baino ez daude planta txikiak eskualdeari zerbitzua ematen diotenak. Beraz guk sortutako materia organikoak biometanizazioa deritzon prozesu bat jasaten du Tuteran. Biometanizazioaren bidez, alde batetik gasa lortzen da. Hau erregai moduan erabiltzen da, berriz ere negutegi efektuko gasak sortuz. Bertze aldetik frakzio solido bat ongarri bezala erabili daitekeena. Baina, ongarri hau Tuteran sortzen da, gure hondakinak sortu ditugun tokitik urrutiti. Gainera, biometanizazio prozesuak ur anitz erabiltzea eskatzen du, eta horretarako, etxeetako hondakinei, ur araztegietatik edota bertze industrietatik datozen hondakin likidoagoak eta ura gehitzen zaizkie. Sortutako ongarria beraz, kalitate anitzez baxuagokoa da eskualdean konpostaje bidez lortutakoa baino.

Beraz, izenburuko galderara itzuliz, ez al litzake hobea berriz auzo konpostaren alde apustu egitea eta mankomunitateetatik, eskualdeko konpostaje planta baten alde egitea, gure hondakinak Tuteraraino bidali ordez?

11 GALDERA LABUR

AINTZANE ARIZTEGI KLAKE PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

«Euskal Herri osoko gazteon ahotsa indartzea dugu helburu»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Gizartearekin konprometitua dagoen 23 urteko lekaioz tarra. Zein dira zure zaletasunak?

Nire denbora librearen puska handiena militantzia politikoak hartzen duen arren, lagun artean irri eta tragoak elkarbanatzea bezalakorik ez dago. Zein proiektutan zaude sartuta? KLAKE Euskal Herriko gazteon komunikazio proiektu berria. Gure kezka eta interesak uztartuz eraiki dugun proiektua da, horiek plazaratu eta eztabaidatzeko espazioa.

Nola hasi zinen proiektuarekin?

Ni proiektuan sartu orduko, lantalde batek hilabeteak zerramatzen KLAKE-iforma ematen. Koordinazioaren ardura duen baten bila zebiltzan, eta pro-

posamena ailegatu zitzaidanean ez nuen aunitz dudatu.

Crowdfunding bat egin zenuten dirua lortzeko. Nola atera zen?

Arras ongi! Helburutzat finkatu genuen minimoa aise pasatu genuen. Proiektu honen gibelatik badago haren beharra sumatzen duen kolektibo bat.

Zein da zuen helburu nagusia?

Euskal Herri osoko gazteon ahotsa indartzea. Gaur egun, edozer erraten da gazteon inguruan, guri deus galdetu gabe. KLAKE-ek ahots propioz solastatzeko tresna eskaintzen digu.

Astero podcast berri bat. Nondik ateratzen dituzue gaiak?

Geure buruari galdetzea bertzerik ez dugu: «Zer gustatuko litzaidake entzutea/ikustea niri?»; eta mila aukera topatzen dituzu aitzinean.



Sare sozialek garrantzi handia daukate hedapenean?

Gaur egun, sareetan ez dagoenak arras zaila du gazteengana ailegatzeko; gure kasuan, berebizikoa da. Gazteok batzartze egunean borts ordu baino gehiago pasatzen dugu pantailaren aitzinean! Aunitz da, baina ezin da ukatu eragiteko bertze espazio bat dela.

Jendearen erantzuna?

Harrera arras ona izan dugu. Asteetik atera haunditzen doa gure komunitatea. Asteazke-

nero podcast bat kaleratzen dugu, eta astean zehar bertzelako edukiak zabaltzen ditugu sareetatik. Zer gustatu den eta zer ez ikasten gabilta.

Zure asmoak epe motzera?

Bide beretik segitzea, eta ikasitakoarekin, hobetzea! Hori bizitzako alor guzietan.

Eta epe luzera?

Uf! Ikasketak akitu berri ditut, eta nire biziko etapa berean dagoen pertsona bati egin ahal zaion galdera okerre da. Lausoegi dago etorkizuna.

Bilduma berria

70. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornoak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

N-121A: Txibite lehendakaria eta «bere lurralde antolamendu»

MIKEL URIARTE | N-121A ERREPIDEKO BIZILAGUNA, ALKATE OHIA ETA OROÑOZ-MUGAIRIKO SUHILTZAILEA Txibite lehendakari andrea, hitz politik erabili zenituen joan den martxoaren 30ean Bertizko Jauregian Baztan-Bidasoko alkateekin egin zenuen agerraldian, eta are «borobilagoa» izan zen hedabideei aurkeztu zenieten prentsa-oharra.

Nabarmendu zenuenez, «azpiegiturak eskualdearen lurralde antolamendurako eta kohesio sozialerako funtsezkoak dira eta horregatik, N-121A errepidea 2+1 bide bilakatzea eta bertako tunelak bitan banatzea lehenesten dira eta horretara bideratzen ari dira ahalegin ekonomikorik handienak».

Baina inguruko alkate eta herritarrontzat, —ez Baztan-Bidasoko gonbidatuentzat bakarrik—, Iruñea eta Behobia artean dauden herrietako 29 udal eta herritarrentzat, alegia, azpiegiturak lurralde antolamenduan duten eginkizuna bertzelakoa da. Hau da, komunikazio-bideak (errepidea eta tunelak) gainezka ez egitea, lasaiagoak, garbiagoak eta seguruagoak izatea edo ongi mantentzea erran nahi du, eta nahi eta merezi dugulako, inguruko tokiko garapenari bidea emanen diotenak izatea. Ez dugu «pixa egiteko ere» gelditzen ez diren kamioi transeuroparren korridorarik nahi, horrek inguruan dauden herrietako elkarbizitza aunitz baldintzatzen duelako, tokiko garapen sozial eta ekonomikoari ekarpen gutti egiten diolako eta alderantziz, inguruko ingurumena aunitz kaltetzen duelako.

Horregatik, egunero-egunero pasatzen diren «nazioarteko» 3.000 ibilgailu astunen trafikoa behin betiko paraleloa den A-15era desbideratzeko eskatzen dizugu (eta ez zure oharrak dioen bezala, asteburuetan bakarrik). Neurri horrek, zalantzarik gabe, Belateko tunelen arrisku-maila hagitz modu eraginkorrean murrizten lagunduko luke. Oronozko suhiltzaileok ere horixe da

eskatzen duguna; tunelen segurtasuna areagotzeko premiazko neurriak hartu behar direla eskatzen ari gara, orain, epe laburrean, 2025era arte esperoan egon gabe.

Kamioiak desbideratzeko eskariari dagokionez, honela erran zenuen: «Nafarroako Gobernuak zerbitzu juridikoek ezinezkoa dela erraten digute. Errepide nazionalari buruz ari gara». Akaso zuk edo zure zerbitzu juridikoek uste duzue N 232 (Zaragoza eta Logroño arteko errepide nagusia), N II eta N 340 (Frantziatik Mediterraneora doan errepidea) edo N 240 (Ebrotik Tarragonara doana) eskualde mailako errepideak direla? Urteak pasatu dira Errioxako eta Kataluniako gobernuek errepide «nazional» horietan segurtasunaren aldeko apustua egin zutenetik eta kamioiei errepide horietatik ibiltzea debekatu zietenetik. Hori horrela, ez al da ba Nafarroako Gobernuaren borondate eta ahalegin falta bertzerik izanen? Biler hartan zure ondoan jarrita zegoen Ziriza kontseilariak ezin izan zuen ezintasun juridiko hori zehaztu eta arrazoitu, ezin izan zuen erantzunik eman.

Ziriza jaunak berak alkateei, Bertiz-rako bidean, ez zitzaiola trafikoko handiko errepidea iruditu bota zien, ez zitzaiola iruditu hainbertze kamioi zegoenik. Gutti iruditzen al zaizkizu gero eta maizago sortzen diren auto-ilarak? Aldi honetan, bisita egin zenuenetik bortz egunera sortu ziren, bi egunez segidan, 14 kilometro arteko ilarak, eta gehienak mugara zoazen kamioiak ziren.

Txibite andrea, zure proiektuen jasangarritasuna goraiatzeko duzu. Bada Nafarroako Gobernuak orain N-121A errepideko galtzada eta tunelak baldintza egokian eta seguruan mantentzeko gai ez bada, 2+1 errepidea bilakatzeak eta bi tunel egiteak sortuko duen gastuarekin egin ahal izanen duela iruditzen zaizu? Azpiegitura honen mantentzea eta segurtasuna bermatzea garestitzen eta zailtzen duena ibilgailu astunen joan-etorria da.

Errepide hau 2+1 bilakatzeak lanak edo tunelen bikoizketa garestia egitea

proposatu dugunak ez gara eskualdeko alkateak eta herritarrek izan. Are gehiago, tunelen bikoizketa ez da guztiz beharrezkoa Europako araudiak eskatzen duen segurtasun-maila betetzeko.

Gobernuak bere aldetik hartu ditu erabakiak, eskualdeko herritarren hitza kontuan hartu gabe. Guretzat, errepide honen segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko hartu beharreko «doako» neurria kamioiak A-15etik desbideratzea da. Ez dugu bertzerik eskatzen.

Bertze erkidego batzuetan neurri hau hartzea posible izan dela ikusita, apirilaren 16ko errepide mozketan bezala, gure eskaera berriz aditzeko aukera izanen duzue.

Auzo lotsa 4: Agintza**XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ**

Iruñean badago elkarte bat, izena duena, Nafarroako Pertsona Gutxitu Fisikoen Elkarte-Koordinakundea. Ez dakit zehazki noiz sortua den, baina kontua da, aspalditik ari dela martxan, eta, koordinakunde horretan, pertsona batek baino gehiagok parte hartu izan dugu, Nafarroa osoan zeuden eta dauden arkitektura oztopoak kentzen saiatzeko.

Neronek aitortzen dut, sekula santan ez dudala aparteko bokazio berezirik izan lantegi horietan aritzeko, baina, bizitzan zehar, gizartean sarritan ikusten nuen premiak behin eta berriz eraman izan nau afera horietan sarritan aritzera, alegia, oztopo arkitektonikoak borrokatzea.

Zehazki ez dut gogoratzen zein urte-tan izan zen, segur aski, 2000 inguruan edo lehenago, baina kontua da, urte hartan udal hauteskundeak zeudela, noski, eta PSNko Javier Iturbe jauna hantxe agertu zitzaigun, Koordinakundearen egoitzan, bere hauteskunde kanpaina egitera, eta, nagusiki, honako haxe esan zigun, hau da, «Botoa ematen badidazue, haxe eta haxe egingen dut arkitektura oztopoak desagerrarazteko». Baina, esateko moduarengatik, bazirudien, botoa berari ematen baldin

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

bagenion, lan handia eginen zuela delako arkitektura oztopoak kentzeko alor horretan, baina, bestela, ez, eta nire iritziz, nahiko irudi txarra eman zuen, gure aurrean, behinik behin, bai baitzirudien xantaia egin nahi zigula, hots, botoa niri ematen badidazue, orduan, bai, orduan lan handia eginen dut alor horretan, baina, bestela, ez, edo antzeko zerbait esan nahi izan bali gu bezala. Nik pentsatzen dut, barruan ez zela hura izaneren bere asmoa, baina, kanpotik, halako itxura kaskarra eman zuen bederen.

Oker ez banago, hautatua atera zen, hau da, Iruñeko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten, baina, uste dut, elbarriok behintzat ez genuela nabaritu egundoko alderik onerako, hirian kendu beharreko oztopo arkitektoniko haien eremuan. Zer eginen diogu, ba?

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plantilla Organikoak unibertsitate elebakarra islatzen du

JOSEBA OTANO VILLANUEVA | ADMINISTRAZIOAN
EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plantilla Organikoa argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak 2021eko martxoaren 2an.

563 lanpostu ditu NUPEk. Hizkuntz profil elebiduneko lanpostuak (euskara/gaztelania) 33 dira (% 5,86). Ingeleseko hizkuntz profila dutenak 18 dira (% 3,20).

Nafarroako Unibertsitate Publikoa Unibertsitate elebiduna (euskara/gaztelania) bihurtzekotan, Plantilla Organikoaren izaera guztiz aldatu behar du. Oraingoarekin ikasketak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) eskaintzea erabat ezinezkoa da.

NUPen 2017-19 Euskararen Plan Gidaria izan zen azkena, dakigunez. Plan horren emaitza Plantilla Organikoan horrela islatu bada, plan horren erabateko porrota da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere izaera berriz hausnartu behar du. Itxurak alde batera utzi eta unibertsitate elebiduna bihurtzeko benetako urratsak egin behar ditu eta, ezinbestean, pauso horiek ondo islatu behar ditu Plantilla Organikoan.

BOTA BERTSOA

**JULEN
ZELAIETA
IRIARTE**

BERAKO
BERTSOLARIA



Eskualdean ere badugu zer egin

Doinua: Irun badaukazu zerbait

*Osatua ta anitza
gure eskualdeko gida;
Lezetatik Lezetara
Jauregitik, jauregira,
Errotak, zein museoak,
bisitak ere, neurrira.
Xorroxingo ur jauzian
bada denentzat kabida.
Aritzakunen bueltaxka,
bertzela Aizkolegira.
Mendaurren eta Saioan,
zer nolako ikusmira!
kostarik ez dugu baina
kostata goituz mendira
ze gozatua, Larhuneri,
itsasoari begira. (Ber)*

*Amaiurko gaztelua,
Euskal herriko ondare.
Bidasoa eta Leurtza
Kontxa, ta Hendaia pare.
Herrietako giroa,...
ta bentak ere han daude.
Abentura parkeetan
tirolinak aldeaz alde,...
Osasun krisiak, mugak
itxi dizkigu, halare,
egiten baldin bagara
dugun eskaintzaren jabe;
Nahiz kanpora joan nahi dugun,
hemen ere ongi gaude.
badugulako zer egin
urrutira joan gabe. (Ber)*

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

«Irailean Bake eta Bizikidetza Plana indarrean egotea nahi dugu, baina ekainerrako aurkeztu nahi dugu proposamena. Egia da parte-hartze prozesuaren hasieran Navarra Suma atera zela, eta, logikoki, hori ez da ona. Parte-hartze prozesuan, giza eskubideen arloan lan egiten duten erakundeek erakurpenak bildu ditugu, eta orain plana gauzatu nahian gabilta. Ekintza zehatzak proposatuko ditugu. Planak mezu bat emanen du: desberdinen artean elkarrekin bizi nahi dugula».



MARTIN ZABALZA
NAFARROAKO GOBERNUKO BAKE
ETA ELKARBIZITZA ZUZENDARIA,
ALMANDOZ | BERRIA | 2021.04.04



«Denok ditugu gure arkanbele kantak eta liburuan nireak ageri dira»

MIKEL TABERNA IRAZOKI ALKAIAGAKO IDAZLEA

'Arkanbele kantak' bere azken poema liburua argitaratu du Alkaiagakoak; dioenez, «gai diferenteei buruz idatziriko poemen bilduma bat da» eta memoria pertsonalari eta kolektiboari egin dio keinu

G. PIKABEA | ALKAIAGA

«Bakoitzak bere arkanbele kanta» duela sinetsita dago Mikel Taberna Irazoki (Alkaiaga, 1957) eta berak ere berea duenez, «horietako batzuk» bildu ditu *Arkanbele kantak* bere azken liburuan. Alkaiagakoaren laugarren lana da, bere bigarren poema liburua, eta Susa argitaletxearekin argitaratu berri du. Bidasoaldeko eta «Iruñeko atzerriko» kontu aunitz bildu ditu liburuan, Gerra Zibileko eta 1970eko historiak, isildutako kontuak eta haurtzaroko eta gaztaroko oroitzapenak.... Gai aunitz ditu aipagai, «irakurle bakoitzak berea edo bereak bereizteko, zerbaitengatik eragiten diotenak, zerbaitengatik zerbait sentiarazten diotenak». **Arkanbele kantak zure bigarren poema liburua argitaratu duzu. Aurkeztuko zeniguke?**

Gai diferenteei buruz idatziriko poemen bilduma bat da, aspal-di samar eginak batzuk, sortu berriak bertze zenbait. Lehenago ere errana dut poemak hartzen ditudala pintoreen koadroak balira bezala, eta halaxeak dira hemengoak ere: batzuetan irudi baten erreproduktzioa ageri da, bertze batzuetan gertaera edo istorio bat kontatzen da, eta bertze batzuetan ideia edo pentsamen du batplazaratzeko asmoa dago. **25 urte pasatu dira zure lehenbiziko poema liburua argitaratu zenuenetik...**

Orduko hark ez du oraingoa- rekin ikusteko handirik. Hartan,

bizitzen ari ginen garaia- ren inguruko gogoetak gailentzen ziren, gehienbat. Oraingo honetan, gai edo eremu gehiago izan ditut langai. Bertzalde, egile honek esperientzia zerbait pilatu du handik honat pasatu diren urteen poderioz, eta hori forman ere nahitaez nabaritu- ko da.

Hamaika ataletan banatu duzu liburua, eta poemak ez dira egin berriak... Nola osatu duzu?

Lehenbiziko atala aitzinsolas modura egina da, eta bertan bada narrazio labur bat, bizia deskubritzeaz mintzatzen dena. Azkenekoa, berriaz, gibel solasa da, eta han ere bada bertze narrazio bat, non aipatzen den

«GAI DIFERENTEEI BURUZ IDATZIRIKO POEMEN BILDUMA BAT DA»

heriotzaren nahitaezko etorre- ra. Gainerako bederatzi atale- tan, idazle honen orain arteko bizialdiko kontuak ageri dira: lekuak, pertsonak, gertaerak eta horiekin loturiko ideiak.

Gustura gelditu zara emaitzarekin?

Bai, hagitx kontent gelditu naiz, baina inprimategira sartzeko unea arte hori ibili naiz aldake- tak egiten. Seguru naiz oraintxe berean ere aukera izatera, ha- laxe segituko nukeela: hitz bat kanbiatu hemen, bertze bat kendu han, koma bat sartu...

Bakoitzak bere arkanbele kanta duela diozu liburuan. Hau zurea da?

Bertzeengatik erraten dugu, 'ari da hori berriz bere arkan-

«BIZIPEN BATZUEN HONDARRA HOR NONBAIT GELDITZEN ZAIGU»

bele kantarekin', lehenago adituriko sermoi bera errepi- katzen ari bada eta aspertuak baldin bagaude harekin. Bai- na horretan ere hemen denak igualtsu gabilta: denok ditu- gu geure arkanbele kantak, bakoitzak bere ideiak, handik edo hemendik erakusten di- tugunak uzten digutenean. Eta, noski, liburuan ageri di- renak nire horietako batzuk dira.

Arkanbele, arkaule, arkulo, aka- lamendi... Haurtzaroko oroitzape- nekin lotzen duzu arkanbele mamorroa?

Arkanbeleak haur-gazte den- borara eramaten nau, eta, bereziki, sorlekuko paisaiara, Alkaiagara. Iruñean ez dut ar- kulorik egundaino ikusi. In- tsektu honek arboletan egiten du bere txokoa; haritz zaharren zur usteltzen hasia maite du bizitzeko.

Zuen sinestea ere bazenuten... Eta hortik eskapatzeko formula ere bai...

Arkulo arrak baditu adar mo- duko antena ikusgarriak, eta haurrak ginela sinetsiak geun- den horiekin begiak ateratzen ahal zizkigula. Izutzen ginen hura hurbil ikustean. Horre- gatik, batzuek ikasi zuten zer egin libratzeko: «arkuloa behei- ti, arkuloa beheiti!» oihu egiten zioten, horrela goiti eginen zuelako, arkuloak erraten zaionaren kontrakoa egiten baitu beti.

Zerbait berezia erran nahi izanen du zuretzat. Azalean ere bere irudia ageri da...

Erran dizut nire oroitzean hor dela beti, nire bizipenetan. Eta liburua- ren izenburua hauta- tzearekin, pentsatu genuen ezin egokiagoa zela azalean ere agertzeko, hain ikusgarria baita! Gero, Ignacio Larra si- natzen duen beratar artista- rekin solas egin, eta hura ere konforme. Emaitza bistan da: irudi zoragarri bat, jendearen begiak xurru- patzen dituena.

Ama Pilar, aita Mañuel, etxe-koak... presente dituzu liburuan...

Alde batetik, haienganako nire sentipenak agertu ditut; baina

Narrazio, eleberri eta poema artean

Mendearen ilunabarrean poe- ma liburua izan zen Taberna- ren lehenbiziko lana (1996). Geroztik bertze hiru argitara- tu ditu: *Errege eguneko pan- pina* (2000) eta *Txokolatzeko dinamita* (2001) narrazio li- buruak, eta *Alkasoroko ben- ta* eleberria (2013). Laugarren lana du *Arkanbele kantak*.



ADOLFO LACUNZA

bertzalde, haiek eta haien belaunaldiak bizituriko gertaerak eta haien denboretako gaiak ere atera nahi izan ditut plazara.

Baita sortetxea ere, Alkaigako benta...


Bai, sortetxea ere aipatzen dut, baina denbora batekoa, 1968 jartzen baitut. Telebistatik ez zen garaian, gure etxera mundu bat sartzen zen egunero. Erne egonez gero, gure begiek eta behariek ez zuten «jateko» deusen faltarik izaten: jendeak, koloreak, musikak, istorioak... Hartaz guziaz solas eginez, handik honat gure gizartean izan den aldaketa izugarriaz ohartarazi nahi dut.

Gerra Zibileko kontuak ere ageri dira, edo 70eko urteak... Ez dira gai arrotzak zuretzat... Lehen ere landu dituzu bertze liburuetan...

Gerra Zibilaren ondotik etorri ginen gu, haren ondorioekin markatua gelditu zen gizarte batera. Eta gatazka ikaragarri hura manera batean edo bertzean bizitu zutenek zerbait kontatu ziguten, baina gauza aunitz ez. Kontestari gabeko galdera mordoska bat dut hartaz, eta jakin nahi handia. Eta 70eko urteak zergatik? Bizitzaren etapa guziek markatzen gaituzte arrazoi batengatik edo bertzearengatik. Bizipen eta emozio batzuk galtzen ditugu denborarekin, baina bertze batzuen hondarra hor nonbait gelditzen zaigu, eta ez da harritzekoa poemetan agertzea, nahita edo nahi gabe. Hortik etorri dira liburura, baita ere, urte horiek, nire gazte denborakoak.

Bidasaldeko kontu aunitz ageri dira, baina baita zuk diozun «Iruñeko atzerriko» kontuak ere. Ez dituzu kasualitatez aukeratu...

Bizitoki izan ditut sorlekuko herri tikia eta estudioetarako eta lanerako hautatu nuen herri handia, eta bietan denbora luzea eman dut. Paisaia eta bizimodu diferenteak, batean eta bertzean, jendeak eta tokiak. Biek eragin didate, eta normala da biak poemetarako bazka izatea.



Mikel Taberna *Arkanbele kantak* eskuartean duela. Liburuaren azala Ignacio Larra beratar artistak egin da. UTZITAKOIA

Isildutako kontuak, haurtzaroko eta gaztaroko kontuak, gerrakoak, Kotto, Mikel Zabalza, Uztaritz ijitoa... Gai aunitz dira. Horien artean zerbait nabarmenduko zenuke?

Egiten ahal zen liburua gai baten edo bizpahiruren gainean bakarrik, baina nahiago izan dugu honela izatea: gai multzo bat, erakusketa areto bateko gelak, bisitatu nahi dituenarentzat. Nik ez nuke honako hau edo horrako bertze hori nabarmendu nahiko. Uste dut irakurle bakoitzak berea edo bereak bereiziko dituela, zerbaitengatik eragiten diotenak, zerbait sentiarazten diotenak. Memoria pertsonalaz eta kolektiboaz aritu zinen aurkezpenean... Poemetan lehenbiziko pertsonan aritzen naizenean ere, ez

naiz beti edo bakarrik neure buruaz ari. Alde batetik, nire belaunaldiko jendeaz ere ari naiz; bertzetik, ez dut neure burua bakarrik enfokatzan, ingurura begiratzen dut ia beti, eta hura ere ekartzen saiatzen naiz. Edo nire sortetxea orain dela 50 urte nolakoa zen kontatzen badut, denbora hartan gure etxea bezalakoak ziren etxe guziez ari naiz, denda-ostatu-biltoki zirenez.

Bertso munduarekin duzun lotura agerian gelditu da errimekin...

Bai. Ez naiz saiatu poemak neurri zehatzetan sartzen, baina errimak etorri zaizkit, berez bezala, batean baino gehiagotan, testuari musikalitate bat emateko, edo enfasi egiteko. Batzuetan poemak

erdi kantatu ere egiten nituen neure baitan, sortzen ari nintzen bitartean.

Taberna Irazoki, ez amurri ta ez izoki. Horrek atentzioa eman digu...

Koplari-ditxolari zirikatzailek ez zen falta denbora batean, eta denentzat izaten zuten zerbait. Irazokitarrak ez gara gutti zona honetan, eta Bidasoari begira hainbertze ordu ematen baikenuen, koplak horixe tokatu zitzaigun.

Zure laugarren liburua da. Gehiago etorriko dira?

Ezin jakin. Ikasten segitzeko jakin-mina eta dakidanaz idazteko ilusioa galtzen ez badut, eta espero dut ezetz, zerbait etorriko da berriz ere noizbait. Zerbait gaineratuko zenuke?

Ez zait bertzerik deus gogoratzten. Ez bada eskerrak ematea TTIPI-TTAPARI, bere leihotik agertzeko aukera emateagatik, eta jendeari gonbita egitea liburura sartzeko, eta dastatzeko bertako poemak, ea gustukoren bat harrapatzen duten.

**«INGURURA
BEGIRATU ETA HURA
ERE EKARTZEN
SAIATU NAIZ»**

**«ILUSIOA GALTZEN
EZ BADUT ZERBAIT
ETORRIKO DA
BERRIZ NOZBAIT»**

Usaimenik gabe bizi edo bizitzen ikasi

Azken aldian askok galdu duten zentzumena da usaimena. Koronabirusak kendutakoa ez da arrotza Naroa Fernandez eta Bixente Iriarterentzat. Fernandezek inoiz ez du usainik antzeman eta Iriartek usaimena orain hamar urte galdu zuen

TTIPI-TTAPA

Mundua ikusi, aditu, ukitu eta dasta dezakete, baina ezin dute usaindu. Usaimenik gabeko eta, beraz, usainik gabeko munduan bizi dira Naroa Fernandez Zabaleta (Leitza, 1993) eta Bixente Iriarte Agirre (Narbarte, 1963). Usaimenak iradokitzen dizkigun irudiak, sentsazioak, oroitzapenak... arrotzak dira Fernandezentzat eta orain hamaika urte inguru itzali ziren Iriarterentzat.

Sortzetiko anosmia

Usaimena «ezezaguna» den zentzumena da Naroa Fernandezentzat. Sortzetiko anosmia edo usaimen falta du, Munduko Osasun Erakundearen arabera munduko biztanleriaren %5ak duen eta «jatorri zehatzik ez» duen gaixotasuna.

Zenbait kasutan genetika-rekin lotu izan duten gaixotasuna izan arren, bere kasuan horretarako «arrazoirik ez» dago: «egia da nire aitona ez zuela dastamenik eta dastamen-papilak usaimenarekin lotura dutela, baina hortik harago, familian ez dut usaimen arazoak dituen beste inor...».

Usaimen gabezia aspaldi ohartu zen Fernandez: «txikitari, gelakideek ikasgelan usain bat edo beste zegoela esaten zuten eta nik ez nuen sumatzen. Askotan galdetzen zidaten ea ez nuen usaintzen eta niretzat ezerk ez zuen usainik».

Denbora luze joan zen ohartu zenetik medikuarene-



Naroa Fernandezek sortzetiko anosmia du.

ra joan arte eta diagnostikoa ere ez zuen berehala jaso: «hasieran esprai batzuk eman zizkidaten eta segituan pasatuko zitzaidala esan zidaten...». Familiako askok begetazioak

izanak zituztenez, horrek oztopatzen ote zion ere begiratu ondotik, ezetz ikusi zuten: «orduan anosmia nuela baieztatu zuten eta ordura arte bezala usaimenik gabe jarrai-

tuko nuela esan zidaten». Jakin zuen momentuan Fernandez ez zen gehiegi larritu, horretara ohituta baitzegoen: «beste ezer ezagutzen ez nuen ez dut gogoan garrantzi handirik eman nionik...».

Oztoporik ez

Inoiz izan ez duenak ez daki zer den edukitzea, eta beraz, ez du usaimena faltan sumatzen. Fernandez usaimenik gabe bizitzera ohituta dago eta «usaimena duen batek bezalatsuko» egunerokoa du: «ez dut oztopo handirik igartzen».

Aldereri bat aipatzekotan, «gehiagotan garbitzeko beharra» izaten duela esan luke: «askotan zerbaiten usaina ona edo txarra den jakiteko aldamenekoari galdetu behar izaten diot eta nire usaina nolakoa den ez dakidanez gehiagotan garbitzeko beharra sentitzen dut, arropak ere segituan botatzen ditut garbigailura...». Sukaldean ere prestatzen ari den hori gehiagotan begiratu behar izaten du: «zerbait erretzen hasten bada ezin dut usaindu eta...». Horrez gain, «gasa erabiltzea ez zait gustatzen, ez naiz oso eroso sentitzen».

Usaimenik gabe bizitzeak ohitura jakin batzuk garatzea eragin dio Fernandezi: «maiz dutxatzen naiz, kozinatzez bukatu eta segituan sua itzaltzen dut...». Gaur «pentsatu gabe» egiten dituen arren, behin edo beste «ezustekoren bat» izana da: «egun batean, labea piztu nuen eta ez nintzen konturatu barruan zartagin bat zegoela. Hortaz, labea piztu eta berotu bitartean bigarren solairura igo nintzen. Hogei minuturen buruan behera jaitsi nintzenerako sukalde guztia ke beltzez estalia zegoen. Nonbait, zartagiari kirtena erre zitzaion eta kea ikusi nuen arte ez nintzen ezertaz jabetu...».

Usain txarrak bezala, onak ere sumatu ezin dituen arren, zabal ditzake eta zabaltzen

**«BERTZEK EZ
DITUZTEN OHITURA
BATZUK DITUT»**

NAROJA FERNANDEZ, LEITZARRA

**«ONDORIO
ARINENA IZANIK
KONTENT NAGO»**

BIXENTE IRIARTE, NARBARTARRA

ditu Fernandezek: «usain atsegina izateko koloniak erabiltzen ditut». Aukeraketa, ordea, ez da bere esku izaten eta «ahizpak erabiltzen dituenak edo berak aholkatzen dizkidanak ematen ditut, badakit hoberenak aholkatuko dizkidala eta...».

Dastatuz gozatu

Usaimena falta denean dastamenean eragina duela iruditzen zaigu maiz. Leitzararentzat, ordea, «katarroa izan zein ez jakiek zapore bera» dute. Gehiago ere bada: «dastamena badudala esanen nuke janariarekin asko gozatzen dudalako eta janariren bat txarra badago ahoan sartu orduko antzematen dudalako».

Edozein modutan, «gatzaren beharra» izaten du Fernandezek: «diotenez, gatzak zaporeak indartzen ditu...». Zapore falta «zenbait infusiotan» antzeman izan du, baina hori «zaporea baino gehiago usaina izanen dutelako izan daitekeela» uste du: «hala ere, ez dakit gainerakoek zenbaterainoko zaporea hartzen dieten jakiei eta zaila egiten zait baloratzea...».

Ahoak eta sudurrak, eta beraz, dastamenak eta usaimenak, lotura dutela jakina den arren, bere kasuan, usaimen eza ez da konexio hori kalte-tua izatearen ondorio: «usaimena bidaltzen duten nerbio sentitiboak ez diote garunari informazioa bidaltzen edo asaldaturik iristen da eta nire



Bixente Iriartek orain dela hamaika urte inguru izandako istripuaren ondorioz galdu zuen usaimena. GURUTZE PIKABEA

buruak ezin ditu usainak interpretatu».

Dugunarekin bizitzen ikasi

«Egunerokoan bat-batean etortzen diren usain gozoak, janariak, lurrinak, mendiko elementuak, itsasoa, hainbestetan aditu dudak eta irudikatzea oso zail egiten zaidan usain pertsonal hori...» usaindu nahiko lituzkeen arren, Fernandezek anosmia ez luke beste zentzumen baten gabeziarekin aldatuko: «oso zail, ezinezkoa, zait zer den irudikatzea, askotan usain bati erreferentzia egiteko beste usain bat erabiltzen dute eta... Zer den ez jakinik ere nahiago dut usaimenik ez eta dastamena eduki janariaz

gozatzeko». Gainera, «jendeak askotan ez usaintzea hobea dela esaten dit eta haiek deseroso daudenean ni ezer gertatuko ez balitz bezala egoten naiz...».

Fernandezek argi du norberaren itxura eta izatea, hein batean bederen, ez dela moldagarria eta horren aurrean «norberak duenarekin bizitzen ikastea eta egoera bakoitzean alde positiboenei erreparatzea» dela onena.

Istripuak utzitako zapore garratza

Fernandezen lezioa bere egina du Bixente Iriarte Agirrek, txarretetik onena ateratzen erakutsi baitzion 2010ean izandako lan-istripuak: «gi-

beleko aldera erori eta burua hautsi nuen, hasieran ez zekiten onik aterako nintzen ere, eta Zainketa Intentsiboan Unitatean egon behar izan nuen bolada batez». Orduko oroitzapenik ez duen arren, ernatu zenean, gertatutakoaren ondorioak sumatzen hasi zen, istripuaren arrastoak ziren ere jakin gabe: «ospitalaleko janaria txarra zela eta ez zuela zaporerik uste nuen». Gerora jabetu zen dastamena galtzearen ondorioa zela: «etxeko janariak ere zaporerik ez zuela ikusi nuenean ondorioa izanen zela ohartu nintzen».

Dastamena «hilabete bat baino lehen» berreskuratu zuen arren, istripuaz geroztik usaimenik gabe dago Iriarte: «nerbio sisteman puntu bat gelditu zait, baina kontent egoteko moduan naiz, izan zitekeen ondorio arinena dela erran baitzidaten. Ezindu geldi nintzekeen...».

Bizimodu aldaketa

Anosmiak «bizitza aldatu» dio narbartearrari. Ordutik «bel-durrez eta erne» bizi da eta eman dizkieten aholkuak zorrotz betetzen ditu: «medikuek hasiera-hasieratik janari edo edariak probatze-

«IKUSMENA ETA DASTAMENA AKTIBATUAGO DUT»

BIXENTE IRIARTE, NARBARTEARRA

«EZUSTEKOREN BAT IZANA NAIZ SUKALDEAN»

NAROA FERNANDEZ, LEITZARRA

Usaimen gaixotasunak

Usaimen gaixotasun edo anomalia nagusiak anosmia, hiposmia eta disosmia izan ohi dira. Anosmia usaimenik ez izatea da eta batzuetan aldi baterakoa eta bestetan betirakoa izan ohi da. Infekzioek, zahartzeak, sendagai batzuk erabiltzeak, traumatismoak... eragin dezake. Hiposmia usaimen sentikortasuna murriztua izateari deritzo eta hainbat gaixotasun eta lesioren ondorio izan daiteke; arnasbideetako infekzioek eta garezurreko lesioek eragiten dute. Azkenik, disosmia usaimen distortsioa da, usain neutralak txartzat hartzea eragin dezakeena.

«FALTA IZAN ARTE EZ GARA DUGUNAZ OHARTZEN»

BIXENTE IRIARTE, NARBARTARRA

«NORBERAK DUENAREKIN BIZI BEHAR DU»

NAROA FERNANDEZ, LEITZARRA

ko erraten didatenean kontuz ibili behar nuela jakinarazi zidaten eta hala egiten dut. Lagunak edaten hasten diren arte ez dut edaten, brometan lixiba edo bertze zerbaitek paratuko balidate edaten hasi-ko nintzatekeelako».


Kontuz ibiltzeaz gainera, geroztik, lanean egokitzeapenen bat egin izan du. Zabor-tegi batean aritu zen denboran, «sartzen nintzen tokian gasik bazegoen edo ez abisatzeko tresnatxo bat» eman zion enpresak eta hori erabiltzen zuen: «orain, berriz, fabrika batean ari naiz eta hor ez dut arriskurik».

Alor gehiagotan ere sumatu du eragina eta bereziki «toki itxietan eta disolbatzailea edo bertzelako osagai kimikoak erabili behar ditudanean erre ibili behar izaten dut. Norbait etorri eta jakinarazten didan arte edo begiak negar malkotan hasi arte ez naiz konturatzeko».

Halako egoeretan, zentzumenak indartu zaizkionik ez du uste, baina zenbait egoeretan gehiago baliatzen ditu: «lehen usaimenarekin antzematen nuena ikusmenarekin eta dastamenarekin egiten dut orain, horiek aktibatzen ditut».

Usaimena eta apetitua

Hasiera «zaila» izan zen eta «gaizki» pasatu zuen arren, usaimenik gabe bizitzera ohi-tu da Iriarte. Dena den, argi dio usaimen falta sumatzen duela: «urdaiazpikoa frijitzen ari denean izaten den usaina,



«Usaina berria denean sumatzen dut baina ohitu ahala galdu egiten dut»

IRATI ARRIETA AGIRRE SUNBILLAKO GAZTEA

«Usaimenarekin bueltaka» dabil azken sei hilabeteetan Irati Arrieta Agirre (Sunbilla, 1993).

Itxialdia eta ondorioak

Urri bukaera «sukarra eta ondoeza» sentituta jo zuen medikuaren eta «egia erran ez nuen koronabirusa izatea espero...». Usteak ustel, emaitza positiboa izan zen. Momentu hartan, lan egiten duen eskolan, jantokiko langileen artean, agerraldi bat zegoen arren, ez daki han kutsatu zen: «ez dakit nik hortik hartu nuen edo nik neuk kutsatu nituen haiek; ez dakit transmisioa nola izan zen».

«DASTAMENA BADUT, ZAPOREA LEHEN BEZALA EZ HARTU ARREN»

Kontuak kontu, berak amari pasatu zion: «positibo eman nuenerako ama ere kutsatua nuen eta positiboa zen» eta berarekin pasatu zuen itxialdia: «biok elkarrekin eta aitak bere gelan pasatu genituen egun horiek eta egia erran ez zen zaila izan, hasierako bi egun horietan sukarrarekin nengoenez ez bainuen etxetik ateratzeko gogorik ere». Okerrena azkeneko bi egunak izan ziren berarentzat, «ateratzeko eguna ailegatu zenean, usaimenik gabe nengoenez, bi egun gehiago luzatu zidaten itxialdi hori...».

Medikuaren eta jo zuenean Arrieta ez zekien usaimenik

«SEI HILABETE PASATU DIRA ETA USAIMENA EZ ZAIT GUZTIZ BUELTATU»

gabe zegoenik: «ez naiz inoiz usaimenari interes handiegirik paratzen dion pertsona izan eta orduan ere ez nintzen ohartu. Etxera joan eta gela ematen hasi nintzenean ohartu nintzen».

Usaimenik ezak dastamenean eragin dion arren, hori ez du galdu: «usaimen falta horregatik zapoaren %100 ez dut hartzen akaso, baina horretan ez dut eragin aunitzik izan». Berak ez bezala, amak falta sumatu zuen: «egun batean ez ziola jakiei zaporerik hartzen erran zidan, baina segituan bueltatu zitzaion».

Bertzelakoa da bere kasua: «oraindik usaimenarekin borrokan ari naiz, batzuetan usaintzen dut, bertze batzuetan ez... Hala ere, ez dudanean ere ez naiz jabetzen. Norbaitek 'zer usain txarra dagoen' aipatzen badu orduan ohartzen naiz ez dudala...».

Ez da bere kasua bakarrik: «nire lagun batek ere usaimena galdu zuen eta oraindik ez du errekuatu».

Usainak usaintzen

«Sentsazio arraroa» eragin dio usaimen faltak Arrieta: «bolada batean usain txar bat usaintzen nuen etengabe, edozer usainduta ere usain hori bera zuen... ez zen katarroak eragindako usain falta bat bezalakoa».

Pixkanaka, hasi da usainak antzematen eta horrek «noizbait bueltatuko delako itxaropena» eragiten dio. Adibidez, «usain fuerteak direnean, kolonia aunitz bota duen norbait hurbiltzen denean, sumatzen ditut, usain berria delako edo... baina ohitu ahala ez dut usaintzen».

gazta on batena... jatekoaren usain hori». Eta usaimenik ezak apetituan ere eragin dio: «jaten dut, baina ez da gauza bera. Janari usainarekin gosea usaimenetik sortzen da eta

orain horrelakorik ez dut, horretan aldaketa antzeman dut». Kontrakorik ere gertatu zaio, eta «usainak ikatuta» utzia zuen whiskia, erraterako, «orain gustura edaten dut».

Berak falta duena ez du inork begi hutsez ikusten baina bizimoduaren eragin zuzena izan du berarentzat: «ez gara dugunaz ohartzen falta dugun arte».

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Merkealdiak ala Merkealdia?

*Merkealdiak ez da zuzena 'rebajas' (es) edo 'soldes' (fr) adierazteko; izan ere, horrako merkealdi hori singularrean aipatzekoa da aldiaren behin egiten denean, nahiz eta hainbat egun iraun. Beraz, merkealdia da zuzena.

-*Merkealdietan erosi dut > Merkealdian erosi dut.

Nolanahi ere, merkealdiak erabil liteke honelako testuinguruetan:

-Azken urte hauetako merkealdiak ez dira errentagarriak izan dendarientzat.

Zein da zuzena?

*Medikura joan da?

Ez da zuzena *medikura joatea esapidea. Izan ere, medikua ez da leku bat, pertsona bat baizik. Hauek dira egitura zuzenak:

- Medikuarengana joan.
- Mediku(e)tara joan.
- Medikuarenera joan.
- Medikuaren kontsultara joan.
- Medikutan izan naiz.

Bitxikeriak

Herri hau sortzen segi dezagun...



Nola erran?

MAHUKA ≠ MAUKA

Esanahi ezberdina dute.

Mahuka beso osoa edo besoaren goiko aldea estaltzen duen jantzi-zatia da.

- Mahuka luzeak.
- Mahukak ukondoraino bildurik.
- Mahuka-hutsik ibiltzen zen.

Mauka, berriz, erraz lortzen den gauza onuragarria da; aukera aparta, pagotxa.

-Hau bai dela mauka, honelako fortuna munduan nork dauka?

euskaraz

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

OHARRA Asmatu al zenuen 779. TTIPI-TTAPAKO hieroglifikoa?

Ortziralea da ikasleen asteko egunik gustukoena! Baita bertze aunitzena ere!



Manttaleko korrikalariak eta Oier Ariznabarreta elkarrekin, erronka burutu ondotik. UTZITAKOIA

Manttale gailendu zaio Ariznabarretari Mendi Maratoi Erdian

21 taldekidek kilometro bateko errelebotan egin zuten proba, Durangoko korrikalariak baino minutu eta erdi lehenago

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 11ko Berako Mendi Maratoi Erdian egindako Manttale eta Oier Ariznabarretaren arteko erronka taldeak irabazi zuen. Manttalek eta proba honetako azken sei edizioak irabaziak dituen Ariznabarretak (2014koan marka eginez, gainera) erronka bat prestatua zuten. Durangoko korrikalariak maratoi erdiaren 21 kilometroak berak bakarrik egin behar izan zituen, eta aldi berean Manttale taldeko 21

korrikalariak erreleboka bakoi-tzak kilometro bana egin zituzten.

Manttaleko 21 lasterkariak maratoi erdia ordubete, 45 minutu eta 46 segundotan bukatu zuten eta Oier Ariznabarretak ordubete, 47 minutu 11 segundotan. Minutu eta erdi eskaseko alde, beraz. Manttale hasieratik ibili zen buruan eguraldi euritsua, hotza, haizetsua eta Larunen (ibilbidearen punturik altuean) elurra eta guzti izan zuen

goiz hartan. Ariznabarretak berak helmugan azaldu zuenez, Larungo igoeran hotz handia pasatu zuen, nahiz eta erronkarekin kontent gelditu zen. Manttalen taldea harrobiko gazte eta beteranoez osatuta zegoen, emakume zein gizonekin.

Manttalekoak banan-banan

Manttalen izenean erreleboka ibili diren lasterkariak hauek izan ziren: Gwendal Larqué (1. kilometroa), Beñat Albisu (2. km), Juan Luis Irazoki (3. km), Joseba Lasarte (4. km), Jokin Irazoki (5. km), Markel Etxebeste (6. km), Oihan Pikabea (7. km), Juanma Molinero (8. km), Juanra Pikabea (9. km), Ane Eltzaurdia (10. km), Josema Huizi (11. km), Ibai Berregi (12. km), Julen Baleztena (13. km), Asier Apezetxea (14. km), Aritz Garcia (15. km), Ainhoa Etxegarai (16. km), Txus Unson (17. km),

Mattin Garbisu (18. km), Adrian Gajate (19. km), Amaiur Goñi (20. km) eta Patxi Pikabea (21. km).

Oier Ariznabarretak Berako Mendi Maratoi Erdiaren errekorra du (1:37:30) eta lasterketaren azken sei edizioak irabazi ditu. Azken urteetan lortu dituen denborak hauek dira: (1.39.38, 2019), (1.40.55, 2018), (1.44.05, 2017), (1.40.16, 2016), (1.39.21, 2015), (1.37.30, 2014), (1.43.15, 2013) eta (1.41.23, 2011).

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eskerrak eman nahi dizkie ibilbidean lagundu zuten kolaboratzaile guztiei eta Martiko enpresari, proba babesteagatik, «eta bereziki Oierri eskerrak eman nahi dizkio-gu erronka onartzeagatik eta betidanik lasterketa, Manttale eta Berarekiko erakutsi duen maitasunarengatik». Egun berean, erronka bukatzean, datorren urtean Berako Mendi Maratoi Erdian parte hartuko duela iragarri zuen Ariznabarretak, izan ere 2022an lasterketa jokatu ahal izatea espero du Manttalen pandemia dela eta bi urteko geldialdiaren ondotik.

92 korrikalari maratoi erdi birtualean

Bertzalde, hamabortz egune-tan martxan egon den maratoi erdi birtualean, 92 kirolari hartu zuten parte eta lasterketa honetako eta Gazte Trailleko ibilbideak 112 aldiz osatu zituzten.

INGENIARITZA ELEKTRIKOA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450

BOLETIN INDUSTRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Apirilaren 23an Liburuaren eguna

LIBURU-DENDA
PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA
MARGO-DENDA

Apirilaren 19tik 24ra
%10eko deskontua liburuetan

Liburuen merkatu ttikia
2, 3 eta 6 €tan

KANTONBERRI, 4 BERA
T. 948 630 626

44 urte
zuen zerbitzura

Felix Errandonearen omenez aurten bai egingen dute proba

Apirilren 25ean antolatu du Gure Txokoak junior mailako txirrindulariei zuzendutako lasterketaren 43. edizioa

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, junior mailako txirrindulariei zuzendutako Felix Errandonea Memorialaren 43. edizioa antolatu du Gure Txokoak elkartek udalaren laguntzarekin apirilaren 25ean. Igandean 11:00etan abiatuko dira txirrindulariak Iamotenetik eta 70 kilometroko ibilbidea osatuko dute.

Horretarako, bi itzuli emanen dizkiote honako zirkuitu honi: Bera, Zalain, trenbidea, Geltoki, Bidasoa karrika, Etxalar-ko Benta (errepide zaharretik),

Iruribieta, Bera, Zalain, trenbidea, Geltoki, Bidasoa, Eztegarra, Altzate, Lizuniagako errepidea, Garaitarreta, Alzate, Zalain, trenbidea, Geltoki, Eztegarra, Altzate, Garaitarreta, Alzate, Zalain, trenbidea, Geltoki eta Eztegarako pasealekuan helmuga.

Urtero bezala, proba gauzatu ahal izateko boluntarioak behar ditu Gure Txokoak, Animatezen denak guretxokoaelkarrea@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar du edo idatzi mezu bat 626 30 94 38 telefono zenbakira.

Zapla! bertso saioa larunbatean izanen da kultur etxean

Zapla! Nafarroako bertso plaza martxan ekimenaren baitan *Bidasoan gora* bertso saioa egingen dute apirilaren 24an, 18:30ean kultur etxean. Alazne Untxalo, Ander Fuentes Iturri, Ekhiñe Zapiain eta Xabier Terreros ariko dira. Gai-jartzaile: Maddi Ane Txoperena.

'Sugarren mende' eta 'Bidasoan gora' aurkeztuko dituzte

Sugarren mende liburuaren aurkezpena eta solasaldi ilustratua egingen dute apirilaren 22an, ortzegunean, 18:00etan kultur etxean. Hilaren 30ean, ortziralean 19:00etan leku berean, *Bidasoan gora* liburuaren aurkeztuko du Eneko Aizpuruak.



UTIZTAKOA

Ilusioz margotutakoa zikinduta

Martxoaren 27an Ricardo Baroja eskola kanpotik koloreztatzen aritu ziren gurasoak, langileak eta irakasleak auzolanean. Ez zuen, ordea, luze iraun, «ilusio handiz margoturiko atakak» beltzez margotuak agertu baitziren apirilaren 2an: «Tristeza da auzolanean egindako lana horrela zapuztu dutela ikustea» diote eskolatik.



TTIPI-TTAPA

Kultur Etxea inauguratu zela 30 urte

Kultur Etxea inauguratu zela 30 urte bete ziren apirilaren 14an. Garai hartako TTIPI-TTAPAK bildu zuenez, Manuel Iriarte alkate zela estreinatu zen eraikina eta Nafarroako Gobernuako presidente zen Gabriel Urralburu izan zen bisitan. Gure Txokoako dantzariak, abesbatzak eta musika ikasleek egin zuten ekitaldia.

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralea:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Eramateko janaria
astelehenetik ortziralea
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

EDARI AK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

I. Señora sariketako finala maiatzaren 8an egingen dute

Euskal Herri osoko hamalau emakume bertsolari parte hartzen ari dira eta Arranon izanen da azken saioa

AITOR AROTZENA

Apirilaren 17an hasi zen I. Señora sariketa. Hamalau emakume bertsolarik hartuko dute parte Aramaion eta Mutrikun egingen diren kanporaketetan eta maiatzaren 8an Lesakan egingen dute finala.

Lehenengo kanporaketa Aramaioko kultur etxean jokatzea zen apirilaren 17an. Bertan kantuan aritu ziren Haizea Arana, Oihane Perea, Itxaso Piquer, Maddi Aiestaran, Miren Artetxe eta Alazne Untxalo iturendarra, Ainhoa Urienen gidaritzapean.

Bigarren kanporaketa Mutrikuko Kalbarioko ermitan egingen dute apirilaren 24an. Oihana Bartra, Saioa Alkaiza, Ainhoa Agirreazaldegia, Oihana Arana, Paula Amilburu eta Aissa Intxausti ariko dira kantari Maite Berriozabalen gaiei erantzunez.

Azkenik, finala maiatzaren 8an ospatuko da Arrano ostatuko terrazan. Aramaio eta Mutrikuko saioetatik bina bertsolari sailkatuko dira finalera eta bertan kantuan arituko diren bertze bi bertsolariak finalera iruditu.



Kartelean erabilitako irudia.

lariak finalera zuzenean sailkatuta daude dagoeneko seño- ra izateagatik, baina nor diren ez dugu jakinen eguna ailegatz- zen den arte. Ainhoa Larretxea izanen da gai-emaile.

Saioak 17:00etan hasiko dira eta sarrerak saioa egingen den herrian bertan edo *bertsolar- rarak.eus* webgunean erosi ahalko dira.

Ekimen hau zenbait emakume bertsolarik eta bertso- zale feministek antolatu dute tokiko herri eragile eta mugimendu feministako kideekin elkarlanean. Emakume bertsolariek plazan duten pre- sentzia areagotu nahi da.

Oinarrizko argazkilaritza eta edizio ikastaroa antolatu du Beti Gaztek

Beti Gazte elkarteak oinarriz- ko argazkilaritza eta edizio ikastaroa antolatu du, udala- ren laguntzaz. Apirilaren 24an (oinarrizkoa), maiatzaren 1ean (erretratoa) eta maiatzaren 8an (paisaia) emanen dute Lander Arbinak eta Irantzu Pastorrek elkartearen egoitzan,

larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Apuntatzeko azken eguna apirilaren 23a izanen da (617 22 24 49 zenbakira edo *kultura@betigazte.net* helbi- dera jo daiteke). Bazkideek 5 euro klaseko edo 10 euro ikas- taroak ordainduko behar dute eta bertzeek 10 edo 20 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Parkinsonaren Egunean Bianditzera

Parkinsonaren Mundu Eguna izan zen apirilaren 11 eta egun horretan plazatik Bianditzera ibilaldia egin zuen Antto Fagoagak. Herriko mendi altuenera (840 metro) igotzea aski ez eta azken 2,3 kilometroak bizkarrean 20 kiloko lur karga zuela egin zituen Fagoagak eta pagoa landatu zuen.

Kultur arloan asteburu mugitua dator

Nafarroako Orkestra Sinfoni- koak kontzertua eskainiko du apirilaren 23an, ortziralean 19:00etan Harriondoa Kultur Etxean. Sarrerak sei eurotan salgai daude Telletxean eta Xagun. Larunbatean, 10:00eta- tik 14:30era merkatu ttikia egingen dute. Igandean, berri- z, herriko txistulari taldeak em- naldia eskainiko du 12.30ean plazan eta *Non dago Mikel?* dokumentala ikusgai izanen da 19:00etan Harriondoa. Azken saio honetarako sarre- ra hiru euro ordaindu behar- ko da.

Salvador Yanciren omenez martxa maiatzaren 9an

Salvador Yanci zenaren ome- nez martxa zikloturista ez lehiakorra egingen dute zaz- pigarren urtez, maiatzaren 9an, Beti Gazte elkarteak udalaren laguntzarekin an- tolatuta. Txirindulariak igan- dean 08:30ean abiatuko dira plazatik, neutralizatuta joanen dira Legasako bidegurutze- raino (29. km) eta kontrola 14:09an itxiko da. 130 kmko ibilbidea izanen dute. Izen- ematea bakar-bakarrik *www. kirolprobak.com* webgunea- ren bitartez egin daiteke, maiatzaren 7a baino lehen.

Hemen erabili
Denok Bat
kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

744 484 361
ttipi-ttapa

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com



Apirilaren 10ean Lesakan egin zuten hitzaldia.

Maiatzaren 1ean mobilizatzeko deia egin dute

M1, Klase Kontzientzia Hedatu dinamika antolatuta hitzaldia izanen da larunbatean eta 30ean murala pintatuko dute

TTIPI-TTAPA | BORTZIRIAK

Maiatzaren 1a heldu den honetan, langile klasearen kontzientzia hedatzeko hitzorduekin segitzen du M1, Klase Kontzientzia Hedatu dinamika. Guztira hiru hitzaldi antolatu dituzte eta horietan lehenbizikoa Lesakan egin zuten apirilaren 10ean. Bertzeak bertze, kapitalismoak nola funtzionatzen duen ulertzeko oinarri batzuk azaldu zituzten. M1, Klase Kontzientzia Hedatu lantaldearen arabera, «denok batera lan egitearen» garrantziaz aritu ziren, «oinarrian gizartearen funtzionamendua edo kapitalismoa dago, eta hau aldatuz bakarrik hasiko gara egungo arazo guztiak konponzen. Guztion batasunean dugu indarra, eta ez modu zatituan bakoitzak bere aldetik eginez».

Bigarren saioa apirilaren 18an Etxalarren egitekoa zuten, langile mugimenduaren historia eta gaur egungo egoera aztertze. Dinamikako en hitzetan, «langileria antolakuntza hutsala da gaur egun, eta hori bultzatzea tokatzen da».

Hirugarren eta azken hitzaldia larunbat honetan, apirila-

ren 24an, egingen dute, 11:00etan Berako Beralandetan. Bi esperientzia aurkeztuko dituzte: Batetik, Gogor Langileon Defentsa Antolatua, Larraun eta Sakanan martxan jarri duten esperientziak ariko dira. «Oraingoz Elikagai Bankua jarri dute martxan, kalitatezko elikadura izateko zailtasunak dituzten langileek horretarako aukera izan dezaten», baina hori «hasiera bertzerik ez dela» diote, «izenak dioen bezala, langileon defentsa antolatua bultzatzeko eragile bat» baita. Bertzetik, LAS Langile Autodefentsa Sareko kideak gonbidatu dituzte, lanean sortzen diren bidegabekeriei kontra aritzen den Iruñea aldeko taldekoak: «orokorrean sindikatuak ailegatzen ez diren esparruetan esku hartu izan du».

Horrez gain, «apirilaren 30ean mural bat pintatzeko» asmoa dute, «klase kontzientzia hedatzeko beharra eta herritarron artean dagoen klase gorrotoa antolatzearen garrantzia gure karriketan presente gelditzeko». Eta bukatzeko, maiatzaren 1era begira jarri dira: «mobilizatzeko deia luzatuko dugu».

Sarek presoan alde tontorretara igotzeko deia egin du

Maiatzaren 8an Euskal Herriko 650 tontorretara igotzeko erronka luzatu du eta aitzinetik izena emateko eskatu du

TTIPI-TTAPA

Izan Bidea dinamika aitzine- ra segitzen du eta euskal preso eta iheslarien alde, Euskal Herriko 650 mendi tontorretara igotzeko erronka luzatu du Sare plataformak. Hasiera batean, urrian egitekoa zena, azkenean maiatzaren 8an izanen da, eguraldi txarra tarteko, gibelatu behar izan baitzuen Sarek.

Eskualdean ere hainbat tontor igotzeko aukera izanen da eta parte hartu nahi dutenek 650tontor.sare.eusen eman beharko dute izena. Dagoeneko zabalik dago izen-ematea.

Bertzeak bertze, eskualdean tontor hauek igotzeko aukera izanen da: **Baztanen** Abartan, Alba, Alkaxuri, Alkurruntz, Antsestegi, Auza, Burga, Gorramakil, Legate, Unboto, Okoro, Saioa... **Bortzirietan** Ekaitza, Mendaun, Izu, Biantz, Kopako harria, Unanu, Larhun, Azkua... **Malerrekan eta Bertizaranan** Aizkolegi, Oteixon, Loitzate, Txaruta, Soratxipi...; **Urdazubi-Zugarra** murdin Atxuri...; **Leitzaldean eta Urumealdean** Eguzkiko muinoa, Guratz, Ulizar, Mandoegi...

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Altxata elkartearen batzordeko kideak. Ezkerretik eskuinera: Irune Elizagoien, Maite Goienetxe, Saioa Otazo eta Lorea Arangoa

30 urte bete ditu Etxalarko Altxata elkarteak

1991. urtean sortu zen kultur eta kirol elkarte. Geroztik, herria bizirik mantendu duten hainbat ekitaldi antolatu dituzte, betiere euskararen alde apustu eginez. Elkartearen batzordeko kideak elkarriketatu ditu TTIPI-TTAPAK

RUBEN OSKARIZ

Lau lagunek osatzen dute momentu honetan Altxata elkartearen batzordea; Lorea Arangoak, Irune Elizagoienek, Saioa Otazok eta Maite Goienetxek. Lehendakari, lehendakariorde, diruzain eta idazkari karguak papereko kontuak bertzerik ez direla diote, «jardueren lanak denon artean egiten baititugu». Juntara sartzera gonbidatu dituzte animatzen diren guztiak. 150 bazkide inguru ditu Altxatak, goiti doan zifra da hau eta herritarren babesa «ezinbertzekoa» dela kontatu digute aitzinera egiteko. Herritarrei dei egin dieite haiekin harremanetan jartzera bazkide izateko, altxata@gmail.com helbidera idatziz.

30 urte herria mugiarazten

1976. urtean hasi zuen Altxatak bere bide luzea, herrian euskarazko ikasketak eskaintzeko beharra ikusi zuten eta Bide Ona ikastola sortu zuten. 1991n, aldiz, behar horiek aldatzen joan ziren, ikastola desegin zuten eta Altxata Kultur Elkarte sortzea erabaki zuten. Elkarte «euskara eta kultura bultzatzeko eta euskaraz bizitzeko egin zen lehenbiziko bultzada horren segida izan da, eta 30 urte berandua go helburua betetzen saiatzen segitzen dugu». Ibilbide honetan «juntakide eta laguntzaile aunitz» izan ditu elkarteak, eta denen lan eta ideiei esker, gaur egun dauden ekintza guztiak izatea lortu dute.

Honez gain, «auzolan haundibaten moduko zerbait» bihurtu dira antolatzen dituzten ekitaldi guztiak. Beraz, gaur egun, Etxalarko urteko agendan ohikoak dira haien ekimen guztiak.

Gasna feria eta bertze hainbertze

Gasna feria ekaineko lehenbiziko asteburuan egiten duten besta da. Bertan, hainbat jarduera antolatzen dituzte: gasna lehiaketa, erakusketak, artisauak, bazkaria, musika...

«BOLUNTARIOEN PARTE-HARTZEA EZINBERTZEKO AIZAN DA BETI»

27 edizio izan ditu dagoeneko, 2019an izan zen azkena, joan den urtean bertan behera gelditu baitzen birusarengatik. Erreferente bat bihurtu da feria hau eskualdean. «Hau da elkarteak herrian antolatzen duen ekimen garrantzitsuenak, baina ez da bakarra», diote. Mendi itzulia bi urtetik behin antolatzen duten ibilaldia da. 500 lagunetik goiti joan izan dira Etxalarko mendi eta paisaiez gozatzera. Laugarren edizioa egin zuten 2019an azkeneko aldiz, 80 herritar baino gehiagoren laguntzarekin antolatuta. Usategietako Igandetan talo postua eta ostatua jartzen dute herrian. Herri Aitadan ere antolakuntza eta finantzaketaz arduratzen dira. Honez gain, «Etxalarko San Juan suak antolatzen ditugu, haurren eta helduen dantza ikastaroak kudeatzen ditugu (80 dantzari ingururekin), pilota ikastaro eta txapelketak antolatzen ditugu, kontzertuak, inauterietarako laguntza, haurren eguneko liburuen finantzaketaz arduratzen gara, mendi federazio-ko txartelak egiteko zerbitzua eskaintzen dute...». Ekarpenei aunitz eta arras aunitzak egiten dizkio Altxatak herriari.

Eta aurtun, zer?

«Besta haundi bat eginez ospatzeko modua da 30. urtebetetzea». Bizi dugun egoerak, ordea, ez die gustatuko litzaiekeen bezala ospatzea uzten. Hala ere, urteurrena ospatzeko aurtun hainbat ekitaldi ttiki antolatuko dituztela iragarri dute. Denak ere, egoerak baldintzatzen duen neurrian eta segurtasun neurriak betez. Lehenbiziko ekitaldia apirilaren 24an egingen dute, Amets Artzallus eta Ibrahima Balderekin *Miñan* liburuaren aurkezpena. Etxalarko kultur etxean izanen da, 19:00etan. Edukiera mugatua izanen da, lekua bete arte. Honez gain, «datozen hilabeteetan joanen gara hurrengo ekitaldiak iragartzen» diote. Zorionak Altxatari!

'Miñan' liburua aurkeztuko dute larunbatean

Altxata elkartearen 30. urteurreneko ospakizunen barrenean, kutur etxeko edukiera mugatua izanen da

IRUNE ELIZAGOIEN

Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen *Miñan* liburuaren aurkezpene eginen dute apirilaren 24an, larunbatean 19:00etan Kultur Etxean. Patxiku Irisarrik gidatuko du aurkezpene eta parte-hartzaile

lea izanen da, nahi duenak bere galdera eta zalantzak argitzeko aukera izanen baitu. Edukiera mugatua izanen da, aforoa bete arte. Izan ere, han eta hemen aurkeztzen ari dira liburu hunkigarria eta jende aunitz biltzen da ekitadietan.

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, turismo bulegoa ireki dute Aste Santuan

TTPI-TTAPA

2020ko Aste Santuan itxita egon zen turismo bulegoa konfinamenduaren eraginez, baina aurten berriz ere atek zabaltu ditu. Kontuan hartu behar da, egungo neurriak direla eta Nafarroako jendea bakarrik gerturatu ahal izan dela Etxalarkoa. 80 lagun ibili dira turismo bulegoan, gehienak herriko landetxeetara etorriak eta gainerakoak zonaldea ezagutzera egunpasa etorritakoak. Mendi ibilbideetan zeukaten interesaghienean, herriko bisitarekin batera.

Egun hauetan, Karmen Etxalarkoa ibilbidearen esku-orri berriak ere eskuragarri izan dituzte. 2017an herri osoa mugiarazi zuen pastoralara egin ondotik, Karmen Etxalarkoa ibilbidea 2019an sortu zuten Karmen Etxalarko Pastoralako kide batzuek auzolanean eta ibilbidea informazio panelez eta ibilbidearen ikurrez osatu zuten. Orain osagarri moduan, paneletako informazioa bezala, esku-orriak sortu dira lau hizkuntzetan; euskaraz/gaztelaz eta frantsesez/ingelez.



ETXALARKO TURISMO BULEGOA

Antsolokueta auzoan espaloia bukatuta

Aitzineko batean aipatu genuen *escollera* edo harri-lubetaren ondotik espaloia ere bukatua dute dagoeneko eta erabilgarri dago Antsolokueta auzoan. Orain lehen baino arrisku guttiagorekin joanen dira neska-mutikoak eskolara Ttapa-ttapa proiektuaren barrenean.



IRUNE ELIZAGOIEN

Zuntz optikoa herrigunean

Aste batzuk pasatu dira herriko erdigunean zuntz optikoaren banaketa egin zenetik, eta Adamo enpresaren eskaintza etxean hartu dute herriko zenbait bizilagunek. Zalantzak argitzeko eta herritarrei informazioa eskaintzeko bilera informatiboa egin zuten kultur etxean apirilaren 10ean.

ANTZUZELAI S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

**HARGINTZA
 FATXADAK
 TXIMINIAK
 ZOLAK
 TAILLA ARTISTIKOAK
 OBRAK**



JAIONE-COKOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko lanean


Oinezkoei lehentasuna ematen dien proiektu bat idazteko kontratua sinatu dute

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Azken aldian, aunitzek ikusi ahal izan izan duzue topografo bat herrian neurriak hartzen. Izan ere, udalak proiektu bat idazteko kontratua sinatu du, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko. Arkitektoak Emilio Pardo eta Raul Montero dira, Rue Space estudiokoak eta bertze aldetik ingeniariatza estudioa Jose Angel Errori eskatu zaio, MKR ingeniariatza eta arkitekturakoa.

Horrek, alde batetik, oinezkoentzako sarbideak (Sarrola) hobetzeko eta oinezkoei lehentasuna emateko ikusten ari garen beharrari erantzuten dio, eta, bertzetik, ia osorik Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak egiteko aukera sortu delako.

Azpiarratu beharra dago, proiektuaren idazketaz ari garela eta hori etorkizuneko aukeren arabera gauzatuko dela. Hori dela eta, hiru fase-tan aurkeztuko da, dena ezin bada izan, zatika egin ahal izateko. Hemen, proiektuak landuko dituen eremuen plana.



Hiru fase-tan aurkeztuko dute proiektua.



Elizatea zaharberrituko dute.

Elizatea zaharberritzeko lanak

Horrez gain, apirilaren 9an egindako osoko bilkuran, udalak Elizatea eraikina zaharberritzeko obraren baldintza-agiria onartu zuen. Apiril erdialdean, prozedura irekiaren bidez eginen den enkantea Nafarroako lizitazio-plataforma elektronikoan argitaratuko da.



Entrenatzaileek haurrei eta gurasoei emandako konfidantza eskertu diete.

«Haurrekin lehiaketetan gabiltzanetik motibazioa haunditu egin da»

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ezuste ederra eman zuten Igantziko neska-mutikoeek martxoaren 28an Antsoainen jokutako Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalean. Izan ere, ez bat eta ez bi, proba konbinatuetako hiru txapelak ekarri zituzten herrira. Garaipen historikoa, dudarik gabe. Gaztetxo hauekin lanean aritzen diren Anjel, Iñaki eta Lander entrenatzaileekin egon gara egiten duten lana ezagutzeko.

Noiztik ari dira Igantziko gazteak herri kirolletako jokoetan parte hartzen?

15 edo 16 urte dira Igantziko Herri Kirol taldea lanean ari garela, Federazioak gonbitea luzatu zigun haurren taldea osatzeko eta gure entrenamenduez gain haurrak entrenatzen hasi ginen.

Parte hartu nahi duten gazteen artean, nola aukeratzen duzue proba bakoitzeko egokiena?

Beraiek aukeratzen dute zertan dauden erosoan, zer proba gustatzen zaien gehien. Puntu konpetitiboak ere badute eta badakite bakoitza zertan den hoberena, garaile ateratzeko. **Zenbat egunez entrenatzen duzue?** Aurten astean bitan entrenatu dugu. Bertze urteetan eskolako 'multikirolak' ekintzaren barruan azkeneko hiruhilabetea herri kirolak lantzen zituztenez, astean behin entrenatzen genuen. Baina ez dugu pista gehiegi eman nahi...

Dirulaguntzarik jasotzen duzue?

Beti La Caixaren laguntza izan dugu. Aurten bai udalean baita La Caixan ere eskakizuna egin dugu eta esperoan gara jasotzeko. Horrekin fitxak, arropak... ordaintzen ditugu.

Noiz hasi zineten entrenatzaile lanetan?

Porttu orain dela 15 urte, hasiera hartan. Orduan herri kirolletako bertze taldekideekin batera. Gero Joxean Ortega lagun zutela ere ibili ziren eta Joxean elkarrekin ere ibili ziren eta geroztik hirurak gabiltza.

Hasi zinetenetik honat, aldaketarik edo hobekuntzarik izan duzue?

Hobekuntza gutti. Poliki-poliki, materiala erosten joan gara. Beti izan dugun gabezia lokalarena izan da. Materiala altxatzeko eta entrenatzeko leku bat beharko genuke baina ez dugu. Herriari eskatu zaio urteetan baina ez dago guretzako lekuri. Beti lokal pribatuetan ibili gara. Orain Xeberen granjan, antzinago herri kirolletako kide baten etxean... Motibazioa haunditu dela nabaritu dugu. Lehen gurasoak bidalita etortzen ziren haurrak eta orain beraien gogoz datoz. **Gerora begira, zein da zuen asmoa?** Etorkizuna ikusten diogu herri kirolei. Uda aldera eginen den arpanako Nafarroako txapelketarako bizpahiru bikote prest izanen ditugu.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

'Luze edo motz' bakarrizketa maiatzaren 8an

Joan den urrian 'Bakean dagoena bakean utzi' emanaldia egin zutenek bigarren ikuskizuna aurkeztuko dute gimnasioan

NEREA ALZURI

Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraiak urrian *Bakean dagoena bakean utzi* bakarrizketa aurkeztu zuten herrian eta maiatzaren 8an, udalak gonbidatuta, *Luze edo motz* euren bigarren antzezlanaren eginen dute eskolako gimnasioan,

19:00etan. Generoa dute umorerako gai, gizartea zertan luze eta zertan gelditzen den motz galdetzeko. Bertzeak bertze, hilekoa, menopausia, ligatzeko teknikak eta sexua izanzen dituzte hizpide. Kritika eginez, deseraikiz eta irri eginez ariko dira bi artistak.

579.930 euroko aurrekontua onartu du udalak

N. ALZURI

Udaleko aurtengo aurrekontua eta plantilla organikoa behin betiko onartuak gelditu dira. Joan den ilbeltzaren 28an egindako bilkuran behin-behinean onetsi zituen udalak. Txostenakjende aitzinean egon diren epean, inork ez duenez alegaziorik aurkeztu, biak ala biak behin betiko onartuak izan direla jakinarazi du udalak. Aurrekontuaren kasuan, 579.930,76 euroko diru sarrerak eta gastuak aurreikusi ditu udalak aurtengo urterako.

Ipar Martxaren bigarren ikastaroa larunbatean

N. ALZURI

Joan den martxoaren 20an, herritar talde batek Jon Medrano monitorearekin, ipar martxa kirol modalitatearen hastapen ikastaroa egin zuen. Geroztik, bertze talde bat bildu da eta larunbat honetan, apirilaren 24an, ipar martxari buruzko azalpenak aditu eta praktikara eramanez, ikasteko aukera izanzen dute. Ikastaroaren truke, parte-hartzaile bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu eta makilak erosi nahi dituenak, berriz, 55 euro ordaindu beharko ditu.



Herritarren jakin-mina piztu zuen Arzallusen aurkezpenak. JULEN OSKOZ

'Miñan' liburuaren aurkezpenak harrera ezin hobia izan du

N. ALZURI

Joan den apirilaren 10ean, Amets Arzallus idazle eta bertsolaria, *Miñan* bere hondarreko liburua aurkeztera etorri zen Arantzara eta herritar aunitz hurbildu zen liburuaren mamiaz Arzallusek egindako solasaldia aditzera. Maddi Laralde egin zituen gonbidatuari buruzko aurkezpen lanak.

*Miñan*ek Ibrahim Balde ginearrak Gineatik Irunera egindako bidaia du oinarri. Ibrahimak Ametsi bidean paituriko esperientziak, zinez gogorak kontatu zituen eta ahozko kontakizunak idatziak izan dira liburu honetan. Ibrahim ezin izan zen aurkezpenarekin egon, Madrilan dagoelako.

Zoritarrez, migrazioaren gaiak gaurkotatzen izaten segitzen du eta aurkezpen ekitaldian bertan, Joxean Or-



Amets Arzallus eta Maddi Laralde.

tega Irungo Harrera Sareko kidea Gipuzkoaren eta Lapurdiren arteko pasabidea pasatu eta Frantziara joan nahi duten migratzaileei ematen dieten laguntza solastatu zuen.

Bertaratu zirenen jakin-mina piztu zuen solasaldiak eta ikus-entzuleen galderak ere erantzun zituzten.

Bertsotan ere hagitz jaioa izaki, Arzallusek bertso batekin borobildu zuen ekitaldia. Nahi zuenak liburua erosteko aukera ere izan zuen.

Arantzaz
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

ORBELA
SENDERMOA ATERPETXEA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

BIDASOA ascensores
www.ascensoresbidasoa.com
info@ascensoresbidasoa.com

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA

- Mota guztietako igogailuak jarri, konpondu eta mantentzeko zure enpresa gara.
- Urte askotako esperientzia duen lantalde tekniko aditua gara.
- Hurbiltasunak egiten gaitu berezi, beti zure segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartuz.
- Edozein abisu dela ere, berehalako erantzuna ematen dizugu.
- 24 orduko matxura zerbitzua ematen dugu.

IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53 | **ERRETERIA:** José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



Martxoaren 26an elkartu ziren euskara batzordeetako kideak Beralandetan.

Euskalgintzaren norabide berria erabakitzekeo garaia

Euskara Batzordeen Batzar Orokorren ondotik, larunbatean jardunaldia egingen dute eta maiatzaren 29an gogoeta saioa

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak abian du gogoeta prozesua, hogeita hamar urteko ibilbidearen ondotik eskualdeko euskalgintzaren antolamendua berrikusteko eta berrantolatatzeko asmoarekin. Prozesu horrek hiru saio izanen ditu guzira.

Lehen saioa martxoaren 26an burutu zuten. Berako Beralandetan elkartu ziren gaur egungo Bortzirietako euskara batzordeetako kideak, mankomunitatearen Batzar Orokorra egiteko. Batzar horretan ondorioztatu zuten hiru hamarka-

dotan herriz herri izan diren euskara batzordeen ibilbidea agortutzat eman dutela, eta etorkizunean Bortzirietako euskalgintzak bertze modu batean antolatuko beharko duela. Etor-kizuneko mugimendu horren oinarri batzuk ere finkatu zituzten. Batetik, mugimendu sozial dinamiko eta parte-hartzailea izan behar duela. Parte-hartzeari dagokionez, adin tarte guzietako herritarrek aipatu zituzten, baina batik bat belaunaldi berrien aktibazioa azpimarratu zuten.

Euskararen aldeko mugimendu sozial berri hau es-

kualde mailakoa izatearen garrantzia ere agerian gelditu zen: herriz herri lan egin behar bada ere, Bortzirietako eskualdea izan behar du erreferentzia.

Azkenik, mugimendu sozial autonomoa izatea ere oinarritzat jo zuten, nahiz eta aldi berean instituzioekin (udalekin nahiz mankomunitatearekin) elkarlanean aritu behar duen.

Jardunaldia apirilaren 24an

Jardunaldi honen helburua izanen da bertze herri eta eskualdeetako euskalgintza eta bertzelako herri mugimenduen gogoeta prozesuak eta antolakuntza moduak ezagutzea. Horretarako goiz osoko saioa (09:30-13:30) izanen da Lesakako Harriondoa Kultur Etxean.

Lehenik eta behin, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorrerari eta ibilbideari errepasoa egingen diote bertako teknikariek.

Ondotik, Kike Amonarritz soziolinguistika eta Topaguneko lehendakariak *Euskara bidegurutzean* hitzaldia eskainiko du.

Segidan, hiru esperientzia ezagutzeko parada izanen dute. Lehenik, Aintzane Lasa Arrasateko Udaleko euskara tek-

nikariak azalduko du herri horretan burutu duten prozesua, euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren (udalaren) arteko elkarlana bideratzeko. Ondotik, Irantzu Jaurregi Hernaniko Udaleko berdintasun eta kulturartekotasun teknikariak Hernaniko Plaza Feminista nola gauzatu duten azalduko du. Azkenik, Mikel Artolaren txanda izanen da, Tolosaldeko esperientziaren berri emateko; hain zuzen ere Galtzaundi euskara taldea Tolosatik eskualde osora nola zabaldu duten azalduko du, eta Tolosaldeko Euskararen Mahaian euskalgintza soziala eta instituzionala nola batzen diren ere bai.

Goizari akabaila emateko parte-hartzaileek talde dinamika batean parte hartuko dituzte, Elhuyar Aholkularitzak gidatuta, aditutako esperientzietatik Bortzirietara zer ekar daitekeen lantzeko.

Gogoeta saioa maiatzaren 29an

Prozesu honen hirugarren saioaren helburua izanen da Bortzirietako euskararen aldeko mugimendu sozialaren antolamenduz gogoeta egitea eta balizko egitura berria abian jartzeko talde eragilea sortzea. Horretarako goiz osoko saioan taldekako dinamikak egingen dira, Elhuyar Aholkularitzak gidatuta.

Parte hartzeko beharrezkoa da aitzinetik izen-ematea (948 6341 25 / euskara@bortziria.eus).

EUSKARA BATZORDEEN IBILBIDEA AGORTUTZAT EMAN DUTE

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKARÖZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Osatzuz

Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki

GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak

619 343 755 Altzate 1 BERA

Jau Jena

Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Apirilaren 4an Eguesen aritu ziren herriko txirrindulariak

Herriko txirrindulari gaztetxoek gogoz segitzen dute

Mendi bizikletan Eguesen eta errepidean Villatuertan ibili zen herriko kirol ordezkari-tza apirilaren 4an

MAIDER PETRIRENA

Herriko txirrindulariek indarrean segitzen dute. Martxoaren 19an Eguesen egitekoa zen mendi bizikleta proba eguraldi kaskarragatik gibelatu eta apirilaren 4an egin zuten. Bertan ondorengo herriarrek parte hartu zuten:

Hasiberriak: Aimar Agesta Hernandorena eta Sara Garcia Sanzberro. **Kimukak:** Ander Larraburu Hernandorena eta Ander Apeztegia Martinez. **Infantilak:** Aitor Igoa Arretxea, Mikel Bastante Rodriguez eta Unax Larraburu Hernandorena.

Errepidean ere

Bertzalde, Villatuertan egun berean errepideko lasterketa izan zen eta bertan kadeteak diren Oihan Apeztegia Martinez, Markel Agesta Hernandorena eta Eneitz Bertiz Apeztegia herriarrek parte hartu zuten.

Bertzetik eta kirolarekin segituz, apirilaren 11n Bilboko Green Series proban Eneitz Bertiz Apeztegia eta Koldo Herrera Urroz herriarrek txapeldun suertatu ziren bakoitza bere kategorian. Zorionak denei. Ikusten da herrian etorkizuna badela.



UTZITAKOA

Ugazta inguruan suebaki zabala

Orain gutti Ugazta inguruan egindako erreketaren beheitiko aldeko magalean, lau hektareako azalera garbitu dute, juntan egitekoa zen desbroze mekanikoa akitu ondotik. Horrela suebaki zabal bat egin dute eta, horretaz gain, abereek goiko larre-pasabidea daukate.

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

Gure Haragia
Nuestro Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Ipuinen Txokoa asteartero izanen da.

Liburua sortzeko tailerra apirilaren 21ean

Maiatzera bitarte asteartero Ipuinen Txokoa izanen dute Haizea Loirarekin

MARGA ERDOZAIN

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko apirilaren 21ean, asteazkenean, herriko liburutegian *Liburu bat eginen dut* tailerra izanen dute.

8-12 urtekoentzat tailerra

Nafarroako Liburutegi Publikoak eta Nafarroako Editoreen Elkarteak antolatutako ekimena prest dago eta tailerra 17:00etatik 19:00etara emanen dute.

Koronabirusa dela eta, gehieneko edukiera 12 lagunekoa izanen da eta parte-hartzaileak 8-12 urte bitarte-

koak izanen dira. Tailer honen bidez, hainbat liburu moten sortze prozesua erakutsiko diete gaztetxoei.

0-3 urtekoentzat Ipuin Txokoa

Ipuin Txokoak ere Liburuaren Egunean ospakizunekin bat egingen du apirilko asteartean, hau da, hilaren 20an eta 27an.

Haizea Loirak musikoterapeutak bideratzen duen saio hau maiatzaren bukaerara arte luzatuko da eta, beraz, ordura arte 0-3 urte bitarteko txikiek asteartero hitzordu polita dute.

'Erik eta Win' emanaldia igandean zineman

Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolarien eta Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikarien eskutik, *Erik eta Win (Buhameak)* izeneko emanaldia emanen dute apirilaren 25ean, igandean, zineman. 18:30ean hasiko da eta bertaratzen direnek antzerkia,

bertsoak, musika eta poesiaz gozatzeko aukera izanen dute euro baten truk. Edukiera mugak direla eta, sarrerak gordetzeko 641 58 99 08 telefonora deitu behar da eta bildutako dirua elkartasun ekimen bat babesteko erabiliko du udalak.



Gaztetxoei aholkuak eman eta frisbeen zozketa egin dute.

Nafarroako lehenbiziko discgolf zelai publikoa inauguratu dute

MARGA ERDOZAIN

Apirilaren 8an aurkeztu zuten Intzakardin eraiki duten lehenbiziko discgolf zelaia Leire Ortuoste alkateak, Xanti Utergak, egitasmoaren bultzatzaile izan den Mikel Ibarrolak eta Baxi Basajaun taldean taldekide duen Iñaki Gonzalezek, bertze zenbait zinegotzi eta herritarrekin batera.

Discgolf zelaia egiteko 3.500 euroko inbertsioa egin du udalak. %65 Agenda 21aren bidez ordaindu dute eta gainerako %35 udalak. Aurkezpenean Mikel Ibarrolak discgolfaren ezaugarri batzuen

berri eman zuen eta Nafarroako lehen discgolf zelai publikoa dela nabarmendu nahi izan zuen. Horrekin batera, Erreka elkarteak kirola sustatzeko discgolf atala sortzea gustatuko litzaiokeela adierazi zuen.

Ibarrola eta Gonzalezen artean, discgolfean aritzeko lehen aholkuak eman zizkieten gaztetxoei. Galbaraialde erreka parkearen ondoan dagoenez, lehenbiziko jaurtiketetan kontuz ibiltzeko erran zieten, baita parke publikoa dela eta jende aunitz ibiltzen dela kontuan hartuz, segurtasunez jarduteko ere.



UTZITAKOA

Parkea auzolanean berritua

Herritarrek egin duten auzolanari esker, Zazpigurutzeko parkea eraldatuta eta berrituta gelditu da: zola aldatu, margotu eta bertze jolas batzuk gehitu dizkiete. Udalak lanean aritu diren familia guztiei egindako lanarengatik eskerrak eman nahi izan dizkie.



Sugarren mende liburuaren aurkezpenarekin abiatuko dira Kultur Egunak.

Ekitaldiz jositako Kultur Egunak larunbatetik aitzinera

Maiatzaren 9an herritarren arteko herri kirol ikuskizuna izanen da plazan

NATALIA REKARTE

Heldu den larunbatean, apirilaren 24an, abiatuko dira Donamariako Kultur Egunak. Bertzeak bertze, liburu aurkezpenak, dokumentala, herri kirolak eta mendi martxa izanen dituzte.

'Sugarren mende'

Lehenbiziko hitzordua larunbatean izanen dute. Asisko Urmenetak *Sugarren mende* liburua aurkeztuko du, Helena Xuriorekin batera egindako lana. Aurkezpen ilustratua Jauregian izanen da 18:00etan eta bertaratzen denak inkisizioari buruz gehiago jakiteko aukera izanen du.

'Bideak' dokumentala

Maiatzaren 1ean Xabier Unanua Goikoetxeak zuzendutako eta Aritz Ganboa de Miguelek idatzitako *Bideak* dokumentala pantailaratuko dute. Aritz Ganboa artzainak egindako erronka, Arruazutik Izabarainoko 170km inguruko ibilbidea, ardatz duen dokumentala 18:00etan emanen dute Jauregian. Dokumental hori bera hurrengo egunean

Amaiurren ikusi ahal izanen da 17:00etan.

'Amonarenean kea' album ilustratua

Ondoko larunbatean, maiatzaren 8an, Dani Martirena idazleak *Amonarenean kea* azken lanaren nondik norakoen berri emanen du. Horretarako, Erabilera Anitzeko Aretoan bilduko dira, 17:00etan.

Herri-kirolak

Maiatzaren 9an, igandean, herritar batzuen arteko herri-kirol desafioa izanen da. 11:30ean plazan ikusi ahal izanen da.

Mendi martxa

Maiatzaren 16an ere kirol hitzordua izanen dute. Izan ere, 09:00etan herriko plaza-tik abiatuta, mendi martxa egingen dute herriko parajeetan barrena.

Maiatz hondarrean ere bertzerik bazuten arren, lerro hauek idazterako orduan lotzeke zeudenez, hurrengoan emanen da ekitaldi horien berri.

Plazatik Mendaurrera bikoteka apustua egin dute herriko zortzi gaztek

A. MINDEGIA

Apustu bikaina izan zen apirilaren 3an herrian. Izan ere, herriko zortzi gaztek, bikoteka, herritik Mendaurreko kaskora goitzeko erronka egin zuten. Honela osatu zituzten bikoteak: Iker eta Gorka; Aritz eta Jon; Oier eta Oier; eta

Ugaitz eta Willian. Kaskoraino behar izandako denborak gehituz, Iker eta Gorka izan ziren txapeldunak. Ikusmin handia sortu zuen apustuak, bai ibilbidean eta baita Mendaurren ere herritar ugari bildu zen. Segurtasun neurri guztiak bete zituzten.



A. MINDEGIA

Aurtizko parkea auzolanean berritua

Urteak dira Aurtizko parkea auzolanean egin zutela eta egoera kaskarrean zegoen dena. Egun batzuz guraso andana bildu eta auzolanean dotore-dotore jarri dute. Dena desmuntatu, garbitu, pieza berriak egin eta margotu dituzte. Orain, bertako haurrak eta bertaratzen direnak gustura ariko dira jolasean.

Herriko bertsolariak han eta hemen dabilta

Aitzineko TTIPI-TTAPA aldizkarian aipatu bezala, *Zapla!* egistamoan ariko dira Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo herriko bertsolariak. Untxalo apirilaren 24an Beran ariko da *Bidasoan Gara* liburuaren inguruko saioan. Iker Gorosterrazu, aldiz, Irurtzunen apirilaren 30ean. Biak ala biak ez daude geldirik, errate baterako, apirilaren 10ean Iruberrin izan zen Iker Gorosterrazu, Saioa Alkaiza eta Josu Sanjurjorekin. Alazne Untxalok, berriz, Señora Sariketan parte hartu berri du Aramaion.

Suhiltzaileak sua itzaltzen aritu dira

Martxoko azken egunean sutea izan genuen. Urroz aldetik sartu zen Ameztira eta bertatik Zubietara. Sua itzaltzeko suhiltzaileak ez zik, Ameztiko eta Lasagako herritarrek aritu ziren.

Aste Santuan bisitari ugari

Aste Santuan bisitari ugari izan dugu herrian, bai egun-pasa etorri direnak, baita bertako etxe zein apartamentuetan ostatu hartu dutenak. Inguruko txokoak bisitatu dituzte.

Helduendako margo tailerra maiatzaren 8an eta 15ean

Maiatzaren 3ra arte eman daiteke izena 680 53 97 69 telefonora deituz

F. ETXEKOLONEA

Udalak antolatuta, 12 urtetik goitikoendako pintura tailerra izanen dute maiatzaren herrian. Lau orduko ikastaroa izanen da eta bi egunez emanen dute. Parte-hartzaileak maiatzaren 8an eta 15ean, bi larunbatez, 11:00etatik 13:00etara bilduko dira eskolan, Iciar Mikelpericena margolaria lagun dutela.

Izen-ematea

Tailerrean parte hartu nahi dutenek 680 53 97 69 telefonora deituz eman dezakete izena eta hamar euro ordaindu beharko dituzte. Azken eguna maiatzaren 3a, aste-

lehen, izanen da eta gehienez 15 lagun onartuko dituzte (plazak deitu ahalak beteko dituzte).

Aurreko saioak

Joan den urte hondarrean izan zen Mikelpericenen lehenbiziko tailerra herrian eta 7-8 urteko 11 lagunek parte hartu zuten. Apirilaren 6an eta 7an izan ziren saioetan dozena bat bildu ziren. Bi saio horien arrakasta ikusirik eta batean zein bestean parte-hartzaileak gustura ibili zirela kontuan hartuz, oraingo honetan helduei bideraturiko saioak antolatu ditu udalak.



IZASKUN ZUBIALDE



Apirilaren 6an hartu zuten lehen txertoa Doneztebeko kiroldegian.

70 urtetik goitiko malerrekarrek bigarren txertoa hartuko dute apirilaren 27an

MARGA ERDOZAIN

Malerrekan bizi diren 70 urtetik goitiko herritarrek apirilaren 6an izan zuten koronabirusaren aurkako lehenbizilo txertoa hartzeko aukera. Goizean 80 urtetik goitikoen txanda izan zen eta arratsaldean 70 eta 80 urte artekoena. Guztira 750 bat herritarrek hartu zuten lehenbiziko txertoa.

Berriz ere boluntarioen laguntza beharko dute

Bigarren txertoa hilaren 27an jasoko dute kiroldegian. Guztia ongi joan dadin, pasa den

apirilaren 6an martxan paratutako antolakuntza bikaina errepikatuko dute eta, lehenbiziko txertoarekin bezala, herritarrek norberari egokitutako orduan bertaratu beharko dira (lehenbiziko dosia hartu zuten ordu berean hain zuzen).

Aitzineko aldiaren bezala, Gobernutik bidaliko duten lan taldeak, bertako osasun zentroko profesionalak, Gurutze Gorrikoek eta Doneztebeko Udalak eskatutako boluntario andanak, elkarlanean, antolatuko dute bigarren txertaketa hau.

Garbigune mugikorraren egutegia oroitarazi du Zubietako Udalak

TTPI-TTAPA

Etxeko hondakin bereziak (diskoak, mugikorrak, olioak, bonbilak, pilak eta bestelakoak) herriz herri biltzen dituen kamioiak herrian egingen dituen hurrengo hitzorduak oroitarazi ditu Zubietako Udalak.

Bide batez, herritarrei kamioia herrira etorri bitartean hondakin horiek etxean kontzeko eskatu die. Ondotik, kamioia herrira etortzen denean, kamioira eramanez birziklatu ahal izanen dituztela argitu dute.

Bi hilabetero

Bi hilabete behin egiten du garbigune mugikorrak geldialdia herrian. Azkena apirilaren 17an, joan den larunbatean, izan zen.

Urte bukarerara arte, honako egunetan bilduko dituzte hondakin bereziak herrian: ekainaren 12an, abuztuaren 14an, urriaren 9an eta abenduaren 11n.

Aipaturiko larunbat horietan guztietan 10:15etik 10:35era bitarte jasoko dituzte hondakinak herriko plazan bertan.

Kultur Zarearen bigarren bideoa ikusgai dago Euskara Zerbitzuaren kanalean

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak, liburutegi publikoarekin eta Katubirekin elkarlanean, otsailean abiatu zuen Kultur Zarea egitasmoa. Doneztebe-ko liburutegi publikoko zerbitzuen nondik norakoak azalduz, bigarren bideoa ikusgai da Bortzirietako eta Malerrekako Euskara Zerbitzuen Youtube kanalaren bidez.



Marga Edozain.

Ikus-entzunezkoen eskaintza eta EFILM

Lehenbiziko bideoan Marga Erdozainek, liburuazainak,

euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza zabala nabarmendu eta EFILM plataformaren bidez ikusteko xehetasunak eman zituen.



UTZITAKOA

Artisauak maiatzaren 2an Donezteben

Baztan-Bidasoko artisauen elkarteak, Argitsuk, maiatzean egingen dituzten azoken berri eman du. Hilaren 1ean Lesakan eta 2an Donezteben bilduko dira. 10:00etatik 14:00etara bitarte azokara bertaratzen den orok mimos egindako produktuak erosi ahal izanen ditu.



JAIONE ZABALO

26 herritar txertatuak

70 urtetik goitiko 26 ezkurarrek joan den apirilaren 6an txertoa hartzeko aukera izan zuten Donezteben. Batzuk euren kabuz eta besteak taxian joan ziren. Herritarrek ilusioz hartu zuten txertoa eta egoera zail honekin akitzeko beste pauso bat eman dutela sentitu dute.



JAIONE ZABALO

Jubiloteka martxan da berriz ere

Apirilaren 27rako jubilotekako ia erabiltzaile guztiak txertatuta egonen direnez, pandemiaren ondorioz utzitako klaseak berriz hasi dituzte. Segurtasun neurriak ahaztu gabe, asteazkenetan (10:00-12:00) eta ostegunetan (16:00-18:00) bilduko dira.

instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tarteetan integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurrpil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurrpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

«Garaiko eskasiak exijentziatik urruti bizitzen erakutsi digu»

ASUN ETA JULI ELIZALDE DANBORIENA ELKARTEKO ADINEKOENAK

Asun eta Juli Elizalde Danboriena ahizpen bizimodua ezagutzeko eta ezagutarazteko euren etxera sartu eta Asunekin solas egin dute elkarteko ordezkariak eta idazkariak

PABLO IRASTORTZA

Aunitz bizi izan duenak, aunitz du kontatzeko. Horixe da Asun eta Juli Elizalde Danboriena etxalartar ahizpen kasua. 100 urtetik goiti dituzten bisenideen bizimodua ezagutzeko Arkupeakeko herriko ordezkaria den Arantxa eta elkarteko ordezkaria bertaratu zitzaizkien eta, Mari Tere Zubieta iloba bitartekari zela, lehengo eta egungo kontuez aritu ziren ahizpa zaharrenarekin. Elkartek erakutsitako borondatea eskertu eta orain arte bezala segitzea opa nahi izan die elizaldetarenei. **Non eta noiz sortuak zarete?**

Barberenborda baserrian jaioak eta sei ahizpetatik bi gazteenak gara. 1935ean jaitsi ginen herrira eta, geroztik, Iñarreta karrikako Barberenea etxean bizi gara.

Nolakoa zen baserriko bizitza?

Ogirik, azukrerik, oliorik eta ia deus ez zegoenez eskasia zen nagusi. Hori bai, txerriak, behi esnea, opila, baratzea eta aita zituen 100 erlategien laguntzaz goserik ez genuen pasatzen. Igandetan, garaiko legea zenez, ez genuen meza nagusiagaltzen, ezta arratsaldeko bezperak ere. **Eskolara herrira etorriko zineten...** Bai eta baserria nahiko urrun zegoenez, herriko familia baten etxean bazkaltzen genuen.

Ez zenuten izanen gaur egungo erraztasunik eta kapritxorik...

Ezinezkoa zen solas horiek zer erran nahi zuten jakitea ere! Ongi oroitzen dugu neguko goiz hotz eta gogor haietan aunitze-



Asunek 103 urte beteko ditu maiatzean; Julik 101 egin ditu martxoan. UTZITAKOA

tan ile busti eta erdi hormatua-kin ailegatzen ginela eskolara... **Bigarren Mundu Gerra bizituak zarete...**

Garai gogor eta tristeak izan ziren familian eta inguruko bueltan, beti gauean edo bihar-munean zer txarkeria gertatuko zen zain egoten ginen... Pentsa, gure ahizpa Rositaren senarra eraman zuten eta gerratik ez zen gehiago etxera itzuli... eta inguruan, zenbat horrelako!

Zertan aritu zarete lanean?

Aukera eskaseko garaiak ziren eta zegoenari heldu behar... Gaztetatik josten hasi ginen. Hasieran, ahizpa Pakita jostunari lagunduz, aunitz ikasi genuen.

Orratza eta hariakin artista-familia zineten...

Artistak? Bueno, ahizpa Juli, hagitz bordatzaile ona izana da. Zorionez, gaztetatik etxean jostun-gidari perfektuak izan genituen. Irunen eta Hendaian gerra denboran familia batekin zerbitzatu eta Madrilen militar jauntxoan arropak josten zituen Engrazia ahizpa zaharrena izan genuen maistra handia.

Etetik kanpo ere egin duzue lanik?

Bai, hamar-hamabortz urtez Etxalarko Don Ernesto Merinoren gabardina fabrian, orain Larraburua, herriko jubilatuko elkartea den egoitzan aritu ginen itxi zen arte.

Dama politik eta eleganteak zinetela diote...

Bai zera! Nork erran dizue hori? Politik izan bagina, auskalo non eta zertan ibiliak izanen ginen! Garai haietan herrian eta inguruan ez zegoen ia ezer, eta guk, bederen, gure arropak josten genituen, bertze batzuk baino modernago bezituko ginen, akaso.

Etetik kanporakoa ere gustokoa omen duzue...

Hori bai! Festa, bazkari edo ateraldi batera joateko aukera izanez gero, probexten saiatu gara beti, jendearekin harremanak izateko eta ederki pasatzeko ez dugu sekula problemarik izan. Etxalarko Larraburuan, gaixotasun hau baino lehenago egin zen azkeneko Arkupeak festan, han ginen eta ederki pasatu genuen. **Elkartarekin aunitz mugitu zarete?**

Bai, bai, egun bateko edo egun aunitzeko irteeretara gustura joaten ginen eta ahalik eta gehien bidaiatzea eta disfrutatzea gustatu zaigu beti.

Orduan, herrialde eta paraje aunitz ezagutuak zarete...

Leku aunitzetara ailegatu gera. Urtero hemen inguruan egiten diren egun bateko ateraldi guztiak egiten genituen. Galizian, Benidormen, Andaluzia osoan eta oroitzen ez naizen bertze hainbat tokitan ibiliak gara, baita Italian eta Argentinan ere. **Adin hauetara ailegatzeko apetitu onekoak izanen zarete...**

Bai horixe! Txikitatik larre motzean hazi eta heziak gera. Baserrian zegoenarekin beharko konformatu! Horrek exigentziatik urruti bizitzen erakutsi digu eta zorionekoak gu, lehen aipatu bezala, garai haietan, orokorrean, baserrietan ez zen goserik izaten.

Ez dirudi gaixorik luzaroan egon zaretenik...

Hori, suertez, gure kasuan egia da. Julik, duela gutti etorri zaion motelaldiakin, botika batzuk hartu behar ditu, baina gure bizi luzean ez diogu latarik apenas eman herriko medikuari eta farmaziara ere hagitz bisita gutti egin diogu. Neronek ez dut pastilla bat bakarrik hartzen.

Bidexken sarea zabaldu dute berriro Natur Parkean

Eroritako haritz amerikarrak kendu dituzte, oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta bertako landareak, modu naturalean edo plantazioen bidez, hedatzeko helburuarekin



Bertako zuhaitzak sustatzeko, eroritako haritz amerikarren egurra atera dute.

TTIPI-TTAPA

Aste Santuarekin batera, Bertizko Jaurerriko Parke Naturalak bidexken sarea ireki du bisitariarentzat, joan den urriko haizetearen ondotik bideak egokitzeko eta eroritako zuhaitzak kentzeko lanak akitu ondotik.

Jaurerri barrenera bisitariak sartzea mugatuta egon da azken hilabeteetan, segurtasunagatik; izan ere, iazko urriaren 20an basoari eragin zioten haize bortitzen eraginez eroritako zuhaitz aunitz zeuden, eta bertze aunitz egoera eze-gonkorrean eta pista eta bidexken gainean erortzeko arriskuan zeuden. Hilabete hauetan, Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, Biodibertsitate Zerbitzuaren bidez, kontserbazioko eta hobekuntzako hainbat baso jarduerak egin dituzte, eroritako zuhaitzak eta pista eta bidexka nagusietatik igarotzea oztopatzen zuten aztarna arriskutsuak kenduz, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

ESKU-HARTZEA baso inguruan

Jarduerak basoan bisitari gehien izaten diren eremuetan hasi ziren; zehazki, Erreparatzea, Supsiro, Iturburua eta Irretarazuko bidexketan eta pista nagusian. Bertako landaredia berreskuratzeko ere aprobetxatu dute. Hone-lar, eroritako haritz amerikar zuhaitzen egurra atera dute, modu naturalean edo plantazioen bidez, bertako zuhaitzak hedatzeko helburuarekin.



Leire IGOA, Lesaka >

«Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen PBLko eredua eta metodologia duala eskaintzen duen bakarra delako»



Leire Igoa (Lesaka, 20 urte) Ingeniaritza Informatika graduko 2. maila ikasten ari da Mondragon Goi Eskola Politeknikoan.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?

Tantirumairu ikastola, Labiaga ikastola eta Toki Ona Institutuan burutu ditut eta, hobby bezala, musika eta lagunekin egotea izango nituzke.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Informatikako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batzilergoko bigarren maila bukatu arte zalan-tza handiak izan nituen, nahiz eta zientzia eta matematikekin erlazioz gertatutako gradua izango zela garbi izan. Institutuarekin Orona Ideora egin genuen irteera batean, bertako ikasleak seihileko bukaerako proiektuekin taldeka ari ziren lanean eta metodologia horrek atentzioa eman zidan. Horrez gain, unibertsitate ezberdinetako ate irekietara joan nintzen, baina Mondragon zen PBL (Project Based Learning)-az gain Dual nahiz LIP (Lan ikaste partekatze) egiteko aukera ematen zuen bakarra.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Hagitz ona izaten ari da. Lan aunitz egin behar da, baina irakasleak beti daude prest laguntzeko eta, behar izanez gero, klasetik kanpo ere. Gainera,

seihileko bakoitzaren bukaeran proiektu bat burutzen dugunez, ikasitakoak zertarako balio duen ikusten dugu, eta hilabete guzti horietan lanean aritzeak eman duen fruitua ikustea beti dugu gustuko.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Praktikoa dela errango nuke. Orain arteko ikasketetan ikastea soilik exijitu digute, hau da, teoria ikasi eta azterketan bota. Mondragon Unibertsitatean aldiz, seihileko bakoitzaren bukaeran proiektu bat egiten dugu, non seihilekoan zehar ikasitako teoria praktikan jarri behar dugun. Hau hagitz metodologia erabilgarria dela iruditzen zait, azken finean horrela ikusten baita ikasten ari garena bizi errealean zertarako erabiliko den.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Project Based Learning metodologia eta DUAL edo LIP (Lan ikaste partekatzea) egiteko aukera azpimarratuko nuke.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Informatikak hainbat arlo ezberdin ditu, eta oraindik ez dakit zein arlotan ikusten dudana nire burua. Hala ere, ez dut etorkizun batean irakasle izatearen aukera baztertzen.

www.mondragon.edu/prest

Udal eraikinen planarekin aurrera jarraitzen du udalak

Ospitale zaharrean belaunaldiarteko sei bizitza egin nahi ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Urtarrilean herritarren aurrean aurkeztu zuen udal eraikinen etxebizitza planarekin lanean jarraitzen du udalak. Bide horretan, inkesta ere egin du herritarren etxebizitza beharra aztertzeko, eta horren emaitzakegunotan jasotzekoak dituztela adierazi dio Unai Miranda alkateak TTIPI-TTAPARI.

Horiek jaso bitartean, halerre, lanean jarraitu du udalak eta joan den astean ospitale zaharrean egin nahi duten proiektua aurkezteko bilera deitua zuen 60-75 urte bitarteko herritarrekin.

Ospitaleko zaharreko proiektua Mirandak azaldu duenez, «belaunaldiarteko bizitzak» egin nahi dituzte garai bateko ospitalean: «udalak 2011n ospitalea eraberritzeko proiektua egin zuen, alokairu sozialera bideratzeko sei apartamentu egin nahi izan zituen, baina proiektua ez zen aurrera atera». Hamar urte beranduago orduko egitasmoari heldu dio udalak, baina «beste ikuspegi bat» eman nahi izan dio belaunaldiarteko bizitzak eginez: «gazteentzat eta edadetuentzat irtenbidea izan daiteke. Izan ere, herrian edadetu asko daude eta horietako batzuen artean beharra bazela ikusten genuen». Horren harira antola-

«GOIZUETARENTZAT ANBIZIO HANDIKO PROIEKTUA DA»

UNAI MIRANDA, ALKATEA

tu zuten joan den asteko bilera, «etorkizuneko erabiltzaile potentzial horiekin harremanetan jarri, proiektua aurkeztu eta beraien beharrak eta gabeziak zein diren jakiteko».

Proiektuaren aurrekontuaren inguruko «datu zehatzik ez» duela dio alkateak baina milioi bat euro baino gehiago kostako delakoan dago. Onartu du «Goizueta bezalako herri batentzat anbizio handiko proiektua dela», baina herritarrentzat aukera ona izan daitekeela sinetsita daude eta han eta hemen ate joka hasiak dira: «Nafarroako Gobernuarekin eta beste instituzioekin harremanetan jarriak gara eta argi dugu beraien parte-hartzea ezinbestekoa izan dela. Dirulaguntzarik gabe proiektu hau aurrera ateratzea ezinezkoa izan da».

Beste udal eraikinak

Ospitale zaharrean «belaunaldiarteko sei bizitza» egin nahi ditu udalak, baina ez da eskuartean duen proiektu bakarra. Udak eraikinen planean, alde batetik, «eskola zaharrean alokairu sozialera bideratzeko bi bizitza eraberritu nahi ditugu» eta bestetik, «garai bateko medikuaren etxean eta kontsultan babes ofizialeko bizitza egin eta saltzea» dute begiz joa.

Dena den, oraindik «asmoak» direla azpimarratu du Miranda: «orain herritarrekin kontrastatzen eta konpartitzen ari gara benetako beharrak eta egoera zein den ikusteko, eta horren arabera segituko dugu aurrera».



GARAZI LOIARTE

'Txoriak txori' Aberri Egunean

Euskal Herriko hainbat txokotan bezala, Goizuetan ere Aberri Eguna ospatu zuten apirilaren 4an. Aldarrikapenei tarte eginez eta Euskal Herria Batera ekimenarekin bat eginez, *Txoria txori* kantatu zuten plazan bildu ziren hainbat herritarrek.



Lujanbio martxoaren 28an Antzinen jokatu zen Betagarri Trail proban.

Nafarroako txapelketan laugarren eginda Navartrail kopari begira dago Lujanbio

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 28an jokatu zuten Antzinen Nafarroako Trail Lasterketa, eta Hodei Lujanbio ederki moldatu zen. 23 kilometroko ibilbidea 1.43.06ko denboran osatu zuen eta laugarren helmugaratu zen. TTIPI-TTAPARI kontatu dionenez, «oso gustura gelditu nintzen Antzinen egindako lasterketarekin».

Antzingoa Nafarroako Atletismo Federazioak antolatu duen mendi lasterketen Navartrail koparako puntuagarria izan zen eta horretan segitze-ko asmoa du: «Bost lasterketak

osatzen dute Navartrail eta lehenengoa Antzinen jokatu-takoa izan zen. Hurrengo maiatzaren 16an izan da Lerinen». Hantxe izan da Lujanbio, baina ez da begiz joa duen lasterketa bakarra: «ekainean Tolosaldeko Hiru Tontorrek maratonia egingen dut, eta uztail bukaeran Euskal Herriko Ultra Txapelketan den BUTS Txiki Andoin-Iruñea».

Horiek omen dira «oraingoz, aurtan ditudan helburuak». Baina argi du «momentu ba-koitzean egoera nola dagoen ikusi beharko» duela.



Martxoaren 7an herritarren aurrean aurkeztu zuten webgune berria. O. KALPARSORO

Webgune berria estreinatu du Aranoko Udalak

Udalaren zerbitzuak herritarrentzat eskura jarri dituzte Ohiana Kalparsorok eta Nerea Ansak webgunean

TTIPI-TTAPA

«Herritarrek zerbitzu interesgarriak eskura» izan ditzaten webgunea estreinatu du udalak. Besteak beste, Helpbidearen kodeak argitaratu dituzte, edozein momentutan kontsultatzeko aukera emanez. Horrez gain, udalaren zerbitzuak zeintzuk diren ageri da, hala nola, Maisuenea eta Ganbara, eta horiek erabiltzeko gonbita ere egin nahi du bide batez. Udal jarduera eta tramiteen berri ere bildu dute Interneteko atarian, eta udalaren komunikatuak ere bertan argitaratuko dituzte.



Kalparsoro eta Ansa.

Webgunean joan den martxoaren 7an aurkeztu zuten herritarren aurrean, eta herritarren ekarpenak bilduta prest utzi dute Ohiana Kalparsorok eta Nerea Ansak. Bisitatu ez duenak hortxe du arano.eus.

Liburutegi ibiltaria hilaren 29an eta 30ean

Areson apirilaren 29an egingen du geldialdia eta Aranon eta Goizuetan apirilaren 30ean

TTIPI-TTAPA

Apirilean ere ez du hutsik egingen liburutegi ibiltariak eta hilaren 29rako eta 30erako zehaztu dituzte Harkaitz Delgado Leitzako liburutegian Aranora, Aresora eta Goizuetara egin beharreko bisitak.

Areson apirilaren 29an, ostegunean, egingen du geldialdia liburutegi ibiltariak, betiko ordutegian, 14:15etik 15:00etara.

Aranora eta Goizuetara, biharamunean, hilaren 30ean, joanen da Delgado, bere proposamenak eta herritarrek

aldez aurretik egindako eskaerak eskuartean dituela. Goizuetan 14:30etik 15:30era egonenda eta Aranon 16:00etik 16:30era.

Urtebeteko ibilbidea

Joan den urteko urtarrilean egindako aurkezpenaren ondoren, Harkaitz Delgado Leitzako liburutegian otsailean abiatu zuen ibilbidea, eta koronabirusa tarteko etenaldia egin behar izan bazuen ere, iazko maiatzetik harat eta honat dabil. Segitzea ekimenak duen arrakastaren seinale da.

Mimukai proiektuaren parte-hartze prozesuko azken saioak

TTIPI-TTAPA

Sektorez sektore ateak joz, parte-hartze prozesu zabala egiten ari dira Mimukai proiektuaren baitan eta bi saio baino ez dira gelditzen: ostegun honetan, hilaren 22an, Goizuetan eta maiatzaren 6an Leitzan. Goizuetako saioan udal orde-

kariak gonbidatu dituzte eta udalen parte-hartzeaz gain, Mimukaik izan beharko lukeen izaera juridikoa izan dute hizpide. Leitzakoa, berriz, saio irekia izan da. Bi kasuetan, parte hartzeko izena aurretik eman behar da: mimukai@cederna.es edo 617 60 93 28.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Dasta ezazu!

DENDA ORDUTEGIA Asteleheneetik-ortziralerara 08:00-17:00

Martiko. Zalaín Ind z/g. 31780 Bera. Nafarroa

Tel: 948 625 016 · www.martiko.com · martiko@martiko.com

Plazaolako meategiei buruzko jardunaldia larunbatean

Aste osoan meatzeekin lotutako tresnen erakusketa ikusgai dago eta larunbatean solasaldiak eta aurkezpenak izanen dira

TTIPI-TTAPA

«Kontatzeko asko duen ondarea» dela iritzita, Plazaola eta meatzei buruzko jardunaldia antolatu du Nasuvinsak Europako Trail Gazers Bid proiektuaren barne, udalaren eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren laguntzarekin.

Alde batetik, udalaren ekimenez, astelehenaz geroztik ikusgai dago Plazaola eta meatzeekin lotura duten lanabes eta tresnen erakusketa. Eskualdeko herritarrek utzitako tresnak Herri Aretoan jarri dituzte eta han egonen dira igandera bitarte. Bestetik, larunbatean, hilaren 24an, hainbat hitzordu izanen dira.

Goizean solasaldiak eta aurkezpenak

Goizeko jardunaldia *Plazaola eta meatzeak: kontatzeko asko duen ondarea* izenburupean egingen dute.

- 09:30etik 10:00etara ongiatorria egingen dute Mikel Zabaleta alkatearekin, Trail Gazerseko Xabier Velasco-ekin eta Plazaola Partzuergoko Aitor Larrazarekin.
- 10:00etatik 10:30era ondare immateriala, industria-ondarea eta lan dokumental etnografikoa hizpide izanen ditu Mikel Ozkoidik.
- 10:30etik 11:00etara Burdina Taldeko Xabier Cabezón Leitza-aren eta meatzeek eta Plazaolaren jatorriaz ariko da.
- Atsedenaldiaren ondotik, 11:00etik 11:40ra Trail Gazers proiektuak sortutako bideoa ikusteko aukera izanen da.
- 11:40etik 12:10era trenbide zaharren inguruko bideoak

egiten dituen Enrique Diazek *Trenbideen Ondarea: Plazaola* izanen du hizpide.

- 12:10etik 13:15era solasaldia: *Iraganeko testigantzak zonaldeko herritarren ahotan.*

Arratsaldean ibilaldi gidatua

Arratsaldean *Ibili, ikusi eta ikasi* lelopean, Plazaolako meategi zaharretara bizikletaz bisita gidatua egingen dute. 17:00etan abiatuko da eta bi ordu eta erdiko saioa izanen da. Plazaolako trenaren jatorria ezagutu nahi duten guztiek izanen dute parte hartzeko aukera. Meategi zaharretan Burdina Taldeko Jose Ramon Berrondok azalpenak emanen ditu.

Proiektu honen bitartez, «Plazaolako eta inguruko istorioak bildu» eta «Trail Gazersen proiektuaren barne beste ekin-tza batzuetarako partaide izan daitezkeenak ezagutu» nahi dituzte. Baina hortik harago, Plazaola aldeko «herritarrei ingurunea ezagutarazi» nahi diete, «inguruan dutena ezagutu eta balora dezaten». Gisa berean, herritarrak elkartuta, «komunitate-zentzua» eta «natur ingurunean bertan ondare eta memoria kolektiboaren ezagutza trukatzeko giroa sustatu» nahi dute; eta hori guztia «jarduera osasungarria eta sentsibilizatzailea» eskainiz.

Goizeko saioak Herri Aretoan egingen dituzte eta gehienez 127 lagunentzako tokia izanen da eta izena aurretik eman beharko da (forms.gle/4mfVrZGRtdiZneht7 edo 948 50 72 04). Arratsaldeko bisita, berriz, osasun neurrien arabera, taldeka antolatuko dute.

Iberdrolari kexuak bideratzeko bulegoa egokituko du udalak

JM BARRIOLA

Pasa den apirilaren 12an, Mikel Zabaleta alkateak kexa adierazi zuen Iberdrola enpresaren aurrean. Iberdrolak hainbat orduz herriaren erdia argirik gabe utzi zuen konponketa batzuk egiteko aitzakia-ekin. Dirudienez elektrizitate-sorgailu bat martxan jarri eta geratu egin zen eta arazoa udal langileek eta herritar batzuek moldatu behar izan zuten.

2018an ere, bi egunez, hornidurarik gabe utzi zuen herri gehiena. Alkateak jakinarazi duenez, orduan egin zuten



ARTXIBOKO ARGAZKIA

moduan, Iratxe kontsumitzaileen elkartearen bidez, herritarrentzako kexak bideratzeko bulego bat egokituko dute, herritarretan sortu diren kalteak erreklamatu ahal izateko.



JUNKAL OTXOTORENA

'Herri bat gara' aldarria Aberri Egunean

Leitza-aren Aberri Eguna ospatu zuten apirilaren 4an. Plazan egindako hitzorduan hainbat herritar bildu ziren baina aurretik Gipuzkoarako mugaraino bizikletaz hurbildu zirenak ere izan ziren, «Euskal Herrian mugarik ez dagoela eta herri bakar bat gara» aldarrikatzeko.

Mihise taldearen kontzertua Atekabeltzen

Mihise taldeak saio ederra eman zuen apirilaren 7an Atekabeltzen. Pozik gelditu ziren Atekabeltzekoak eta «taldeari eta hurbildu zirenen guztiei eskerrak» eman dizkiete. Maiatzean izanen dute hurrengo kontzertua.



ATEKABELTZ GAZTETXEA

Udalak hamaika erronka aurreikusi ditu 2021erako

2,6 milioi euroko aurrekontua onartu du udalak eta horiei izazko 300.000 euroko gerakina gehitu behar zaio

TTIPI-TTAPA

Udalak joan den abenduan onartu zuen aurtengo urterako aurrekontua. Mikel Zabalza alkatearen hitzetan, «gutxi gorabehera 2,6 milioi euroko aurrekontua da» eta horri «iazko 300.000 euroko gerakina» gehitu behar zaio. Horren barne hainbat proiektu aurreikusi dituzte eta horien artean «nagusienak» hamaika erronka direla dio, bere hitzetan, «azpiegitura eta zerbitzu publikoak hobetzeko» balioko dutenak.

1. Eskola eremuan estalpea

Nafarroako Gobernuak %80ko dirulaguntza onartu du Leitza-ko eskola eremuan estalpea egiteko. Baina horrekin batera, «ingurua moldatzeko» aprobetxatuko dute. «Prozedura administratiboa motel doa baina luzatzen ez bada gure asmoa lanak udan hastea da. Halere, ikasturte hasierarako bukatzea zaila izanen da».

2. Bideen mantentze-lana

«Belarra mozten eta elurra kentzen modueraginkoragoan aritzeko traktore berri bat eta desbrozatzeko besoa erosiko ditu udalak, gerakineko diruarekin». Gisa honetara, «eremu zabalagora» ailegatu nahi du, «orain arte egin diren lanez gain, beste bide batzuk irekiz eta mantenduz». Berriak erosit, zaharrak salduko ditu.

3. Bi lanpostu publiko

Kultur teknikariaren eta administrari laguntzailearen lanpostuen deialdiak egingen ditu udalak. Horrekin batera, «lanpostuak» osatuko dute. Zabale-

tak aitortu duenez, «udalak postu estrukturalak izatea nahi bada ere, Madrildik ezarritako baldintzen ondorioz, hiru urterako deialdiak izanen dira, eta berritu beharko dira».

4. Politika sozialak

Batetik, «herritarrekin elkarlanean, hileta zibilak antolatu ahal izateko lantaldea osatzen» eta bestetik, «gazte plana definitzen» ari da udala.

5. Herriko plaza

Plazako lanak «ia bukatuak» omen daude: «Obra nagusia eginga da eta gazteak eta haurrak erabiltzen hasiak dira. Herri kirolei balioa emanen dien panela jartzea eta beste detaille batzuk baino ez dira falta». Alkateak «sorpasaren bat» ere izanen dela aurreratu du.

6. Mugikortasuna

Herri seguruagoa eta irisgarriagoa izateko «hainbat hobekuntza» egin nahi ditu udalak. Horren harira, «eskola ingurua irisgarriagoa izateko» neurriak hartuko dituztela adierazi du alkateak eta aldi berean, «Adur tabernatik Peritza tabernarako bidea behin betiko oinezkoentzako egokitu» nahi dute. Auzokideekin ere hitz egin omen dute eta «gehienek begi onez hartu dute».

7. Inklusioa

Herri inklusiboagoa lortzeko herriko sei familiak abiatu duten LHL erronkaz ere aritu da alkatea eta «begi onez» hartu dutela dio. Bestalde, «eskolako beheko solairuko komunak oso zaharrak daudela» ikusita, berritzeko asmoa dute: «Behar

eta adin guzietarako egokitu ditugu».

8. Mimukai.

«Tokiko ekonomia bultzatzeko proiektu estrategikoa» dela iritzita Mimukairekin lanean segituko dute. Proiektua parte-hartzearen bidez diseinatu nahi dute eta gauzatzeko dirulaguntzak eskatuko dituzte.

9. Liburutegia

«Guraso Katolikoen Elkartek Oialde txokoa udalaren esku utzi zuen liburutegia hor kokatzeko, eta udazkenean tokiko azpiegiturarako dirulaguntzen deialdia aterako dela aprobetxatuz, aurreproiektua aurkeztuko dugu dirulaguntza eskatuz».

10. Mendien kudeaketa

Zuhaitz landaketak egiten jarraitzeko asmoa berrestearekin batera, «abeltzainekin elkarlanean» herri lurren ordenantza berria zehazten hasiak dira, «mendia hobeki zaintzeko auzolana indartuz eta mendiak garbiago mantentzeko mendian abereak larretzea sustatuz».

11. Energia plana

Bigarren udal energia plana ere aurkeztu nahi du udalak eta horren atariko, lehenbiziko planaren inguruan «balorazio positiboa» egin du alkateak. «Azken urteotan hartutako neurriekin eta egindako inbertsioekin udalak energia kontsumoan %20 baino gehiago aurrezteko lortu du». Gehiago ere bada. «Goiener kooperatibarekin elkarlanean ekoizpenerako saltoa» eman nahi du, «komunitate energetiko bat sortzeko».

Zorpetze maila murriztuz

Azken urteotan udalaren zorpetze maila murriztu izanaz ere aritu da Zabalza. Horren seinale, 2021ean 630.000 euroko zorrarekin bukatuko dutela aurreikusi dute: «2019an 867.000 euroko zorra zuen udalak eta azken bi urteetan zorpetzea %27 murriztu da».



Mikel Zabalza senideak.

Haurrentzako filma eta 'Non dago Mikel?' dokumentala ikusgai

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan, Plazaola eta meatzeen inguruan egingen den jardunaldiaz gain, larunbatean eta igandean, hilaren 24an eta 25ean, *Dragoiaren gidaria* filmaz gozatzeko aukera izanen dute haurrek. 17:00etan emanen dute, Herri Aretoan. Sarrerak bost euro balio du, baina Denok Bat Guraso Elkartekoek lau eurotan izanen dute. Astiz eta Maimur liburu-dendetan eros daitezke.

'Non dago Mikel?'

Maiatzean sartuta ekitaldiek ez dute etenik izanen. Besteak beste, maiatzaren 8an, udalak antolatuta, *Non dago Mikel?* Mikel Zabalza desagerpenari eta heriotzari buruz egin duten dokumentala ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan. Bi saio emanen dituzte, 17:00etan aurrenekoa eta 19:30ean bigarrena, eta sarrerak, bost eurotan, Astiz eta Maimur liburu-dendetan eskura daitezke.

Horrez gain, maiatzaren 15ean *Antzerki solidario espaziala* izanen da, 16an *Dardara* Berri Txarrak-en dokumentala, 22an haurrentzako magia ikuskizuna... Hurrengo aldizkarian xehetasun gehiago bilduko ditu TTIPI-TTAPAK.



Maria Txibite presidentea eta kontseilariak, Andres Etxenike Bertizaranako alkatearekin. NAFARROAKO GOBERNUA

«Oronozko LH zentroa eta 2+1 errepidea ditugu lehentasunak»

Maria Txibite presidentea Bertizen bildu zen eskualdeko alkateekin eta bertze ordezkariarekin

TTIPI-TTAPA

Maria Txibite Nafarroako presidentea Oronozko Lanbide Heziketako zentro berria erakitzea eta N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzeko lanak nabarmendu zituen Nafarroako Gobernuak Baztan-Bidasoan dituen lehentasun nagusitzat. Zehazki, errepide horretako laugarren zatiko lanek, Oronoz eta Sunbilla artean, 19,7 milioi euroko gastua izanen dute, eta aurreikusia zegoen data baino lehena go hasiko dituzte, udazkenean.

Txibitek Bertizko Jauregian egin zituen adierazpenak eskualdeko hogeitabat alkateekin, Bernardo Ziriza Lurralde Kohe-sioko kontseilariarekin eta Elma Saiz Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarekin eta Itziar Gomez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariarekin izan zuen hitzorduan. Bortzirietako eta Malerrekako mankomunitateak, Cederna Garalurreko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko, Baztan-Bidasoa Turismoa eta Bera, Doneztebe eta Baztango merkataritza eta zerbitzu elkar-

teetako kideak ere izan ziren martxoaren 30eko bileran.

N-121-A errepidean Oronoz eta Sunbilla arteko tartea

Izan ere, N-121-A errepidea 2+1 bide bihurtzea da gobernuak azpiegiturei dagokienez aurreikusitako jardura nagusietako bat. Udazkenean, Oronoz eta Sunbilla arteko lau zatiko lanak hasiko lituzkete, 11,5 kilometrokoak eta 19,7 milioi euroko inbertsioarekin. Bi biribilgune egingen dituzte, bata Oronozen sartzeko eta bertzea Doneztebeko zerbitzuen eremuan. Bertze lotura bat ere egingen dute Sunbillan.

Belate eta Almandozko tuneletan, alde batetik, 1,4 milioi euro erabiliko ditu aireztatzeko sistemak berritzeko. Bertzetik, tunelak bikoizteko proiektua prestatzen ari dira, zirkulazioaren noranzko bakoitzeko tunel bat sortuz, Europako Zuzentaraua betetzeko. Lanek ehun milioi euro inguru gastua izanen dute eta 2021. urtean milioi bat euro erabiliko dira proiektua idazteko.

Irurita-Elizondoko saihesbidearen eta Elizondoko Fo-

ruzaingoko polizia-etxearen arteko lotura egiteko 350.000 euroko inbertsioa egingen du gobernuak, eta Lesaka eta Bidasoako Bide Berdea lotzeko bizikleta-bidea ere sortuko da. Horretarako, 340.000 euroko inbertsioa egingen du.

Oronozko errepideen kontserbazio zentroak 3,37 milioi euroko aurrekontua du aurtengo errepideak mantendu eta kontserbatzeko eta neguko bide plana egiteko.

LH zentro berria Oronozen

Hezkuntzaren arloan, gobernuak eskualdean Lanbide Heziketaren alde egin duen apustua ere azpimarratu zuten, eta Oronozen ikastetxe berri bat sortuko dute. «Lurraldeko egituratzeko zentro bat da, inguruko ikasleei erabat zuzendua eta enplegarritasunera eta etorkizunera bideratua», azaldu zuten.

Alde horretatik, Nafarroako Azpiegituren Plan Zuzentzaileko proiektu garrantzitsuenak dira, eta gaur egun Elizondo, Lekarozko eta Berako Toki Ona BHIetan ematen den Baztan eta Bortzirietako Lanbide Heziketako hezkuntza-eskaintza zati handi bat hartuko du. «Baina ez da eskaintza horien batura soilik izanen, ziklo batzuk modernizatzeko eta eskaintza hobetuko duten azterlanak eguneratzeko aukera emanen baitu», aipatu zuten. Proiektua aurtengo lizitatuko dute, hurrengo ekitaldian obrak hasi eta 2023-24 ikasturtean klaseak hasi ahal izateko.

Otsaileko sutearen ondotik basoberritze lanak

Beran eta Lesakan 769,3 hektareari eragin zion otsaileko baso-sutearen ondotik, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen basoberritze-lanak eta bertze oihan-lan batzuk hasi dituztela Beran. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ordainduko ditu lan horiek guztiak. Bertze 280.000 euro inbertituko ditu aurtengo, gaur egun erituak dauden ordeztasunak berriak egiteko, Goizueta, Arantza, Igantzi, Eratsun, Saldias, Lesaka eta Bidasoa Berroarran eta Baztanen.

Bertizko Natur Parkerako 1,4 milioi euro bildu nahi dira

Bertizko Jaureriko Parke Naturala kultur ondarea lehenagoratzeko 1,4 milioi euro bildutzeko lanean ari dira. Aizkollegi jauregia sendotu, kapera eta Markeseneko estalkiak konpondu eta Tenientetxeko Naturaren Interpretazio Zentroa igogailuz hornitu nahi dute. Proiektuaren finantza-keta egiaztatutako ondorengo hartu nahi den irtenbidea patronatuarekin kontrastatuko dute.

Ondarea zaintzeko 125.000 euroko inbertsioak

125.000 euro inguruko inbertsioak aurreikusi dute ondarea zaintzeko, museo eta liburutegiaren sareko jarduerak finantzatzeko eta kirola sustatzeko. 60.000 euro Berako Portu Zentroko erabiliko dira, eta 40.000 euro, Elgorriagako artzain amerikarren espazio museografikoak. Kirol instalazioak berritzeko laguntzei dagokienez, Baztan-Bidasokoek 40.000 euro jasoko dituzte.

Amaiurko eskolak Urmaela erronka martxan jarri du

Amaiurko herria, Aranzadi Zientzia Elkarte eta udalarekin elkarlanean garatuko du heziketa integraleko egitasmoa

FERNANDO ANBUSTEGI

Amaiurko eskolak, Amaiurko herria, Aranzadi Zientzia Elkarte eta Baztango Udalaren laguntzaz, Urmaela proiektu hezitzailea martxan jarri berri du. Aranzadi Zientzia Elkartearen Herpetologia sailak eman zien amaiurtarrei urmaela proiektuaren berri, eta zalantzarik egin gabe eskolak eta herriak, batera, lanari ekin zioten.

Aranzadi Zientzia Elkartek Alemaniako Tübingen herriko eskola batean garatzen zuten esperientzia baten berri izan

zuen, bertan, umeak naturara hurbiltzeko helburuarekin, eskolatik kanpo zegoen urmael batera joateko ohitura zuten. Euskal Herrian horrelako zebait egitea pentsatu zuten, hango esperientzia ekarritik. Honela, 2013an, Ereñotzuko Txirrita Herri ikastetxearekin batera sortu zuten lehenbiziko urmael didaktikoa, eta horri loturiko hilabete bateko hezkuntza proiektua garatu zuten eskolan. Esperientzia berritzailea biziki eraginkorra zela frogatu ondotik, azken urteetan bertze dozena bat



Amaiurko lixutegiaren ondoan kokatuko dute proiektuaren ardatza den urmaela.

eskolatan izan du segida, eta orain, Amaiurkoa izanen da Nafarroan garatuko duten lehenbizikoa.

Nora Salbotx Amaiurko eskolako zuzendariak azpimarratu duenez, «aurtengo ikasturtean inoiz baino gehiago ikusi da naturarekin harremana izateak duen garrantzia, hortaz, urmael proiektu hau ezin hobeki egokitzen zaio garaiari». Urmael proiektuaren ardatza putzu bat da, zeinean

ur gezako ekosistema baten garapena aztertuko duten ikasle eta irakasleek.

Salbotxen erranetan «proiektua putzuaren inguruan garatuko denez, eskolatik hurbil behar dugu urmaela», baina Amaiurko eskolaren ondoan ez dago halako putzurik, hortaz, bat sortuko dute. Dagoneko hasiak dira lanean, eta lehenbiziko eginbeharra urmaela edo putzuaren kokapena zehaztea izan da.

DESKONTUAK BAZTAN TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

BB BLOK BAT TALLERES %15 DESKONTUA frenoetan Santiago, 85 ELIZONDO T. 948 58 08 98	Gureaut TAILERRAK %10 DESKONTUA baterietan Zaldubia indus. B partz. 2. nabea IRURITA T. 948 58 02 25	ttipi-ttapa %10 DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus	FOTOMENA %10 DESKONTUA kopia handitzetan Santiago, 44 ELIZONDO T. 948 58 01 55	EZ %10 DESKONTUA produktuetan Santiago, 15 ELIZONDO T. 948 58 04 91
SANSIÑENA %5 DESKONTUA olio aldaketetan Santiago, 37 ELIZONDO T. 948 58 04 06	ALMACO BAZTAN %5 %10 DESKONTUA edo OPARIA bainurako gaitetan T. 948 58 01 04 ELIZONDO www.almacobaztan.com	begoviela %25 DESKONTUA zoru pelbikoaren azterketan %5 DESKONTUA borts saioko bonoetan Santiago, 14 - 3B ELIZONDO T. 636 58 30 34	-POSADA- ELBETE %10 DESKONTUA kartan, txartela duenari Karrikaundi, z/g ELBETE T. 948 58 15 19	GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOA %5 DESKONTUA neguko denboraldian 10 eguneko abonoan Giltxaurdi, 38 ELIZONDO T. 948 45 23 01
nafarpress %10 DESKONTUA liburu eta ikas materialetan. Testu liburuak eta DVDak izan ezik Jaime Urrutia, 43 ELIZONDO T. 948 58 09 02	ARGIBEL PTIKA DESKONTUA Belaurreko graduatu pare bat erosterakoan, graduazio bereko bertz bat doan Santiago, 86 ELIZONDO T. 948 58 13 91	IRACHE %100eko DESKONTUA Beila-gelaren erabileran *Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitateko txartela fisikoki aurkeztu beharko dute. Santiago, 52 ELIZONDO T. 948 63 74 04 T. 948 19 70 70		

Musikoterapia haurdunaldian tailerra hastear

Ortziraleetan bilduko dira 10:00etatik 11:30era bitarte Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Haizea Loiraren eskutik, haurdun daudenendako musikoterapia tailerra izanen da apirilaren 23tik ekainaren 11ra Elizondon. Arizkunenea kultur etxeko dantza gelan izanen dira saioak ortziraletan 10:00etatik 11:30era bitarte.



Haizea Loira.

Helburuak eta izen-ematea

Haurdun daudeneng ongizatea lortzeko, haurdunaren garapena laguntzeko eta bien arteko lotura sendotzeko tailerra izanen da eta segurtasun eta

babes neurri guztiak betez emanen dute. Parte hartu nahi dutenek izena emateko edo zalantzak argitzeko 655 74 76 95 telefonora deitu dezakete.

Arizkun Rock jaialdiaren kartela aurkeztu dute

Arizkun Rock elkarteak ekainaren 19an izanen den jaialdia aitzinera ateratzeko buru-belarri ari da lanean. Hainbat azokatan eta webgunean materiala salgai paratzeaz gainera, aurtengo edizioa iragarriko duen kartela ere aurkeztu dute apirillean.

Amaia Apalauzaren liburu-aurkezpena apirilaren 23an

Erabili goldea hilen hezurren gainetik liburu aurkeztuko dute apirilaren 23an, ortziraletan, Elizondon. Olga Tokarczuk idazleak idatzitako liburuen itzulpenaz ariko da Amaia Apalauza Arizkunenea kultur etxean. 19:00etan dute hitzordua.



GARAZI SAROBE

Alokairu gehiago eskatu dituzte

Baztanen Bizi Nahi Dugu plataformak deituta, alokairu gehiago eskatuz protesta egin zuten hainbat gaztek apirilaren 2an Elizondoko karriketan barna. Mozorroak soinean, bertzeak bertze, «alokairu duina» eta «turista izan behar da Baztanen bizitzeko?» mezuak luzatu zituzten.



UTZITAKOA

80 txirrindularik hasi dute denboraldia

Baztandarra Txirrindulari Taldeko 80 txirrindularik hurrengo denboraldiari hasiera eman diote. Kadeteetan ari diren borts lagunak, gainera, urte dezentez entrenatzen aritu ondotik, lasterketarako pausoa eman dute. Villatuertan izan zuten lehenbiziko proba eta «arras ongi» ibili ziren.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBATE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---



Aroztegiko lanen kontra bildu dira herritarrek.

Aroztegiko obra geldiarazi nahi dute hainbat herritarrek

Baztandar, nafar eta euskaldun guztiei mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diete

TTIPI-TTAPA

Apiril hasieran Lekarozko Aroztegia eremuan eskabadorarekin eta motozerrekin lanean hasi zirela ikusita, ekintzaile talde bat bildu eta obrak geldiarazteko deialdiak egin dituzte.

Apirilaren 7an egin zuten «proiektu txikitzaile horren kontrako» lehenbiziko hitzordua. Ondotik, hilaren 8an eta 9an Aroztegia ingurura jo zuten obrak geldiaraztera «proiektu gure hizkuntza, kultura eta bizimodua desagertzeko helburuarekin» egin nahi dutela iritzita. Guardia Zibilek eta Foruzainek identifikatu arren, obrak gelditzen segituko zutela adierazi zuten.

Herriaren eta tokiko instituzioen hitzari entzungor

Talde ekintzaileak, prentsa ohar bidez nabarmendu duenez, «Lekarozko herriak, Baztan osoak eta Nafarroako hainbat eragilek adierazi dugu behin eta berriz pelotazo urbanistiko honen kontra gaudela».

Talde ekintzaileak Nafarroako Gobernuak «proiektu hau UGPSa bezala bideratzea» ez

du begi onez ikusten: «modu zikin eta inposatzailean egin da iruzurra helburu duten enpresen mesederako eta enpresari herri lurak eta nekazaritzako lurak desjabetzeko eskumena eman diote, herritarren eta tokiko instituzioen erabakitze eskubidea urratuz».

Behin eta berriz nabarmendu dute herritarren nahiak ez dituztela kontuan hartu: «Gobernuaren egon diren alderdi guztiek bultzatu duten bidegabekeria horrek herriak eta landa eremua etengabe eraso egiten die».

Parte hartzeko deia

Horren aitzinean «herriaren eta bizimoduaren defentsan esku hartzea bertzerik ez» dutela uste dute. Babes eske jo dute eta herritarrei mobilizazioetara jotzeko deia egin diete: «baztandar, nafar eta euskaldun guziak deitzen ditugu hurrengo egunetan gure lurra, hizkuntza, kultura eta bizimoduaren alde eginen ditugun mobilizazioetan parte hartzera. Inposizioaren aitzinean desobedientzia!».



UTZITAKOA

Kultur Egunak Lanbide Eskolan

Martxoaren 29tik 31ra Kultur Egunak izan zituzten Elizondoko Lanbide Eskolan. Lehenbiziko egunean, ikasleek, Maialen, Kattalin, Joanes eta Iratiren eskutik, kontzertu berezi batez gozatu zuten; bigarrenetan 'herrian bizi eta lan' mahai-ingurua izan zuten; eta hirugarrenean mendira joan ziren.

Desbrozatzaren aritzeko traktore gidaria behar dute

Baztango Udalak desbrozatzaren aritzeko traktore gidaria behar duela iragarri du. Interesa dutenek 948 58 00 06 telefonora deituz xehetasunak jaso ditzakete. Izena emateko hondarrek eguna apirilaren 28a, heldu den asteazkena, izanen da eta eskaerak udal bulegoetan aurkeztu beharko dituzte. Udaletxera joan aitzinetik, deitu eta ordua hartu beharko dute. Gogoratu behar da gan den urtean traktorean paratzen den sasiak mozteko beso berria erosi ziola udalak Sansiñenari.

Izpegiko igoera maiatzaren 22an Erratzun

Maiatzaren 22an, laugarren-larunbatean, Izpegiko Igoeraren hirugarren edizioa izanen dute Erratzun. Motorzaleak ibiltzeko 13:00etan bidea itxiko dute eta 14:30ean hasiko da igoera. Iaz Azpeitiko XXXVIII. Urrakiko Igoeran hil zen Iñaki Irigoien Txapu pilotua oroitu dute, aitzineko bi edizioetan parte-hartzaileen artean izan zena. Antolatzaileak gogotik egin dute lan eta «gauza okertzen ez bada» lasterketa honetaz gozatzeko aukera izanen dutelakoan daude.

inelsa
ZENER
ascensores
igogailuak

Igogailuen
instalazioak.

Multimarka
mantentze-lanak
eta erreformak.

T. 948 232 400

www.inelsazener.com

Lorea Lizarreta da ikasketa akaberako bekaren onuraduna

Esneki bat diseinatuko du eta haren elaborazio prozesua, merkaturatzea eta salmentaren alderdiak bilduko ditu

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala Baztango Udalak bailararekin zerikusia duten ikasketa akaberako lanak eta proiektuak diruz laguntzeko deialdia egin du. Aurten bi proiektu aurkeztu dira deialdirat, baina epaimahaiak horietako bat baztertu du oinarriak betetzen ez zituelako, hortaz, onuradun bakarra izanen da, Lorea Lizarreta Intsausti erratzuarra.

Elikagaien Prozesu eta Produktuen Berrikuntzan gradua egiten ari da Lizarreta, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Lana aurkeztu ondotik 500 euroko saria jasoko du. Lizarretak aurkeztutako proposamenaren Jauregia esnekietako postretarako esneki bat diseinatuko du. Proiektuaren emaitza txosten bat izanen da, ekoizpen berri horren formulazioa, elaborazio prozesua, merkaturatzea eta salmenta bilduko dituen. Gainera, produktu berria teknikoki eta ekonomikoki bideragarria ote den aztertuko du.

Txosten hori egiteko merkatuaren azterketa egingen du,

produktuaren definizioa, diseinu esperimentalak, emaitzen azterketa, kostuen estimazioa eta produktuaren beraren behin betiko aurkezpenean.

Epaimahia Lekaroz ikastetxe eta Elizondoko lanbide heziketa ikastetxe zuzendariek, Cederna-Garalurreko teknikariak eta Baztango alkateak osatu dute.

Sei laguntza eman dituzte

2016an lehen aldiz deialdia egin zenetik zortzi laguntza eman dituzte eta Baztanekin zerikusia duten lan hauek egin dira: turismoa Baztanen, XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxeen tipologia, mutil-dantzak eta emaztekien parte hartzea, Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa, Amaiurko euskararen bereiztasunen azterketa, emakume etorkinen egoerari buruzko lana, Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. menderat; Baztango turismoa iraunkorra al da? eta XVIII. mendetik aitzinera bailarako auzokide izateko irizpideak nola aldatu ziren aztertzen duen lana.



JM ONDIKOL

Baztan Ikastolaren erakusketa zabalik

Baztan Ikastolaren 50. urteurreneko ospakizunen barnean, ikastetxearen ibilbidea laburbiltzen duen argazki erakusketa inauguratu zuten apirilaren 10ean. Hilaren 25a arte ikusgai izanen da. Horrez gain, CD-DVD bat grabatzen ari dira eta ikasturtea akitu baino lehen prest izanen dute.



UTZITAKOA

Bailableak Elizondon

Hilabetero bezala, bigarren igandean, apirilaren 11n, Baztango Dantzari eta Elizondoko Gaiteroen eskutik, Bailableak izan zituzten Elizondon. Plazan egitekoa zuten hitzordua frontoira lekualdatu zuten eguraldiarengatik eta, segurtasun neurri guztiak betez, gorputzak mugitu zituzten bertaratutakoek.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
 Jarrai gaitzazu!
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Sendabelarren ikastaroa apiriletik maiatzera

Ortzirale arratsaldetan bilduko dira 16:00etatik 20:00etara Arizkunenea kultur etxean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak antolatuta, sendabelarrei buruzko ikastaroa izanen dute apirilaren 23tik ekainaren 11ra bitarte Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Parte-hartzaileak ortzirale arratsaldetan, lau orduz, 16:00etatik 20:00etara, bilduko dira.

Ikastaroan izena emateko erroldatuek 121 euro eta bailaran erroldatuak ez direnek 153 ordaindu beharko dituzte. Prezio horren barrenean matrikula eta materiala sartuko zaie. Fitoterapiari espe-



Laura Gurbindo.

zializatua den Laura Gurbindo naturopata, formakuntzetan esperientzia handia duena, izanen dute gidari.

Errugbi taldeak denboraldiko kirol ekintzak bertan behera uztea erabaki du

TTIPI-TTAPA

Baztan Rugby Taldeak, pandemia dela eta, errugbian segurtasunez aritzeko neurriak bermatzea ezinezko zaiela adierazi du prentsa-ohar batean.

Nahiz eta gomendatutako neurri guztiak bete eta errespetatu (aldagelak ez erabili, materiala ez elkarbanatu, materiala desinfektatu...), taldekideak kontaktu zuzenean egoten direla erran du elkarrekin, kontaktuko taldekirol batean ez direlako distantziak errespetatzen eta ez daukatelako babesik.

UDAN HURRENGO DENBORALDIARI BEGIRA HASI NAHI DUTE

Hau ez dute bateragarria ikusten gaur egungo egoerarekin, koronabirus kasu bat izanez gero 25 laguneko taldea konfinatu beharko zutelako. Hortaz, jokalariei, entrenatzaileei, haurrei eta familiei segurtasuna bermatzeko, 2020/21 denboraldiko kirol ekintzak alde batera uztea erabaki dute.

«Azpiegitura sendoa» eraiki nahian

Gainera, euren errugbi taldeak azpiegitura eskasak dituela gehitu dute, ezin dute protokolorik aitzinera atera eta pandemiaren ondorioak ere nabariak dira taldekideengan.

Horregatik guztiagatik, azpiegitura sendoa eraiki nahi dute hurrengo denboraldiari begira udan martxan jarri ahal izateko.

Beatriz

ongizate zentroa
centro de bienestar

GIZON - EMAKUME

Beatriz ONGIZATEA gure zentroan sortua eta **KLINIKOKI PROBATUA, SARITUA eta PATENTATUA** da, 30 urteko esperientziarekin.

Sistema **AZKARRA, NATURALA, BIOLOGIKOA eta MINIK GABEKOA** da, eta emaitzak lehen saiotik ditu. Koipea edo bolumena murrizten du, likidoak kentzen ditu, eta zirkulazioa erregulatzen du, larruazala eta muskuluak sendotuz.

Murriztu **DENBORA, SAIOAK** eta bonu ekonomikoak.

Azterketa pertsonalizatua dohainik.

Santiago, 53 - 31700 Elizondo - Tel. 948 580 283
info@beatrizbienestar.com - www.beatrizbienestar.com

SAIO BATEKIN TALLA BAT KENDU DUTENAK



ZORTZI SAIOREKIN BI TALLA ETA ERDI KENDU DUTENAK



Erdizi buruzko galdeketa egingen du Batzar Nagusiak

Erabakiaren alde 27 batzarkidek egin zuten, Almandozko alkatea abstenitu zen eta Navarra Sumak ez zuen parte hartu

TTIPI-TTAPA

Magnak Erdizen egin nahi duen harrobiari buruz herri galdeketa egiteko erabakia hartu zuen Batzar Nagusiak apirilaren 6ko bilkuran eta, horretarako, beharrezkoa den ibilbide-orria finkatzeko batzordearen sorrera izendatu zuen. Batzordea osatuko dutenak Joseba Otondo Bikondoa, Xabier Torres Letona, Joseba Moreno Bidegain, Iñigo Iturralde Elizetxe, Pello Iriarte Zelaieta, Pello Obregozo, Miguel Etxandi Irigoien eta Iban Larratxea dira.

Erabaki horretan galdeketa egin ahal izateko egoki ikusten den eragileekin biltzea ere onartu zuten eta Baztango herri-lurrei buruz erabakitze-ko eskubidearen defentsa sendoa egitea. Erabakiaren alde 27 batzarkidek egin zuten; Almandozko alkatea abstenitu zen eta Navarra Sumak bozketan ez parte hartzea erabaki zuen.

Eztabaida sozial handiko afera Baztangoiza, Elizondo, Erberrea eta Basaburuko batzarkideek aurkeztutako idatzian afera honek aurten egin duen bidearen laburpen bat egin zuten. Honela, urtarilaren 25ean Rouiller talde multinazionalarena den Magna enpresak Baztango Batzar Nagusiko kideen aitzinean meategiaren egitasmoa aurkeztu zuen, bereziki bazken inguruan zuen proposamena. Ondotik, otsailaren 25eko osoko bilkuran, Baztango udalbatzak Magnaren eskari berriaz erabakia hartu zuen, Magna laguntzeko nekazariekin egin



Erdiz Bizirik elkarretaratzea, iaz.

nahi duen bileraren antolaketa.

Aitzinetik, orain hamar urte inguru, eztabaida sozial handia izan zen Baztanen Erdizko herri-bazkalekuan Magnak egin nahi zuen meategiaren egitasmoari buruz.

Horiek denak ikusita, «Erdizkoak herri-bazkalekuak direla eta gaiak baztandarren artean pizten duen kezka bizia modu demokratiko eta gardenean kudeatu ahal izateko, ibilbide-orria finkatzea beharrezkoa» dela diote eta, hori, «Baztango herri-lurren kudeatzailea den heinean, Baztango Batzar Nagusiari dagokio».

Horrela, ibilbide-orriaren norabidea, «proiektuari buruzko herri-galdeketa loteslea» behar lukeela izan uste dute. Eta horren arabera informazio eta eztabaida sozialerako egitaraua antolatu beharko litzaiteke. Baztango Batzar Nagusiaren gidaritzapean eragileei parte hartzeko aukera eskaini nahi zaie.

IBILBIDE-ORRIA FINKATZEKO BATZORDEA ERE IZENDATU DUTE



ALBARO SOULE

Auzolana Arizkun eta Bozaten

Arizkun eta Bozaten auzolanean aritu ziren apirilaren 10ean. Herriko karrikak garbitzen ibili ziren, baita Bozateko pistak eta bide-bazterrak garbitzen ere. Aski txukun utzi zituzten inguruak eta, nola ez, hamaiketako batekin akitu zuten. Auzolanaren ohitura indartsu mantentzen denaren seinale!

Nafarroako Gobernuak ordezkariak herriko afera berri izan DUTE

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak ordezkariekin martxoaren 30ean egindako bilkuran alkateak zenbait gairen berri eman zien. Tartean, Aroztegiari eta Erdizi buruz aritu zitzaion Joseba Otondo.

Aritzakun eta Urritzateko bideen egoera

Auzo horietarat joateko 21 km bide dira, zabor legarrezkoak. Aritzakungo kasuan osasungintzako langileak harat joan behar izaten dutelarik suhiltzaileen jeepetan joan behar izaten dute; artzainen esnea Intzulegiko leporat atera behar izaten dute, esne-bilketaria ez delako jaisten. Alkateak Txibite lehendakariari eta Ziriza, Lurralde-kohesioko kontseilariari Aritzakun bisitatzeko gonbidapena egin zien, bidea nola dagoen ikusteko. Zirizak baiezkua eman zuen.

Tokiko finantziario sistema

Lurraldearen handitasuna kontuan hartzen duen finantziario sistema eskatu zuen alkateak. Aldi berean EAEko

tokiko finantziario sistema Nafarroan ezartzea eskatu zuen, herrialde horietan foru aldundien diru-sarreraren portzentaje handiagoa ematen baitute udalendako, horrela udalen autonomia indartuz.

Aroztegia eta Erdiz

Aroztegiaren gobernuak izan duen ardura salatu zuen, Udalez Gaiarikoa den Plan Sektorial bezala tramitatu zelako, Baztango erakundearen ahalmena errespetatu gabe. Erdizen Baztango erakundearen ahalmena errespetatzeko eskatu zuen, herri-lurra direlako, eta «gaia parte-hartzean eta demokrazian sakonduz bideratzeko, ez inposizioaren bidez».

Zahar etxearen zaharberritzea

Zahar etxea berritzeko proiektuaren idazketa aurten egingen dela erran zien, eta horren arabera lanak ondotik hasi beharko lirakeela. Egindako memoriaren arabera berritzea 7 milioi euro ingurukoa izaten ahal da eta gobenuaren inplikazioa eskatu zuen.



Joan den urtean Liburuaren Egunaren bigarren edizioa izan zuten Anizen.

Liburuaren Eguna izanen dute Anizen ortziralean

Ilunabarrean haurrek egindako sormen lanak aditu ahal izanen dira herriko frontoian

MAITANE MARITORENA

Ortzirale honetan, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Egunean, Liburuaren Eguna ospatuko dute Anizen. Aurtengo ekitaldiek ez du deus ikustekorik izanen orain artio egin direnekin.

Eguna antolatzen hasteko, alkateak haurrekin bilera dei-

tua zuen. Apirilaren 12an ekitaldiaren nondik norakoak lotzeko eta sormen lana nola egin azaltzeko biltzekoak ziren.

Ondotik, hilaren 23an, ortzirale ilunabarrean, herriko frontoian haurrek egindako sormen lanak aditu ahal izanen dira.



JM ONDIKOL

Cigaren margolana Elizondoko arkupean

El mercado de Elizondo da Javier Ciga margolariaren lan ezagunenetakoa eta herritar baten eskariz, Elizondoko herriko alkate eta kargodunek Ciga Fundazioarekin eta Balleko Etxearekin solastatu ondotik, margolan horren kopia bat Jaime Urrutia karrikako arkupean jarri dute. Originala Iruñeko Udalarena da.



Lekarozko campusaren irudia. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bertiz parkea eta Lekarozko campusa dirulaguntzak jasotzeko hautagai

TTIPI-TTAPA

Koronabirusak utzitako krisiari aurre egiteko dirulaguntza banatu du Europar Batasunak hainbat herrialderen artean. 44 proiektu aurkeztu ditu guztira Maria Txibite Nafarroako Gobernuako presidentek Espainiako Gobernuan.

React-EU programaren barneko dirulaguntzetatik, 148 milioi euro esleitu zaizkio Nafarroari. Txibitek aurkeztutako aurrekontua 141,9 milioi eurokoa da, eta horietatik 105,3 milioi EGEF (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) barnean kokatzen diren ekimenei bideratuta daude. Presidenteak apirilaren 7an, proiektuaren aurkezpenarekin batera, erranzuenek, «Nafarroako Gobernuak zerbitzu publikoak hobetzearen alde, enplegu, digitalizazio eta jasangarritasunaren alde eta hainbat arrazoi direla-eta egoera larriagoan daudenak laguntzearen alde egin du apostu».

Proiektu hauen artean, osasun zerbitzuetarako produktu eta zerbitzuak, herritarrei oinarritzko zerbitzuak emateko azpiegiturretan inbertsioak eta ekonomia digital eta berde baterantzko trantsizioa nabarmendu ditu. Azken sailkapen honetan sartzen dira eskualdeko bi proposamenak.

Lekarozko campusa eta Bertiz Natur Parkea

Alde batetik, ekonomia digitala lortzeko inbertsioaren barnean, Lekarozko campuseko eliza prestatu eta dinamizatu nahi dute, digitalizatu. Coworking espazioa bihurtu nahi dute, hau da, hainbat enpresak elkarrean lan egiteko espazioa, ikerketa, formakuntza eta dibulgazioa helburu dituen. Horretarako, proiektura 1,2 milioi euro bideratzea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak. Bertizalde, ekonomia berdeagoa lortzeko inbertsioen artean, Bertiz Natur Parkeko ondare kulturalaren berriztapena dago. Proiektu honi 1,4 milioi euroko dirulaguntza esleitu diote aurrekontuan.

React-EU funtsa europar lurraldeen kohesioa eta suspertzea lortzeko

Europar Batasunak pandemiak eragindako krisiaren ondorioz sortutako dirulaguntza da *React-EU* funtsa, europar lurraldeen suspertzea eta kohesioa duena helburu. 55.000 milioi euroko dirulaguntza eskainiko du guztira eta EGEF (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa), EGF (Europako Gizarte Funtsa) eta FEAD (Pertsona ahulenentzako Europako Laguntza Funtsa) funtsen artean banatuko dituzte.



Bidea garbitzen aritu zen lan-taldea, lanera lotu baino lehen. MARIFA ETA KORO

Jende multzoa bildu da apirilaren 1eko haitadan

Beskorretik abiatu eta Arleun aldetik Sansinean agertzen den bidea garbitu dute hogeitabat lagunek

MARIFA ETA KORO

Apirilaren 1ean haitada bat egiteko jende multzo polita elkartu zen. Gan den urtean Ainara eta Ibaineta tarteko bidea garbitu zuten, eta aurten Beskorretik abiatu eta Arleun aldetik Sansinean agertzen den bidea garbitu dute.

Denbora batez bide garrantzitsua izan zen hau, Urdazubirat gateko erabiltzen baitzen, baino aspalditik utzia zenez, larrek jana zuten.

Atxuria mendi taldeak deia eginez 20 bat lagun elkartu ziren, eta sari bezala Akelarre elkarteak gosaria eskaini zien.

Xaretako hiztegia

- **Erlastuta egon:** Gaizki ahozkatzea, zintzurrean traba edo mina izateagatik
- **Galtxak:** Bragak. Kuleroak
- **Gakoa:** Giltza (atea edekitzeko burdintresna)
- **Ganbara:** Kuartoa. Logela
- **Ganibeta:** Labana.

Egun berean hiru lurperatze kanposantuan

Martxoaren 31n gertatutakoa, ez da seguraski gerla denboran ere gertatu izanen herrian: egun berean hiru lagun lurperatzea kanposantuan. Etxorgaiko-bordako Rita Lahurnagarai, Teletxeko Julia Barberena eta Lekuberriko Juanjo Elgorriago ez ziren Zugarramurdin bizi eta kanpoan hil ziren, baina herrian daukaten beren “bigarren bizitokian” pausatuta daude orain.

Hondakinak ongi bereizteko larrialdiko deia

Gurean ere komeriak ditugu zabor bilketan. Azolagabeke-ria haundia omen dugu eta maiz edozein maneratan eta nahasiak botatzen ditugu. Hori dela eta, bilketa lanak egiten dituen Bizi Garbi zerbitzuak jakinarazi du horrela segituz gero, ez duela gure hondakinak biltzen segituko. Beraz, aferra larria da, eta hondakinak behar den bezala bereizita botatzea eskatu du Herriko Etxeak.



Lana gogotik egin ondotik bidea txukun utzi zuten. MARIFA ETA KORO



Eta lana egin ondotik, gosaria eskaini zien Akelarre elkarteak. MARIFA ETA KORO

'Osasuna hobetzeko arnastu' solasaldia eman dute

Ugarana emakumeen elkarteak antolatu zuen ortziralean kultur etxean, Ukitzen eta Neuro HTS elkarten eskutik

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den apirilaren 16an osasuna hobetzeko arnasketak duen garrantzia azaltzeko hitzaldia eman zuten kultur etxean. Ugarana emakumeen elkartearen bidez, Ukitzen eta Neuro HTS elkarteek eman zuten hitzaldia. Edukiera mu-

gatuia izan zenez, izena emateko epea zabaldu zen apirilaren 14a arte. Bazkideek 25 euro ordaindu behar izan zuten eta bazkide ez direnek 40 euro. Jende andana bildu zen egungo egoeran bereziki interesgarri suertatu zen hitzaldi honetara.

Aste Saindu berezi honetan ere hainbat bisitari erakarri ditu herriak

ARANTXA ETA IRAIA

Bizi dugun egoera dela eta, Aste Saindu hau desberdina izan zen, halabeharrez. Hala ere, hainbat turistek gure herrira hurbiltzeko hautua egin zuten eta sumatu egin zen, herriko ostatuetan ez ezik, hainbat lekutan jendea ibili

baitzen han eta hemen. Urdazubiko lezeetan, aforoa kontuan hartuta, jende dezentet ibili zen, baita Trikuharri animalien zentroan ere. Bertan, animaliez gozatzeaz gain, magia ikuskizunak ere eskaini zituzten, helduen eta haurren gozamenerako.



ARANTXA ETA IRAIA

Dantxarinea berriro ere hustu da

Aste Sainduan Dantxarinea beteta eta mugimenduarekin ikusi bagenuen ere, Iparraldean ezarritako neurri berriek Dantxarinea berriro ere hutsa ikustea eragin dute. Iparraldeko jendea ezin denez 10 kilometro baino urrunagoratu mugitu, Dantxarineko bezero anitz ezin izan dira berriz ere benten auzorat pasatu.

TTIPI-TTAParen eta ERRAN.EUSen

laguna izan nahi dut!

- 1 Bertako informazioa eduki nahi dudalako.
- 2 Euskaraz bizitzen lagunduko didalako.
- 3 Gure lurraldean hedabide euskaldunak behar ditugula uste dudalako.
- 4 Tratu zuzen eta hurbilekoa eskaintzen didalako.
- 5 Nire aportazio ttiki batekin TTIPI-TTAParen eta ERRAN.EUSen iraupena segurtatzen dudalako.



→ erran.eus/bazkidetu
T. 948 63 54 58



Ttipi Txartelarekin
abantaila handiak;
deskontuak eta zozketak

MEKNari esker nire donazioak
%80ko desgrabazioa duelako
Errentaren Aitorpenean



 **ttipi-ttapa**

 **erran.eus**



Korrika tiki egin zuten herriko talde eta elkarteek apirilaren 10ean.

AEK sustengatzeko Korrika Ttikia egin dute herrian

Apirilaren 10ean antolatu zuten gazteek eta herriko hainbat talde eta elkarteek parte hartu zuten, eguraldi ederra lagun

GANEX

Apirilaren 10ean, larunbatean, Sarako gazteek AEK sustengatzeko euskararen alde korrika egin zuten, Korrika Ttikia antolatuz. Gazteekin batera, pilota elkarteak, dantza taldeak, ikastolak, errugbi taldeak, gaztetxeak, Har hitza elkarteak, Usopopek, Sara Korrikak eta

Erlauntzak egin zuten Sarako itzulia. Giro ederra izan zuten lasterka ibiltzeko euskararen alde: herriko plazatik abiatuta Sanpedro ingururat jo zuten eta Argango zubitik Pikassaria alde egin zuten. Ez zen prezio jakinik, bakoitzak nahi zuena eman zezakeen kutxan eta jende ainitz bildu zuten.

Horrela ikusten da Saran ere euskara maite dugula eta agian ainitz urtez, esperantzarekin heldu den urtean Korrika izanen dela usaian bezala, eskerak aurtengoaren antolatzaileei.

Zangoak arin

Pandemiarengatik aktibitateak jautsi behar izan ditu Zangoak arin elkarteak. Bakar-bakarrik ibiladiak mantendu ditu, eta sei lagun elgarrekin ibiltzen ahal dira bakarrik gidari bantentzat. Jende gehiago baldin bada, izaten ahal dira bi edo hiru gidari, biltzen diren jende kopuruaren arabera. Bil-kura horiek astearte arratsaldetan eta ortzegun egun guziz egiten dituzte.

Bistan dena, gaur egungo egoerarekin, ez direla herri- hamar kilometro baino urunago joaten ahal, baina herri- tik sobera mugitu gabe ere bada ibilbide frango hamar kilometroko muga horren barranean ere. Beraz, denak kontent dira, bai taldeko buruzagiak baita ibiltzaileak ere. Suerte on denei eta ea bada, agudo osasunarendako kezkarik gabe eta mugarik gabe harat-honat ibiltzeko aukera duten.

PAC laguntzak galdegiterakoan ingurumen neurriak kontuan

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, urte bateko ingurumen neurriak (MAEC) hartzen ahal dituzte laborariekin beren PAC laguntzak galdegiterakoan, Ipar Euskal Herriko Natura 2000 guneetan. Euskal Herriko Laborantza Ganbara MAEC horien animazioaz arduratzen da, Uhaitza, Errobi, Artzamendi eta Mondarain guneetan, baita gure inguruko bi gune berritan, Larrun-Xoldokogaina eta Lizarietako lepoa, alde batetik, eta Urdazuri inguruan, bertzetik.

Larrun-Xoldokogaina eta Lizarietako lepoa

- Artzainen kudeaketa hobetzea, 75,44 euro hektarea bakoitzeko
- Iratze-sega tradizionala 95,42 euro/ha
- Iratzearen goiz-moztea 170,86 euro/ha
- Artzainen kudeaketa hobetzea eta irekia mantentzea 170,86 euro/ha
- Tratamendu herbizidarik eza euro 139,08 /ha
- Tratamendu fitosanitario eza 282,04 euro/ha
- Belar-estalki bat sortu eta mantentzea (antzina, laboreak belardi bihurtzea) 304 euro/ha

Urdazuri

- Belai nabarmenak mantentzea 353 euro/ha
- Lorediaren aberastasunari eustea 66 euro/ha
- Ripisilveen mantentze-lanak 1,5 euro metro lineal bakoitzeko
- Tratamendu herbizidarik eza 139,08 euro/ha
- Tratamendu fitosanitario eza 282,04 euro/ha.


Neurrietaz xehetasunak ikusgai daude www.ehlgbai.org gunean edo zuzenean EHLGko teknikariei deituz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oraingoz jokaturako partida guztiak irabazi dituzte basurdeek

Sarako Izarra errugbi taldea, Sarako Basurdeak alegia, izigarri ongi ari dira aurten, orain arte jokatu dituzten partida guztiak irabazi baitituzte. Eta hori dena herri- kanpoan jokatzeko ari direla, zeren eta hemen, Animainean, ez dira aritzen ahal, ez dakite noiz arte, agian fite. Orduan izanen dituzte partida ainitz etxean jokatzeko. Irudia apirilaren 10eko partidakoa da. Hernanin aritu ziren Bizkaiko Gernika Rugby Taldearen kontra eta saratarrek irabazi zuten, 42-21.



Julen Madariaga apirilaren 6an hil zen.

Julen Madariaga eta Marie Jeanne Lopez pausatu dira

Apirilaren 10ean antolatu zuten gazteek eta herriko hainbat talde eta elkartek parte hartu zuten, eguraldi ederra lagun

JEAN LOUS BESSONART

Apiril hasieran bi heriotzek hunkitu dute herria. Alde batetik, Marie Jeanne Lopez, sortzez Iribarren, Urkoin sortua duela 57 urte. Edouard bere senarrarekin eraikia zuen beren ohantzea Larrondoa etxaldearen saihetsean. Hiru haurreko familia osatua zuten eta ondorioz haur ttipiak, Antonek, bazterrek poztu zituen. Maixanek haurrak hazi ondokik Lafourcade klinikan 10 urtez lan egin zuen, haatik

azken urte hauetan minbizi baten menpe borrokan ari izanik, honek azken hitza ukan du zoritxarrez. Bertze heriotzak Julen Madariaga jo du 88 urterekin, honen ibilbidea Senpereko mugetatik kanpo ongi ezaguna da eta hedabideek xehetasunak aztertu dituzte honi buruz. Aipa dezagun, halere, abokata zelarik ETaren sortzaile bat izan zela 50. hamarkadan Frankismo bortitz garai betean, haatik zombait urte geroxago erakunde ho-

netatik urrunduz, salaturik horren bortizkeria. Herrian ongi ezagutu dugu ikastolako buraso gisa, baita euskal kultur ekitaldietan partehartzailerik suhar. Gizon laketsu, irribartsu eta jendekilako baten irudia uzten digu, Senpererat etorritik geroz aita honek bigarren familia eder bat hazi du Zamaledia etxean, Ainhoako muga. Bi heriotz hauek hunkitzen dituzten familia eta adiskideei, gure dolu agurrak helarazten dizkiegu.

Martxoako sortze eta heriotzak

Hilabete aberatsa izan da zortzi sortze deklaraturekin: Romain Jorajuria Irigoian, Melvin Mondin Hinnerschied Amotz kartierrean, Ezra Moorroven dos Santos Herrikoa bizitegian, Ava Griffon Le Fustec Oihan bideakarrizan, Oihan Etchegaray Uhaldekobordako bidean, Naina Chagnaud Desablons Gaztaibideko karrika itsuan, Tylian Le Dormeur Gomez Igel karrizan eta Mila Plana Verite Dufau lotizamen duan. Ohartzekoa da euskaldun deiturak ttipitzen ari direla herrian, dena den, ongi-etorria merezi dute eta zorionak hauen burasoeri. Heriotzeen aldetik bi seinatuak: Poulet Philippe 58 urterekin eta Pierre Delame 76 urterekin. Penetan gelditzen diren senide eta adiskideei dolumin bizenak.

Herriz herri, 30 Herri Urrats Ttiki eginen dituzte maiatzaren 9an

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtea da pandemiak Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen besta baldintzatzen duela. Ospatu gabe egon ezinik, 30 Herri Urrats Ttiki antolatzea erabaki du Seaskak. Maiatzaren 9an ospatuko dute hainbat herritan, ikastola bakoitzak bere egitaraua prestatuko baitu. *Boga* lelopean eginen dute aurten go aldia. Seaskak Ipar Euskal Herrian dituen lau kolegioak «gainezka» dira, eta, beraz, bosgarren kolegioa diruztatzeke baliatuko dituzte aurten go Herri Urrats Ttiki ekinbideak. Euskaltzale oro deitu dute Herri Urratsen aldeko «keinu» bat egitera maiatzaren 9an. Ikastola bakoitzak hainbat aukera izanen ditu egitaraua prestatzeko, betiere segurtasun neurriak errespetatuz. Jantzi eta janari salmentak, edota ateraldi txikiak antolatzen ahalko dituzte; ikastola bakoitzak emanen du bere egitarauaren berri.

Bertzalde, *Boga* diru biltzaile kanpainarekin segitzen du Seaskak. Urtarrilean abiatu zuten, usaiako diru sartzeak pandemiarengatik arrunt apaldu baitira. Helburua 300.000 euro biltzea da, eta, oraingoz, 45.000 euro lortu dituzte. Aurten go diru biltzarekin bosgarren kolegio bat eraikitzeke proiektua eraman nahi du Seaskak.

38. ikastola Bardozen

Irailetik goiti, Bardozen (Nafarroa Beherea) ikastola bat zabalduko dute. Xarnegu eremuko haurrak hartzeko izanen da, eta, oraingoz, lau haurrekin abiatzekoa da proiektua. Seaskak Ipar Euskal Herrian duen 38. ikastola izanen da, eta Euskal Herriko Ikastolen 112.a.

70 urtez goitikoak eta bertzelako arazoak dituzten 70 lagun txertatu dituzte Larrekon apirilaren 9an

JL BESSONART

Apirilaren 9an, ortziralearekin, Larreko kultur gunean 70 txertaketa egin zituzten Pfizer delakoarekin, hauetan ziren 70 urtez goitikoak edo osagarri arazoak dituztenak.

Jakin behar da, Donibane Lohitzuneko zentroak kudeatzen duela ekimen hori eta horrela deslokalizatuz, jen-

dearengana hurbiltze hori ongi preziatua dela. Ainitzek izen-ematea herriko etxean bertan egin zuten, hola galdegileen kopurua heineko batean delarik, hurbiltzea proposatzen dute.

Bide onetik gabilta, txertaketaren bitartez menpera behar genezake izurrite madarikatu hori.





Moda gehigarria 2021

ILE-APAINDEGIAK



Betiko orrazkerak udaberriko ukitu fresko eta berriarekin

20 urte gibelerat

Udaberriarekin ileko plantxa ateratzeko garaia ailegatu da, 2000ko hamarkadako ile luze eta arras lisoa bueltatu baita. Ilea inoiz baino gehiago zaintzea komeni da horrelako orrazkerarekin, puntak ireki eta kizkurtzea ekiditeko.

Kopeta-ilearekin edo gabe, orrazkera honek aukera aunitz ematen dizkizu. Marra markatuta eramanez eta ilearen luzerarekin jo lastuz hainbat estilo lor ditzakezu.



Bob orrazkera bueltan da

Ile motzagoarekin ere proba dezakezu ile luzeak aspertu bazaitu, *bob* estiloko orrazkerak ere aunitz ikusiko baitira aurten. Ilea gibeletik motzagoa eta aitzinetik luzeagoa edukitzea du bereizgarri orrazkera honek. Ilea kokotseraino moztu dezakezu, eta ausarteanak masailerainoko adatsarekin proba dezakete. Aurpegia markoztatu eta nabarmentzeko aproposa da orrazkera hau.

2021eko *bob* orrazkerak arras estilo zehatza izanen du; ondultua eta naturala. Ez da gehiegikeriarik bilatuko; orrazkerak desgindako itxura hartzen badu, hobe.

Orrazkera berdinak ukitu desberdinekin

Gizonezkoetan, aldeak kaskamotz izanen dira nagusi bertze behin, baina goialdea ohi baño luzeagoa. Marra alde batera egitea eta arras markatua izatea ere gakoa izanen da.

Hipster itxura ere itzuliko da aurten, ile luzea daukatenentzat aproposa. Ilea motots ttiki edo koleta batean biltzea aski izanen da. Orrazkera sinple eta eroso da, minutu batean egin dezakezuna.

***Ilea luze edo motz,
denentzako aukerak
izanen ditugu aurten
ile-apaindegietan***

TXOKOA

Ile-apaindegia

Estitxu Mikelperizena

644 94 11 55⁹

Pedro M^a Hualde, 38 behea | 31730 Irurita

A photograph of two women standing outdoors against a light-colored wall. The woman on the left is older with grey hair, wearing a short-sleeved top with a vibrant pattern of pink, green, and red birds on a white background, paired with white trousers. The woman on the right is younger with brown hair, wearing a long-sleeved dress with a similar bird pattern on a dark background. Both items feature a V-neckline.

UDABERRIAREN KOLOREAK

WWW.VENTABIOK.COM

BIOK

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE - IRUN



ONLINE ERE BAI

Nork erran du ongi janztea eta erosotasuna ez datozenik bat?

Pandemiaren ondorioak

Koronabirusa dela eta, egin ahal izan ez ditugun besta guztiak irudikatuko dira denboraldi honetako jantzietan. Parpailak eta lentejuelak nagusi izanen dira janzkera eleganteetan, distira emateko. Kolore biziak ere nagusituko dira, horia eta arrosa batez ere. Honez gain, *hippie* estiloa ere bueltan izanen dugu, tindatutako estanpatuak dituzten kamiseta eta soinekoak aukera ona izanen dituzu.

Pandemiak utzi digun bertze ondorio bat etxetik atera ahal ez izatea da, horregatik, erosotasuna da gehien bilatzen duguna; soineko handi eta zabalak eta galtza zabalak aunitz ikusiko dira ematen duten askatasun eta erosotasunagatik. Janzkera hauek ez dute gehigarri aunitzik eskatzen, sandalia edo botin pare batekin jantzi ditzakezu bohemio itxura lortzeko.

'Look' aldaketa gizonezkoentzat

Armairua berritzeko garaia dugu uda-berria. Naturaren koloreak nagusituko dira gizonezkoen jantzietan (marroia, urdina, berdea...), eta pastel-koloreak ere erabili ditzakezue freskotasuna lortzeko. Guztiz txuriak diren *lookak* ere aukera ona izanen dituzu arropa elegante nahiz kiroletako arropetan, aunitz ikusten hasi baitira.

Honez gain, denboran gibelera joanen gara. Jantzi *retroak* (marradunak batez ere) eta 70eko hamarkadako trajeak (soinburu handikoak, jaka zabalak eta galtza zuzenak dituztenak) itzuliko dira berriz ere, eta ukitu elegante eta modernoa izateko aukera izanen duzu hau.

Haurrentzako freskotasuna

Aurten ere, etxeko gaztetxoentzako erosotasuna da nagusi. Udaberri eta udarako jantzi freskoak (kotoia eta lihoa material nagusien artean) eta erosoak modan izanen dira, haurrak lasai jostatu, lasterka egin eta saltatzeko. *Picasso* estiloa nabarmentzen hasi da; diseinu grafiko dibertigarriak, estanpatu koloretsuak eta kolore biziki kamiseta, galtza motz eta soinekoak.



Pertsonalizatu nahi duzun moduan


kamisetak, jertseak, poltsak, musukoak...



PEIO

MODE

Zatoz Venta Peiora moda ezagutzera



3 POMMES ABSORBA ADIDAS AMERICAN TOURISTER ARMANI EXCHANGE BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CHAMPION COLUMBIA CONVERSE DELSEY DESIGUAL DOCKERS EA7 EASTPAK ELLESSE ESPRIT G-STAR FILA FJALL RAVEN HACKETT HAVAIANAS HELLY HANSEN HILFINGER DENIM IKKS IPANEMA ICEPEAK JACKS&JONES JOMA KAPORAL KAPPA LACOSTE LACOSTE LIVE LAFUMA LEE LEGO WEAR LE TEMPS DES CERISES LEVIS LEVIS KIDS LOLLIPOPS MANGO MERRELL MILLET NAPAPIJRI NEW BALANCE NEW ERA NORTON ODLO ONLY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN REEBOK RIP CURL SAMSONITE SELECTED SKECHERS SUPERDRY SURKANA TEVA THE NORTH FACE TOMMY HILFINGER TRANGOWORLD UMBRO VANS VERO MODA VILA VIOLETA BY MANGO WRANGLER

Landibar Dantxarinea Agus Benta
Arnegui Behobia Ibardin



WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel : +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)



Maite Ruiz de Larramendi eta Iera Agirre leitzarria txapeldun.

Master Cup txapelketa irabazi du Iera Agirrek

Maite Ruiz de Larramendirekin bikote eginez, 22-15 gailendu zitzaizkien Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirreri

TTIPI-TTAPA

Ofizioa eta eskarmentua bai, baina euren kirol ibilbidean aurrerapausoak emateko ere gaitasun ikaragarria eta ilusioa erakutsi zituzten Iera Agirre leitzarria eta Maite Ruiz de Larramendik, Irunen apirilaren 4an jokaturako finalean Olatz Arrizabalagari eta Naroa

Agirreri 22-15 irabazita, eskuz binakako Master Laboral Kutxa 2021eko txapelak jantzita. Iaz, pilotaleku berean, pilota goxoarekin txapeldun izan ziren eta aurten mistoarekin ere bikain moldatzen direla berretsi dute.

Ume-umetatik pilotan zailduak, irabazteko grina eta



Hirugarren posturako lehian gaildu egin zuen Irantzu Etxebeite beratarra.

ilusiorik ez dute galdu Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendik eta euren palmarresa gizontzen segitzen dute. Olatz Arrizabalagak eta Naroa Agirrek euren aldetik, munduko dohain eta denbora guztia dute aitzinetik. Gernikakoak binakako txapela jantzi ezinda segitzen du oraingoz.

Azkenetako gazteek amore eman bazuten ere, txapelketan egon ez den lehiakortasuna eta emozioa izan zituen bi bikote onenak bildu zituen finalak. Lehen zatian, markagailuan berdinketa ugari izan ziren. Gernikarrak erasoan asmatu zuen tarte bat baliatuta, saketik ere mina egin zuen, eta 9-13 aitzineratu ziren bizkaitarra eta gipuzkoarra.

Partidako une aunitzetan joan ere gehiago izan ziren, baina akatsak ere gehiago egin zituzten eta detaile tikieta joan zitzairen finala.

Hirugarren posturako

Hirugarren posturako lehian, Leire Garaik eta Oihana Orbegozok partida borobila jokatu zuten eta podiumeko hirugarren koskara igotzea lortu zuten Irantzu Etxebeite beratarra eta Olatz Ruiz de Larramendiri 18-10 irabazi ondotik. Gorriak 2-0 aurreratu baziren ere, partida erabat urdina izan zuen. Ruiz de Larramendik ez zuen espero zen nagusitasunik izan eta guttitan erakutsi zion bizkarra sendo aritu zen Orbegozori.

Eskualdeko pilotariek ez dute txapelik lortu Espainiako klub arteko txapelketan

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko pilotariak izan ziren Iruñean jokatu ziren Espainiako klub arteko pilota txapelketako azken partidetan, baina ez zuen bakar batek ere txapelik lortu. Halere, finalista izan ziren Julen Retegi eratsundarra buruz buru eta Oian Canabal igantziarra binaka.

Finalerdietako erronkarik zailena Zugarralde klubean ari den Ugaitz Elizalde ituren-darrak zuen, buruz buruko txapelketan. Berriki arte profesional izan den San Cosme taldeko Victor Estebanen kon-

tra aritu zen apirilaren 9an San Juanen eta 2-0 galdu zuen (10-1, 10-2). Markagailuak erakusten duen bezala, erabat nagusitu zen errioxarra. Buruz buruko bertze finalaurrekoan, Irurtzun taldeko Julen Retegi eratsundarrak 2-0 irabazi zion Huarte taldeko Espinali (10-8, 10-6).

Eskuz binakako txapelketa-ko lehen finalerdian, Obere-nako Oian Canabal igantziarra eta Irurita 2-0 irabazi zieten Urbiongo Cabrerizo eta Iturriagari (10-2, 10-7). Bertze finalerdian, Huarteko Laso eta



Oian Canabal igantziarra finalerdietako partidatan.

Beroizek 2-0 irabazi zieten Buruzgaingo Iriarte eta Sarasari (10-5, 10-5).

Gauzak honela, apirilaren 11n Labriten jokatu zituzten finalak eta pronostikoak bete

ziren. Buruz burukoan Victorrek 2-0 irabazi zion Julen Retegiri (10-4, 10-7) eta binakakoan, Laso eta Beroizek ere 2-0 irabazi zieten Canabal eta Iruritari (10-6 eta 10-4).



Uterga eta Barricart txapeldun eta Ezkurra II.a eta Saldias txapeldunorde, antolatzaile eta laguntzaileekin. UTZITAKOA

Uterga eta Barricart txapeldun Iruñerriko lehen txapelketan

Apirilaren 9ko final ikusgarrian 35-31 irabazi zieten Labriten Josetxo Ezkurrari eta Aimar Saldias

TTIPI-TTAPA

Xanti Uterga doneztebarrak eta Barricartek irabazi dute Iruñerriko erremonte profesionaleko lehen txapelketa, apirilaren 9an Labriten jokaturako final ikusgarrian Jose-

txo Ezkurra doneztebarrari eta Aimar Saldias oiztarrari 35-31 irabazi ondotik.

Partida bikaina izan zen, 49 minututan 383 pilotakada eman zituzten. Xanti Utergak egin zuen alde, 25 tanto egin

baitzitu, baina lau erremontistek ikuskizun handia eman zuten. Giblean, Aimar Saldias oiztarrak txapelketa osoan emandako maila eman zuen eta eskuinkada indartsuenak eman zituen. Doneztebeko bi beteranoak ederki ibili ziren, erasoan etengabe, jokaldi ugari eginez eta aunitz asmatuz. Ezkurra II.ak ere 18 tanto egin zituen.

Gorriak 4-0 eta 6-2 aitzinetik jarri ziren, baina partida berdindua joan zen. Hogeita seinakoa izan zen azken berdinketa. Hogeitazazpigarrena izan zen finaleko tanto ikusgarria eta hortik aitzinera gorriak nagusitu ziren.



MAIALEN ANDRES

Sagardoaren txapelketa berezian Juanenea eta Zubiri bikote

XI. Sagardoaren Txapelketa abiatu da. ETB1eko *Erremontari* saioaren barrenean jokaturako txapelketa astelehenero, apirilaren 12an hasi eta ekainaren 7an bukatuta finalarekin. Sei bikotek sei sagardotegi ordezkatuko dituzte: Etzarri-Barrenetxea IV.a (Oialume Zar), **Aritz Juanenea saldiastarra eta Aritz Zubiri goizuetarra (Larre-Gain)**, Urriza-Zaldia (Bereziartua), Goikoetxea V.a-Aizpuru III.a (Gurutzetza), Seguroa-Larrañaga (Gaztañaga) eta Ansa II.a-Labaka (Setien).

Malerreka-Agoitz erremonte txapelketa abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Malerreka-Agoitz binakako erremonte txapelketa maiatzaren 11n hasiko da. Hasiera batean sei bikote aritzekoak ziren, gehienak Errekakoak, baina erremontista batek min hartu duela eta bikoteak berantolatatu behar izan dituzte eta bortz izanen dira, Nafarroan indar gehien duten bi erremonte eskolen ordezkari.

Honela, Errekako Martixpe (Imanol de Rueda Goñi), Agoitzko Aimar Itoiz eta Mikel Segurarekin ariko da txandaka; Errekako Iñigo Belarra Oteizak eta Markel Leatxe Portillok; Errekako Erik Garcia Otxandorenak eta Eneko Maylin Ezkurak, Errekako Julen Pikabea Oizartabalek eta David Mitxeo Zozaia; eta Agoitzko Adei Osesek eta Errekako Asier Baztan Arrarasek osatuko dituzte gainerako bikoteak.

Puntuazio sistema

Txapelketako puntuazio sistema hurrengoa izanen da:

Partidako irabazleek, 35 tanto: 4 puntu. Galtzaile izanda ere, 32-34 tanto lortzen dutenek 2 puntu; 30-31 tanto lortzen dutenek puntu 1; eta 30 tantotik beheiti punturik ez.

Bigarren fasera lehendabiziko lau bikoteak sailkatuko dira eta azkena kanporatua izanen da. Bi bikotek puntu berdinekin akitzen badute, elkarren aurka jokaturako partidak hartuko dira kontutan. Hiru bikotek edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute elkarren aurka jokaturako partidetak tanteea hartuko da kontutan. Finalerdiak bi partidetak izanen dira, partida bat Donezteben eta bertzea Agoitzen jokaturako dute, maiatzaren 13 eta 15ean. Finalaren data aitzinerago zehaztuko dute.

APIRILAK 22 - MAIATZAK 6

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

LESAKA-LEITZA 'Non dago Mikel?' dokumentala

Mikel Zabalezaren kasua oinarri duen dokumentala.

Harriondoan apirilaren 25ean (19:00etan) eta Herri Aretan maiatzaren 8an (17:00etan eta 19:30ean).

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Dragoiaren gidaria' haurrentzako zinema

Sarrerak apirilaren 16tik aurrera Astiz eta Maimurren 5 eurotan (guraso elkartekoentzat 4 eurotan).

Herri Aretan, apirilaren 24an eta 25ean, 17:00etan.

'Non dago Mikel?'

aurkezpena eta dokumentala

Bi saio. Sarrerak Astiz eta Maimurren 5 eurotan.

Herri Aretan, maiatzaren 8an, 17:00etan eta 19:30an.

DONEZTEBE

'Erik eta Win' ikuskizuna

Edukiera mugatua: 70 lagun. Zineman, apirilaren 25ean, 18:30ean.

LESAKA

'Non dago Mikel?' dokumentala

Harriondoan, apirilaren 25ean, 19:00etan. Sarrera: hiru euro.

ARANTZA

'Luze edo motz' antzerkia

Eskolan, maiatzaren 8an, 19:00etan.

BERA

'Sugarren mende' liburuaren aurkezpena

Kultur etxean, apirilaren 22an, 18:00etan.

BERTSOA

BERA

Zapla! egitasmoa

Kultur etxean, apirilaren 24an, 18:30ean.

LESAKA

I. Señora Sariketa

Arranoko terrazan, maiatzaren 8an. Sarrerak: ohiko tokietan eta bertsozarrak.eus atarian.

MERKATUA

LESAKA

Merkatu ttikia

Apirilaren 24an, 10:00etatik

14:30era.

SARA

Selauro hustea

Maiatzaren 13an.

KONTZERTUAK

LESAKA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Harriondoan, apirilaren 23an, 19:00etan.

En Tol Sarmiento

Harriondoan, maiatzaren 1ean, 17:00etan eta 19:30ean.

Lesakako txistulariak

Plazan, apirilaren 25ean, 12:30ean.

IKASTAROAK

ELIZONDO

Mendekotasuna dutenei arreta emateko ikastaroak

Lanbide Eskolan, apirilaren 14tik ekainaren 2ra eta

apirilaren 16tik maiatzaren 13ra.

Sendabelarrak egiteko ikastaroa

Laura Gurbindoren eskutik.

Arizkunenean, apirilaren 23tik ekainaren 11ra arte, ortziraletan 16:00etatik 20:00etara.

Musikoterapia haurdunaldian

Haizea Loiraren eskutik.

Arizkunenean, apirilaren 23tik ekainaren 11ra arte, ortziraletan 10:00etatik 11:30era.

LEITZA

'Plazaola eta mehatzeak: kontatzeko asko duen ondarea'

Arratsaldean 17:00etan ibilaldi gidatua trenbidean.

Herri Aretan, apirilaren 24an, 09:30etik 15:15era.

ZUBIETA

Margo tailerra

Eskolan, maiatzaren 8an eta 15ean, 11:00etatik 13:00etara.

ERAKUSKETAK

LEITZA

'Plazaola eta mehatzeak'

Herri Aretoko erakusleihoan, apirilaren 19tik 25era bitarte.

ELIZONDO

Baztan Ikastolaren erakusketa

Arizkunenean, apirilaren 25era arte.

OSPAKIZUNAK

ANIZ

Liburuaren Eguna

Frontoian, apirilaren 23an, ilunabarrean.

Nire aukera

«Egoera zaila den arren ez dut uste azken kontzertua eman dugunik»

GARAZI ERBITI GOIENETXE LEITZAKO GAZTEA



«Musikarekin eta musikarentzat» bizi den leitzar gaztea da Garazi Erbiti Goienetxe (Leitza, 1994). Musika du zaletasun, musika ogibide eta musikaren bueltan pasatzen du eguna: «arratsaldetan Hizkuntza Musika eta gitarra irakasten dut eta goizetan klase horiek prestatzen aritzen naiz». Ez da gaurkoa musikarekiko duen lotura, bere bizitzan «beti» lekua izan duen alorra da, baina orain inoiz baino gehiago, musika bizitzeaz gain musika bizibide duelako.

Gitarra, panderoa, kontrabaxua, pianoa...

«Txiki-txikitan» hartu zuen gitarra eskuan eta ordutik ez du askatu: «zortzi urterekin hasi nintzen gaur egun lan egiten dudana musika eskolan bertan». Horixe izan da «denbora gehien» eskaini dion tresna. Ez da, ordea, bakarra, beste tresna batzuk ere ikasi baititu: «ondoren panderoa ikasten hasi

nintzen eta kontserbatorioko erdi mailan bigarren instrumentua aukeratu behar zenez, hiru urtez kontrabaxua ikasi nuen».

Horien atzetik gehiago ere etorri ziren: «goi mailan sartzeko piano ezagutzak eskatzen zizkidatenez, pixka bat ikasi nuen eta gaur egun, nire kabuz, trikitixa saltseatzen hasi naiz».

Hamar urte, hamaika plaza

Etxean, klean, lanean, lagun artean... musikak beti du tokia Erbitirentzat. Batzuetan dantzatzeko eta besteetan dantzarazteko erabiltzen du. Azken helburu horrekin, 2011n, beste batzuekin batera, Gabenara taldea sortu zuen: «Araitx eta Larraungo trikitixa eta

pandero hirukote batek talde bat osatu nahi zuen eta gitarra-jotzailea behar zuten niri deitu zidaten. Ondoren, batera-jotzailea aurkitu genuen eta urtebetez entseguak eginda, plazara ateratzera animatu ginen».

Hamar urtez, hamaika plazatan ibili dira, harik eta pandemia ailegatu zen arte: «2020ko uda pixkanaka betez zihoan, gainera Kataluniako herri batera joatekoak ginen eta uda gerturatu ahala emanaldi guztiak ezeztatzen joan ziren».

Emanaldiek bai, baina musikak ez du etenik izan: «Konfinatuta geunden garaian, taldeak bizirik jarraitzen zuela sentitzea, bideo pare bat egin eta sareetan zabaltu genituen». Jendearen «babes handia» jaso zuten «eta gure animorako asko balio izan zuen». Etxetik ateratzeko aukera eman zutenean, berriz ere lanean hasi ziren: «begi bistan kontzerturik ez bagenuen ere, entseguren bat egin genuen, baina berriz ere herrien arteko mugak jarri zituzten eta entseatzeko aukera kendu ziguten».

Oraindik ezin elkartu dabilta, baina gogoak bere horretan dirau: «urte bete baino gehiago daramagu plaza bat zantzu gabe eta entseguak egiteko zailtasunekin. Horrela talde bat mantentzea oso zaila da, baino oraindik gogotsu gaude eta ez dugu uste gure azken kontzertua eman dugunik».

Erromeria taldea izanik, musika dantzagarria jotzen dute eta pandemiaren ondorioz hori «atzean gelditu» da bere ustez: «erromeria taldeentzat gerta zitekeen okerrera gertatu da».

Musika eta mugimendua

Plazan ez baina eskolan aurrea egitea lortu du leitzar gazteak eta musika klaseak izan ditu gotorleku. «Lau eta hamaika urte bitartekoei musika klaseak eta adin guztietakoei gitarra klaseak» ematen dizkie. Txikiagoentzat, berriz, «musika eta mugimendua ikastaroa» izaten du: «orain lau urte hasi nintzen eta 3-4 urtekoentzat izaten da. Eskolan musikari txikiak tailerra (0-3 urtekoentzat) ematen hasi ziren eta gure ikasleak lau urterekin hasten direnez ikasketari jarraipena eman behar zitzaio- la ikusi zen».

Tailerretan «memoria, arreta mantentzeko gaitasuna, koordinazioa, sentsibiltatea, sormena eta ongizate emozionala» lantzen dute eta «musika komunikazio bide izanik, haurren adierazteko gaitasuna garatzeko ere aproposa» dela uste du Erbitik. Gehiago ere bada: «musika mugimendurekin elkarrekin haurrak bere gorputza ezagutu eta kontrolatzea ahalbidetzen du».

Horretarako, ikastaroan «haurrek musikan arreta jar dezatela eta musikak sortzen dizkien erreakzioak aska ditzatela» bilatzen dute: «perkusio txikiko instrumentuak, telazko painuluak... erabiltzen ditugu gelako material moduan eta pertsonaia bezala beraientzat gertukoaren direnak erabiltzen dira, hau da, ipuinetako pertsonaiak (animaliak, natura...)».

Apirilaren 16an hasi zuten tailerra eta, 23an, 30ean eta maiatzaren 7an segituko dute lanketarekin: «lau saioak basoko istorioetan girotuta daude. Adin honetan ezagunak zaizkien abestiak errepikatzea gustatzen zaienez, ekintza batzuk saioz saio errepikatzen dira eta pixkanaka gehiago sartzen ditugu». Azken batean «musika zaletasun» bihurtzea dute helburu eta txikitatik elikatzen den harremanak gerora «sentimenduak azaleratzen edo egoeraz des- konektatzen» lagun dezake.

**«ERRROMERIA
TALDEENTZAT
GERTA ZITEKEEN
OKERRENA DA HAU»**

**«SENTIMENDUAK
AZALERATZEKO ETA
DESKONEKTATZEKO
BALIO DU MUSIKAK»**

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



LESKA. Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.



LESKA. Primeran dagoen etxe adosatua salgai, berri-berria. 5 logela (bat bulego izateko prestatuta), 3 komun, sukalde handia eta egurrezko tximinia. Garajea, txoko handia duena eta lorategia. ☎609 47 72 77.

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.

IGANTZI. Pisua salgai, 3 logela, 2 komun eta terrazarekin. Garajea, trastelekua eta igogailua dauzka. ☎687 73 00 87 / 615 74 66 22.

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑEA. Milagrosan auzoan, unitate berritatuak hurbil hiru logela, saloi ederra eta komuna dituen pisua errentan emateko. Guztiz mobleztatua. ☎644 46 69 15.

DONEZTEBE. Zazpigarutze inguruan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela eta trastelekua. ☎948 45 19 64 (deitu arratsaldetan).

ERRENTAN HARTZEKO

Eraikuntza enpresa batek bertako arduradunarentzat, **Bera, Lesaka edo Etxalar** inguruan etxebizitza bat behar du. Hilabetean 700 euro arte ordaintzeko prest. ☎ 648 85 13 93 (Lurdes).

EROSI

BORTZIRIAK, MALERREKA, BAZ-TAN edo BERTIZARANAN etxea, baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke. ☎688 45 84 34.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Otsango industrialdean pabiloia errentan emateko. 225m²

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

eta 50 m²ko solairuartera. ☎670 04 11 61.

LANA

ESKARIAK

Neska bat lan bila. Adinekoak orduka edo interna moduan zaintzen ariko litzateke, eta haurrak zaintzen ere bai. ☎632 75 93 48.

Familia langilea eta geriatriako auxiliarra eri edota ezinduei zaintzeko prest, ospitalean eta etxean, gauzez eta egunez. Mendeko pertsonen arreta eta zaintza orokorra. Esperientzia kontrastatua. ☎609 47 72 77.

ESKAINTZAK

LESKA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan eta udan lan egiteko. ☎600 43 09 88.

Ile-apaintzailea behar dute, berrehala hasteko prest dagoena, ar-

duratsua eta lan egiteko gogoia duena. Bidali curriculum: amuralesaka@gmail.com.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan lan egiteko. ☎948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ETXALAR. Lizarieta Bentan sukaldaria behar dute apirilean hasteko. Zortzi hilabete kontratuarekin. ☎646 50 62 49 (Stephane).

Inmobiliaria munduan lan egin nahi-ko zenuke? Higiezin aholkularia izan nahi baduzu, euskara dakien pertsona baten bila gabiltza Bortzi-riak inguruan lan egiteko, autonomo. Agentzia gaztea, lan egiteko gogoia-ekin. Proaktiboa bazara hitz egingo dugu. Bidali curriculumak: info@moldatuhome.com.

ANIMALIAK

SALGAI



Urte bateko **behoka** salgai. ☎600 67 04 95.

LEITZA. Larre behi limusina salgai. Adin guzietakoak. ☎610 37 85 43.



Enkarterri arrazako asto emea salgai, urte batekoa. ☎600 67 04 95.

DENETARIK


SALEROSKETAK



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).



Giordani Leivonnais **sehaska berria** salgai. Erabili gabea. Koltxoia eta maindireak opari. Pago egurrezkoa da eta azpian kaxoi zabala du. Lau gupil eta balaztarekin. ☎658 74 97 28.



Irokozko leihoak saltzeko, oscilobatiente sistemarekin denak. Ateak 3 unitate (218x134), leihoak 7 uni-

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,04
- 1.koa 3,92
- 2.koa 3,77

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,15
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,50
- 8-10 kilokoak: 5,40/5,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 80 €

Zerri gizona 1,460€

Zerramak 0,820€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)



E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679




KOTXE GARBITEGIA
ShineTecs®

"KONPONTZE EFEKTUA"
duen pintura babeslearekin

> "Acrylic" formula patentatua.
Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

FURGONETA GARBITEGIA



2,60 m

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

tate 2 orrikoak (121x113), leihoak 3 unitate orri bakarrekoak (120x62). Goma bikoitzekoak. ☎636 70 12 04.



Gurpil-aulki motorizatua salgai. Egoera onean. ☎678 95 70 94.

GALDU-AURKITUAK



LEITZA. Mugikorra aurkitu dute Santa Krutzetik herrirako bidean, Añaldetik. Jabeak Karrape Irratian galde dezala.

BERA. Suspendako bidean erlojua aurkitu dute. ☎948 62 52 12.

SUNBILLA. Trenbidean mugikorra aurkitu dute. ☎610 88 76 93 / 948 63 02 72.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

TAILERRAK


GANIX
Tailerra



948 63 06 69

Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

URTEBETETZEAK




Leitzako **Goiuri Zabaleta Rodriguezek** 12 urte bete ditu apirilaren 15ean. Muxu handi bat etxekoan partetik.



Aunitz urtez, **Aiora!!** Doneztebeko sorgintxoak apirilaren 15ean 5 urte bete ditu! Besarkada potoloa familia guziaren partetik eta bereziki Izadi zure ahizpa txikiaren partetik.



Lesakako **Silbia Etxarte Abuinek** 5 urte bete ditu apirilaren 20an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik, eta bereziki Gorka anaiaren partetik.



Hegoa Irigoyen Echeniquek 3 urte beteko ditu apirilaren 15ean. Aunitz urtez printzesa, zure familiaren partetik.



Jone Orube Uriak 11 urte bete ditu apirilaren 17an eta **Maialen** eta **Iraiti** ahizpek 9 urte bete zituzten marboaren 7an. Zorionak familia guziaren partetik.



Mikel Barrenetxe Alzuri aranztarak 4 urte beteko ditu apirilaren 28an. Gure *bixipoxa* zarelako eta aunitz maite zaitugulako, ongi ospatu zure eguna Txato zure zakurrarekin eta eskolako lagunekin. Aunitz urtez eta 4 muxu handi Arantzako eta Erratzuko familien partetik.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Aunitz urtez **Ainhize!** Ongi pasa zure 7. urtebetetzea! Muso handi bat Doneztebeko eta Igantziko familien partetik!



Goizuetako **Zihara** eta **Mara Olaizola Anso** gure etxeko bi printzesek urtea bete dute apirilaren 14an. Zorionak aitatxo, amabxo eta zuen bi anaien partetik, Irai eta Joan. Muxu eta besarkada handi-handi bat bientzat.

OROIGARRIA

**Gregorio
BAZTERRIKA MONREAL**

Sunbilla, 2021eko martxoaren 19an,
85 urte zituela



Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.


ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten guziet, eskerrik asko.

URTEURRENA

**Bernardo
REKALDE BARRENETXE**

1926-12-14 / 2017-04-15
IV. urtemuga




Bizitorea eta bizizalea izan zinen.
Halaxe ezagutu zintugun;
halaxe izan nahi genuke.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Beatriz
ETXARTE IRAZOKI**

Elizondon, apirilaren 11n, 86 urte zituela
I. urteurrena



Bigarren amari,
ez adiorik,
gero arte baizik.

JUANIKOTENA-HITA FAMILIA

URTEURRENA

**Joakin
MORTALENA SALABURU**

Zugarramurdin, 2019ko apirilaren 25ean
II. urteurrena



Beti irribarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin.

RAMONTXO, JAIONE, ONINTZA ETA OIHAN

URTEURRENA

**Jose Miguel
OSKOZ OTXOTORENA**

Almendozen, 2020ko apirilaren 22an
I. urteurrena



Urte bat pasatu da jada,
baina zure besarkadaren zain jarraitzen dugu.
Denbora igaro ahala,
elkar ikusteko gogoia areagotuz doa
eta zure irrifarra ez ikustea gogorregia da.
Noizbait elkar ikusiko dugu.

Maite zaitugu,
aitetxi.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Juan
SEIN
SANSIÑENA**

Igantzin, 2020ko maiatzaren 1ean
I. URTEURRENA



Gereziñdoia loretan, kukua menditan
bizitzeko indarra, zure irrifarretan
zutaz oroitu eta samin errailetan
betiko izanen zara gure bihotzetan
aitatxi, aita maitea gure bihotzetan.

ZURE FAMILIA



BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN** | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**
www.tanatoriosirache.es

SORTZEAK

- **June Oiarbide Elizalde**, Iturengoa, martxoaren 18an.
- **Gaiur Elizagoien Arretxea**, Nartartekoa, martxoaren 31n.
- **Iker Josue Hernandez Hernandez**, Lesakakoa, martxoaren 31n.
- **Zoe Goikoetxea Arrobarren**, Lesakakoa, martxoaren 31n.

EZKONTZAK

- **Estibaliz Bertiz Ariztegi** eta **Joseba Ibarra Casimiro**, Doneztebekoa eta Arraizkoa, apirilaren 12an Donezteben.

HILBERRIAK

- **Francine Jauregi**, Sarakoa, martxoaren 27an, 72 urte zituela.
- **Laurent Zunda**, Sarakoa, martxoaren 29an, 79 urte zituela.
- **Juan Mari Ameztai Arrijuria**, Elbetekoa, martxoaren 29an, 71 urte zituela.
- **Rita Lahurnagarai Irisarri**, Zugarramurdikoa, martxoaren 30ean, 87 urte zituela.
- **Mantto Zabala Irigorri**, Berakoa, martxoaren 30ean, 52 urte zituela.
- **Joxe Etxarri Mujika**, Aresokoa, martxoaren 31n, 78 urte zituela.
- **Consuelo Irazoki Bergara**, Berakoa, martxoaren 31n, 69 urte zituela.
- **Salvador Inziarte Errazkin**, Lesakakoa, apirilaren 3an, 86 urte zituela.
- **Migel Otxandorena Mutuberria**, Saldiasokoa, apirilaren 7an, 82 urte zituela.
- **Maite Etxenike Arratibel**, Doneztebekoa, apirilaren 10ean, 66 urte zituela.
- **Agustin Taberna Iparragirre**, Goizuetakoa, apirilaren 12an, 93 urte zituela.



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldiakarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

KONTATU KONTUAK



Errigoraren bi produktu-kutxa banatu ditu Ttipi-TTAPAK. Ttipi Txartelaren jabe izateaz gain, ERRAN.EUSen proposatutako lehiaketan hamar galderei zuzen erantzun dieten 79 lehiakideren artean, saski bat Lesakako Marisol Otxoteko Portuk lortu du eta bertzea Berako Jon Abril Olaetxeak. Zorionak! Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei!




Arainburura ateraldia egin dute Goizuetan. Bi taldetan banatuta, 25 lagunek parte hartu zuten Goizuetako Arainburu Umore Ona taldeak herriko mendi tonorrik altuenera joateko apirilaren 10ean antolatutako ateraldian. Bueltan Loitzatetik ere pasatu ziren.



Bergararen lanak. Apirilaren 1etik 11ra Jose Antonio Bergara leitzararen azken margolanak ikusgai jarri zituzten Leitzako Herri Aretoan. Arimaren arrastoak erakusketak ikusmira piztu zuen.

PLAZAN BAZAN



SUDOKUA




Zein ederra den udaberria! 1 zenbakiz seinalatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa, 2 zenbakiz seinalatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu botak handienetik (1) txikienera (6) eta ondotik margotu.

1. urdin ilunez eta horiz.
2. laranja eta urdin argiz.
3. berdez eta arrosaz.
4. morez eta grisez.
5. marroiez.
6. gorriz.





Zenbat txori ikusten dituzu irudian?

Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainagarriak dira, hau da, arras antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

779 aleko
irabazleak ➤

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola

72673152-A

aperturak: 2023/04

Zk. 372

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Pili Urrutia Dorregarai | IRURITA

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Francisca Ibarburu Lekuona | LESAKA

Martiko - Lote bat

Itziar Ibarra Parrondo | BERA

Kimetz Belardenda - Otar bat

Sagrario Mindegia Etxeberria | ITUREN

Irrisarri Land - 2 sarrera

Miren Oteiza Etxeberria | ERRATZU

Galaxy Park - 2 sarrera

Jose Mari Lujanbio Etxegia | IRUN

Txalaparta - Liburu bat

Ainara Telletxea Lujanbio | LEITZA

Txalaparta - Liburu bat

Nati Baleztena Santesteban | DONEZTEBE

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



Sarrera bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat


OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

**LI
BU
RU
AK**



• Sagutxin eta ilargi-arrantza
• Palmir

TTARTTALO

www.ttarttalo.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.katxiporreta.eus



www.lesakakoudalkiroldegia.com